

**Dependentzia-ereduan oinarritutako
baliabide sintaktikoak: zuhaitz-bankua
eta gramatika konputazionala**

Egilea: **M^a JESUS ARANZABE URRUZOLA**

Urtea: 2008

Zuzendariak: JOSE M^a ARRIOLA, ARANTZA DIAZ DE ILARRAZA

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-320-8

Hitzaurrea

Tesi-lan honen motibazioa euskararen sintaxi konputazionalean beste urrats bat egitea izan da; hots, ordura arte zegoen sintaxi partzialetik abiatuta osorako bidea egitea, esaldia osatzen duten elementu guztien arteko lotura gauzatzuz.

Horretarako, nahitaezkoa ikusi dugu sintaktikoki etiketaturiko corpora edo zuhaitz-bankua eraikitzea, eta honetan oinarrituta gramatika konputazionala definitzea. Era berean, baliabide horiekin testu errealak sintaktikoki aztertzea helburu duen analizatzaile sintaktikoa garatu dugu.

Bi urte betetzena doaz baliabide hauek garatu genituela, eta tesi-lan honetatik kanpo izan dituzten erabilerek adierazten dute ondoen zenbaterainoko garrantzia duten hizkuntzari buruzko ikerketa linguistikoetan eta hizkuntzaren prozesamenduan. Horrela, bada, zuhaitz-bankua, esaterako, *Conference on Computational Natural Language Learning* (CoNLL) lehiaketan, metodo edo sistema berriak probatzeko urtero antolatzen den lehiaketan (Nivre *et al.*, 2007) erabili da, baita egitura jakin baten maiztasuna aztertzeko ere. Gramatika konputazionalari dagokionez, erroreak detektatzeko diseinatu den *Saroi* izeneko tresnaren analisi sintaktikorako moduluaren oinarrian erabiltzen da (Oronoz, 2009).

Egun, ikerketa lerro berean jarraitzen dugu egindako lanak sakonduz eta osatzuz. Hala, zuhaitz-banku honetan oinarrituta ari gara gauzatzen *Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpusaren* etiketatze semantikoa rolen bidez (Aldezabal *et al.*, 2010), eta lerro estatistikoarekin elkarlanean ere ari gara, elkarren osagarritzat jotzen ditugulako metodo estatistikoak eta hizkuntzaren ezagutzan oinarritzen den gramatika hau.

Maria Jesus Aranzabe
2010

Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco



Euskal Filologia Saila
Departamento de Filología Vasca

Dependentzia-ereduan oinarritutako baliabide sintaktikoak: zuhaitz-bankua eta gramatika konputazionala

María Jesús Aranzabe Urruzolak

Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkezturiko

Tesia

Donostia, 2008ko maiatza.

Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco



Euskal Filologia Saila
Departamento de Filología Vasca

Dependentzia-ereduan oinarritutako baliabide sintaktikoak: zuhaitz-bankua eta gramatika konputazionala

María Jesús Aranzabe Urruzolak Jose Mari Arriola Egurrolaren eta Arantza Díaz de Ilarrazaren zuzendaritzapean egindako tesiak, Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian Doktore titulua eskuratzeko aurkeztua.

Donostia, 2008ko maiatzak.

Isilean lan egiten duen orori

Eskerrak ematen:

X. Artolari, Arantzari eta Iñakiri, euskararen tratamendu automatikoaren munduan *murgildu* ninduzuelako.

Arantzari eta Jose Mariri, tesi hau zuzentzeko hartu duzuen arduragatik.

Ixakide guztioi, eta, bereziki, etiketatzaleoi (Larraitz, Irene, Aitziber, JM, Itsaso, Mikel I., Ainara, Izaskun...) eta latex-eko kontuekin lagundu didazuenoi (Oier, David, Itziar, Maite eta Eli).

Kikeri eta Arantzari, ebaluazio-lanetan emandako laguntzagatik.

Koldori, Izaskuni, Davidi, Larraitz, Kepari eta X. Artolari, egin dizkida-zuen zuzenketa eta iradokizunengatik.

Larraitz, lehenaz gain, *aaiiiii, poooorr dioosssss* horiengatik. Zein ederra (izan) den!

Itziar Aldaberri, formatua dela-eta eman didazun laguntza izugarria izan delako, batez ere, azken txanpa honetan. Ostiral arratsaldeko irudiarekin geratuko naiz: bata mahai batean, bestea ondokoan eta ni zuei bioi begira. Maitasuna bezalakorik!

Olatz Ansari, amesgaiiztoetatik zoriontsu esnarazi nauzulako.

Davidi, hurbil ala urrun egon, gertu sentitu zaitudalako; laguntzeko prest beti!

Pedrorri, Aingeruri, José Ignaciori eta Germani, izandako hitz aspertuengatik. Plazer handia izan da / Ha sido un gran placer.

A vos, Juan José E., por el interés que mostráis desde el otro lado del charco.

Lagunoi (Mailu, Rakel, Edurne, Lurdes, Roxa, Sagrario, Belen, Pi, Josune, Arantxa, Garbiñe, Chelo, Carmen, Karmele eta gainerakoak), ondoan izan zaituztedalako. Honekin duzue *noizko* galderaren erantzuna.

Beleni, zure telefono-deietara ohitu naizelako. Zein sakonak izan diren te-siaren inguruko gogoetak!

Piri, tesia baino gauza garrantzitsuagoak badirela gogorarazteagatik. Bihar ere argituko du egunak!

Lurdes L.ri, mementurik zailenetan ere lanean aurrera egiteko kemenet eman didazulako.

Garbiñeri, Joxemiri eta Kepari: Uzturrera begira jarria nago.

Montse Maritxalarri, zure besarkadaren berotasunagatik.

Igoneri eta Txankarri, laguntzeko erakutsi didazuen borondateagatik. Eta animoak eman dizkidazuen gainerako sailkideoi: Izaskun, Antton, Kristina, Joseba, Agurtzane, Juan Kruz...

Atzetik doan irakasleari arbela txukun uzten “ikasi” duzun horri. Hau bize!

Etxekooi, arnasberritzen lagundu didazuelako, eta, bereziki, Maixari, bihotz handikoa haizelako, eta aita-amoi, dagokizuen denbora kendu dizuedalako.

Izaskun Aldezabali, zuretzat nire eskerrik beroena. Ez dut hitzik aurkitzen... Zarena zarelako!

Zuri, zeure izena hemen agertzea espero eta ahaztu zaitudan horri. Ziur nago ondoan izan zaitudala!

Guztioi, eskerrik asko!

*After a while you learn
the subtle difference between
holding a hand and chaining a soul
and you learn
that love doesn't mean leaning
and company doesn't always mean security.
And you begin to learn
that kisses aren't contracts
and presents aren't promises
and you begin to accept your defeats
with your head up and your eyes ahead
with the grace of woman, not the grief of a child
and you learn
to build all your roads on today
because tomorrow's ground is
too uncertain for plans
and futures have a way of falling down
in mid-flight.*

*After a while you learn
that even sunshine burns
if you get too much
so you plant your own garden
and decorate your own soul
instead of waiting for someone
to bring you flowers.*

*And you learn that you really can endure
you really are strong
you really do have worth
and you learn
and you learn
with every goodbye, you learn...*

“*After a while*” Veronica A. Shofstall

Gaien aurkibidea

Irudien zerrenda	xiii
Taulen zerrenda	xvii
I SARRERA ETA AURKEZPEN OROKORRA	1
I.1 Proiektuaren nondik norakoak	1
I.2 Helburuak	5
I.3 Tesiaren eskema	7
LEHEN PARTEA: SINTAXIAREN FORMALIZAZIOA	9
II GAINBEGIRATUA ZUHAITZ-BANKUEI	11
II.1 Sarrera	11
II.2 Etiketatze-mailak	13
II.3 Corpusa etiketatzeko eredu sintaktikoen azterketa	14
II.4 Erdal hizkuntzetako zuhaitz-bankuak	19
II.4.1 Ingeleseko zuhaitz-bankuak	20
II.4.2 Alemaneko zuhaitz-bankuak	21
II.4.3 Eslaviar zuhaitz-bankuak	22
II.4.4 Latin hizkuntzetako zuhaitz-bankuak	23
II.4.5 Beste hainbat hizkuntzatako zuhaitz-bankuak	25
II.5 Zuhaitz-bankuaren erabilera orokorra	26
II.6 Laburbilduz	28
III EUSKARAKO ZUHAITZ-BANKUA ERAKITZEKO IRIZ-PIDE LINGUISTIKOAK	29
III.1 Sarrera	29

III.2	Dependentzia Gramatika	30
III.3	Oinarri metodologikoak	34
III.4	Etiketatze-prozesua	38
III.5	Dependentzia-erlazioen deskripzioa	41
III.5.1	Perpaus bakunak	42
III.5.1.1	Aditz-katea	43
III.5.1.2	Sintagmak	48
III.5.1.3	Etiketa semantikoa	62
III.5.2	Perpaus konposatuak	63
III.5.2.1	Mendeko perpausak	64
III.5.2.2	Testu-mailako kohesioa	84
III.6	Erabaki praktikoak	85
III.7	<i>Abar-Hitz</i> zuhaitz-editorea	98
III.8	Laburbilduz	101

**BIGARREN PARTEA:
ANALISI SINTAKTIKO AUTOMATIKOA** 103

IV	SINTAXI KONPUTAZIONALA	105
IV.1	Sarrera	105
IV.2	Teknika sintaktikoak	106
IV.2.1	Ezagutza linguistikoan oinarritutako hurbilketak	107
IV.2.1.1	Testuingururik gabeko gramatiketan oinarritutako sistemak	107
IV.2.1.2	Egoera finituko mekanismoetan oinarritutako sistemak	108
IV.2.2	Teknika probabilistikoetan oinarritutakoak	110
IV.2.3	Teknika linguistikoen eta probabilistikoen konbinazioak	111
IV.3	Formalismo gramatikalak	111
IV.3.1	Lexical-Functional Grammar (LFG)	112
IV.3.2	Head-Driven Phrase Structure Grammar (HPSG)	113
IV.3.3	Murritzapen Gramatika (MG)	115
IV.4	Euskararen sintaxiaren tratamendu automatikoa	117
IV.4.1	Testuingururik gabeko gramatiketan oinarritutako euskararen analizatzaireak	118
IV.4.2	Euskararen egoera finituko sintaxi-tresnak	119

IV.4.2.1 Murriztapen Gramatika (MG)	119
IV.4.2.2 Egoera finituko sintaxia (XFST)	120
IV.5 Erabilitako analizatzalea	120
IV.6 Laburbilduz	126
V ANALISI SINTAKTIKO PARTZIALAREN ABANTAI-LAK	127
V.1 Sarrera	127
V.2 Testuko kate sintaktikoak	128
V.3 Kate sintaktikoen gramatika	130
V.3.1 Aditz-kateen gramatika	131
V.3.2 Sintagmen gramatika	134
V.4 Egindako ekarpenak	135
V.5 Ebaluazioa	141
V.6 Laburbilduz	143
VI DEPENDENTZIA GRAMATIKA KONPUTAZIONALAK	145
VI.1 Sarrera	145
VI.2 Aurrekariak	147
VI.3 Jarraitutako metodologia	148
VI.4 Euskarako Dependentzia Gramatika Konputazionalak (EDGK)	150
VI.4.1 EDGK gramatiken oinarriak	150
VI.4.2 EDGK gramatikak ikuspuntu linguistikotik	151
VI.4.2.1 EDGK-I	151
VI.4.2.1.1 Perpaus bakunak	152
VI.4.2.1.2 Perpaus konposatuak	161
VI.4.2.2 EDGK-II	173
VI.4.3 EDGK gramatikak ikuspuntu konputazionaletik	174
VI.4.3.1 EDGK-I	174
VI.4.3.2 EDGK-II	183
VI.5 Ebaluazioa	184
VI.6 Laburbilduz	187
VII ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO IKERLERROAK	189
VII.1 Lortutako emaitzak	189
VII.2 Ondorioak	191
VII.3 Etorkizuneko lanak eta ikerlerroak	193
VII.4 Tesi honekin loturiko argitalpenak	195

Bibliografia	197
Glosarioa	211

Irudien zerrenda

II.1	Ingeleseko <i>Penn Treebank</i> eko esaldi baten arbola-diagrama osagai-egituran oinarrituta.	15
II.2	Esaldiak etiketatzeko modua (I).	16
II.3	Esaldiak etiketatzeko modua (II).	16
II.4	Ingeleseko <i>Penn Treebank</i> eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza. .	17
II.5	Ingeleseko <i>Penn Treebank</i> eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza geziak baliatuta (I).	17
II.6	Ingeleseko <i>Penn Treebank</i> eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza geziak baliatuta (II).	18
III.1	Gobernatzaile/mendeko erlazioak esaldi batean.	32
III.2	Dependentzia ziklikoen irudikapena.	33
III.3	Lotu gabeko grafoak dituen <i>w1 w2 w3 w4 w5</i> esaldia.	34
III.4	<i>John saw a dog yesterday which was a Yorkshire Terrier</i> esaldiaren dependentzien irudikapena.	34
III.5	Erlazio-gramatikalen hierarkia (Carroll <i>et al.</i> , 1998).	39
III.6	Alfred frappe Bernard adibidearen analisi desberdinak.	43
III.7	Perpaus bakuneko dependentzia-etiketak.	44
III.8	Aditz-kateko dependentzia-etiketak.	44
III.9	Lanean ikusi zaitut esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	45
III.10	Besteetan gure etxera etorri izan da perpausaren dependentzia-zuhaitza.	47
III.11	Sintagmetako gobernatzaleen dependentzia-etiketak.	49
III.12	Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen perpausaren dependentzia-zuhaitza.	52
III.13	Ardo bat behar zuen ezinbestean perpausaren dependentzia-zuhaitza. .	55
III.14	Sintagmetako mendekoei dagozkien dependentzia-etiketak.	58
III.15	Iazko festetan ezagutu nuen perpausaren dependentzia-zuhaitza. .	60
III.16	Oso ongi egiten du txinera perpausaren dependentzia-zuhaitza. .	62

III.17	Perpaus konposatuetako dependentzia-etiketak.	64
III.18	Mendeko perpaus osagarrien dependentzia-etiketak.	66
III.19	Garbi ageri zen gaizki-esaleak ugariagoak zirela esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	67
III.20	Komeni da haurrek etxeak liburuak irakurtzea esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	70
III.21	Mendeko perpaus modifikatzileen dependentzia-etiketak.	72
III.22	Kurban agertu zinenean lagun guztiok geunden esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	74
III.23	Eta dena kasualitatez hasi zen, bus hartako kristalean idatzi nuen esaldiarekin esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	78
III.24	Etxera iristean kontatuko dizut guztsia esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	79
III.25	Aposizio- eta predikazio-perpausen dependentzia-etiketak.	82
III.26	Ikasleen, azterketa gainditu ez dutenen kexa neurriz kanpokoa da esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	83
III.27	Beraz, telefonora joan naiz esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	85
III.28	Gizon polifazetiko eta ibentore handi honek linterna magikoa sortu zuen esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	87
III.29	Mikelek bazkaria prestatu du eta Jonek ontziak garbitu ditu esaldia-ren dependentzia-zuhaitza.	89
III.30	Etxetik at bidali dute esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	90
III.31	Ondo jokatu duten arren galdu egin dute esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	93
III.32	Hori baino serioagoa naiz ni esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	95
III.33	Ezkontideetako bat alargun geratzen denean eta seme-alaben tutoretzarekin esaldiaren dependentzia-zuhaitza.	98
III.34	Abar-Hitz tresna informatikoaren interfazea.	100
III.35	Abar-Hitzen irudikatutako dependentzia-zuhaitza.	101
IV.1	<i>David yawned</i> esaldiaren adierazpena LFGn.	113
IV.2	<i>David yawned</i> esaldiaren osagai-egitura LFGn.	113
IV.3	<i>she</i> izenordainaren adierazpena HPSGn.	114
IV.4	MGren sarrera Arrazoia zuen Kurt-ek esaldiaren analisian.	116
IV.5	Euskararen muriztapen-gramatikaren bi erregela.	117
IV.6	MORPHEUSen irteeraren adibidea.	122
IV.7	Desaniguazio morfologikoaren emaitza.	123
IV.8	Funtzio sintaktikoen osaketa.	124

IV.9	Funtzio sintaktikoak desanbiguatuta.	124
V.1	Implizituki adierazitako kate sintaktikoen egitura.	129
V.2	Kate sintaktikoen bereizketa MGren irteeran.	136
V.3	ortzean zehar postposizio konplexuaren lehengo analisia.	137
V.4	ortzean zehar postposizio konplexuaren oraingo analisia.	137
V.5	1874ko apirilaren 15etik aurrera postposizio konplexuaren oraingo analisia.	138
V.6	1874ko apirilaren 15etik aurrera postposizio konplexuaren oraingo analisia.	138
V.7	olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak sintagmaren lehengo analisia.	138
V.8	olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak sintagmaren oraingo analisia.	139
V.9	Asteburuaren aurrean sintagmaren oraingo analisia.	139
VI.1	Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezibitu zituen esaldia-ren dependentzia-zuhaitza.	146
VI.2	Analisi sintaktiko automatikoaren prozesua dependentzia-mailan.	149
VI.3	Analizatzaire sintaktikoaren emaitza EDGK-I baliatuta.	174
VI.4	Izenaren modifikatzailea zehazteko islapen-erregela.	177
VI.5	Aditzaren mendeko izena zehazteko islapen-erregela.	178
VI.6	Izenaren determinatzailea zehazteko islapen-erregela.	178
VI.7	Izenaren modifikatzailea zehazteko islapen-erregela.	179
VI.8	Aditzaren mendeko izena zehazteko islapen-erregela.	179
VI.9	Izenaren modifikatzailea den adjektiboa zehazteko islapen-erregela.	180
VI.10	Aditz nagusia zehazteko islapen-erregela.	180
VI.11	Aditz laguntzailea zehazteko islapen-erregela.	181
VI.12	Otarteko triste bat sintagmaren analisia.	182
VI.13	Otarteko triste bat sintagmaren analisia dependentzien bidez.	182
VI.14	Burubil programaren irteera identifikadoreak erantsita.	183
VI.15	Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezibitu zituen esaldia-ren dependentzia-zuhaitza.	184
VI.16	Dependentzia-zuhaitz baten alderaketa.	185

Taulen zerrenda

I.1	Euskarazko corpusak.	3
II.1	Erdal corpusetako etiketatze-maila desberdinak.	14
II.2	<i>Economic news had little effect on financial markets</i> adibidea.	18
III.1	Euskarako dependentzia-etiketak alfabetikoki zerrendatuta.	40
V.1	Alderatutako perpaus-zatia.	141
V.2	Sintagmen ebaluazioaren emaitzak.	142
V.3	Aditz-kate jarraituen ebaluazioaren emaitzak.	142
VI.1	Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen adibideko dependentzia-etiketak.	148
VI.2	EDGK.I gramatikako islapen-erregelen kopurua.	151
VI.3	<i>aditz-nagusi</i> dependentzia-etiketaren adibideak.	152
VI.4	<i>auxmod, galde mod</i> eta <i>prtmod</i> dependentzia-etiketen adibideak.	154
VI.5	Sintagmetako gobernatzaleei dagozkien dependentzia-etiketen adibideak.	156
VI.6	Sintagmetako mendekoei dagozkien dependentzia-etiketen adibideak.	161
VI.7	Mendeko perpaus konpletiboak, jokatuak zein jokatugabeak.	168
VI.8	Mendeko perpaus modifikatzaile jokatuak.	169
VI.9	Mendeko perpaus modifikatzaile jokatugabeak.	170
VI.10	Mendeko perpaus erlatiboak, jokatuak zein jokatugabeak.	170
VI.11	Konparaziozko perpausak eta aposizio- eta predikazio-perpausak.	171
VI.12	Lokailuei dagozkien adibideak.	171
VI.13	Koordinazioari dagozkion adibideak.	173
VI.14	EDGK-II: perpaus bakunak.	175
VI.15	EDGK-II: perpaus konposatuak eta etiketa lagungarriak.	176
VI.16	Analizataile sintaktikoaren ebaluazio-emaitzak.	186

VI.17 EDGK-I gramatikaren ebaluazio-emaitzak.	186
VI.18 Zenbait dependentzia-etiketen ebaluazio-emaitzak.	187

I. KAPITULUA

SARRERA ETA AURKEZPEN OROKORRA

I.1 Proiektuaren nondik norakoak

Hizkuntza da dudarik gabe gizakiok informazioa trukatzeko erabiltzen dugun bitarteko nagusia. Ez dago beste sistema eraginkorragorik ideiak partekatze-ko, jakituriak transmititzeko, emozioak adierazteko eta azken batean, kultura bezala ezagutzen duguna sortzeko.

Egun, hizkuntzak informazio-gizartean duen papera ezin da ulertu teknologiarik gabe, informazio- eta komunikazio-teknologiarik gabe, alegia. Komunikabideetan gertatutako aurrerapen izugarriak areagotu egin du hizkuntzen tratamendu automatikoaren beharra. Bereziki, informazio-iturri neurtezina bilakatu da sarea. Informazio hori guztila, ordea, ezin du gizakiak guztiz prozesatu. Hori dela eta, erabakigarria da Hizkuntzaren Prozesamenduko (HP) teknikak garatzea ahalik eta informazio egokiena bilatzeko, eta hartara sarean ez itotzeko.

Hain zuzen ere, HParen barruan kokatzen da tesi-lan hau, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultateko IXA¹ ikerketa-taldearen jardunean. Zehatzago esateko, hizkuntza ulertu ahal izateko behar-beharrezko den sintaxi konputazionala izan dugu langai.

Ikerketa-talde honetan, besteak beste, hain beharrezkoak eta onuraga-

¹<http://ixa.si.ehu.es/Ixa>

rriak izan daitezkeen sistema (erdi-)automatikoak lortzea dugu helburu, teknologia berrien eragina hizkuntzan ahalik eta onena izan dadin.

Teknologia hauek informazioa prozesatzeko sistema informatikoetan oinarritzen dira eta tratamendu linguistikoa, halaber, lagungarria baino ezinbestekoa da. Lan horretan diziplinarteko taldea osatzen dugu, informatikak eta hizkuntzalaritzak bat egiten duten neurrian.

HPan, oinarrizkoa bihurtu da informazio idatzi zein ahozko horren, hots, **corpusen** azterketa eta ustiapena hizkuntzalaritza eta ingeniaritza arloko garapen aplikazioetarako. Baliabide ezin hobeak bihurtu dira, beraz, corpusak fenomeno linguistikoak enpirikoki aztertzeko eta baita erauzketa eta ikasketa automatikorako ere. Ez da ikerkuntza mota berria; baina formatu elektronikoko corpusaren gero eta tamaina handiagoak eta ordenagailuen memoriaren hazkundeak, milioika hitzez osatutako testuak tratatzeko erraztasunaz gain, emaitza berriak ematen ditu.

Hizkuntzan gertatzen den anbiguotasuna handia izanik, corpus gordinek (inolako markaketarik gabeko corpusek) erabilera mugatua dute. Horren aurrean, hizkuntzaren erabilera-eremu guztietaarako baliagarriak edo adierazgariak diren corpusek, tamaina handikoak izateaz gain, linguistikoki etiketa-tutakoak behar dute izan. Hauetan, testuko hitzei² edo hizkuntza-unitateei buruzko informazioa eransten da, eskuarki etiketen bidez.

Euskararen kasuan, hainbat corpus eratu dira I.1 taulan³ jasotzen den moduan. Horietatik, Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpusa (EPEC) (Aduriz *et al.*, 2006a) da euskararen tratamendu automatikoa gauatzeko erabiltzen duguna IXA taldean. Hainbat mailatan (morfologia, sintaxia eta semantika, batez ere) landu dugu eskuzko metodoak nahiz automatikoa baliatuz. Orain artean, ezagutza linguistikoa bertatik zuzenean ikasteko eta tresnetakoa ebaluatu eta fintzeko erabili dugu.

Tesi-lan honetan, **zuhaitz-bankua** (edo *treebanka*) eraikitzeko eta **gramatika**

²Hitza zer den definitza ez da uste bezain erraza. HPan, zuriunetik zuriunera bitarteko alfabetoko karakteren segidatzat jotzen da. Halaber, testu-elementu horiei *token* deitzen zaie. *Tokenak*, ordea, hitzak ez ezik puntuazio-markak, zenbakiak, laburtzapenak edo antzeko beste edozein karaktere ere hartzen ditu bere barruan.

³Corpus horiei buruzko informazio zehatzagoa helbide hauetan aurki daiteke: Klasikoen Gordailua (<http://klasikoak.armiarma.com/kgriburuz.htm>), Ibinagabeitia Proiekta (<http://andima.armiarma.com/info.htm>), Orotariko Euskal Hiztegia (http://www.hiru.com/euskara/euskara_03850.html), XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa (<http://www.euskaracorpusa.net>), Ereduzko Prosa (<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa>), Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (<http://www.ztcorpusa.net/aurkezpena.htm>) eta EPEC (<http://ixa.si.ehu.es/Ixa>).

konputazionala osatzeko oinarri gisa baliatu dugu, eta baliabide horiekin testu errealk sintaktikoki aztertzea helburu duen analizatzaile sintaktikoa garatu dugu.

Corpusa	Tamaina	Etiketatze-maila
Klasikoen Gordailua	11,9 milioi hitz	-
Ibinagabeitia Proiektua	7.949 artikulu dijitalizatuta	-
Orotariko Euskal Hiztegiaren Corpusa	6 milioi hitz	-
XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa	4,6 milioi hitz	lematizazioa
Ereduzko Prosa	25,1 milioi hitz	lema eta kategoria
Zientzia eta Teknologiaren Corpusa	7,6 milioi hitz	lema, kategoria eta azpikategoria
EPEC	300.000 hitz	morfologia, sintaxia eta semantika

I.1 Taula: Euskarazko corpusak.

EPEC corpusa euskara estandarrean idatzitako 300.000 hitzek osatzen duten testu-bilduma da. Testu-bilduma honen zati bat *XX. mendeko euskararen corpus estatistikotik*⁴ hartu da, eta beste bat *Euskaldunon Egunkariatik*⁵.

Hizkuntza bati buruzko ahalik eta informaziorik osatuena emateko presstatuta dagoen corpusari, hau da, hizkuntzaren erabilera-eremu guztietaarako baliagarria edo adierazgarria izatea helburu duen corpusari erreferentzia-corpusa esaten zaio (Leech, 2002). Gure kasuan, EPEC erreferentzia-corpusa dela diogunean, euskararen prozesamendurako hainbat tresna garatzeko eta hobetzeko erabiltzen den eta erreferentziatzat dugun corpusa dela ulertu behar da.

Linguistikoki etiketatzen ari garen corpusa da. Landu ditugun maila desberdin etiketatze linguistikoa egiteko, lehenik, euskara automatikoki prozesatzeko teknologia (taldean garatutako tresnak⁶) erabili da, eta ondoren, eskuz landu da etiketatze-lana aberastuz, zuzenduz eta desanbiaguatz.

⁴Oraindaino EEBS (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa) izenarekin ezagutu izan dena.

⁵<http://www.egunero.info> (2002an atzitua).

⁶Tresna hauei buruzko informazioa aipatu berri dugun IXA ikerketa-taldearen web-orrian aurki daiteke.

Morfologian, testuko hitzen osaera aztertu da; hau da, hitz bakoitza dago-kion lema-, kategoria-, azpikategoria-, kasu-, numero- eta mugatasun-informazioaz hornitu da (Aldezabal *et al.*, 2007). Urrats honetan azaltzen da, lehenengoaz, anbiguotasunaren arazoa, hitz-forma bat morfologikoki modu desberdinaten segmentatzea dagoelako, eta, ondorioz, interpretazio bat baino gehiago izango dugu (kontuan hartu behar da lan hau testuingurua aintzat hartu gabe egiten dela). Horrenbestez, morfologiaren urratsean gertatzen den anbiguotasuna desanbiguatu beharra dago; hau da, hitz-formari egoki dago-kion interpretazioa zuzentzat markatu behar da (okerrak baztertz), testuinguruari erreparatuz.

Sintaxiari dagokionez, **sintaxi partziala** landu da. Esaldia osorik ulertzera iritsi gabe, zerbait mekanismo eta teknikaren bidez (Abney, 1991) analisi sintaktiko tradizionalaren informazio-zati edo kate sintaktiko⁷ erabilgarriak lortzen dira (Aduriz *et al.*, 2006b).

Semantikan, berriz, Euskal WordNeteko adierak erabilita, corpuseko ize-nak, adjektiboak eta aditzak etiketatu dira (Pociello, 2008).

Maila desberdineko informazio linguistikoarekin etiketatutako corpusen garrantzia ukaezina da, lehen esan bezala, hizkuntza teknologiaren produktuak ikertzeko eta garatzeko oinarri empirikoak jartzen dituelako eskura. Horren erakusgarri dira erdal hizkuntza desberdinako zuhaitz-bankuak edo *treebankak*, esaterako, ingeleseko *Penn Treebanka* (Marcus *et al.*, 1993) eta txekierako *Prague Dependency Treebanka* (PDT) (Hajic, 1998).

Treebank terminoa Geoffrey Leech-ek asmatu zuen (Leech eta Garside, 1991) eta, honen bitartez, analisi gramatikalak irudikatzeko biderik egokiena zuhaitz egituraz baliatzea dela adierazi zuen. Analisi sintaktikoek zuhaitz itxura dute, hortik *treebank* izenaren jatorria. Hala eta guztiz ere, egungo era-bileran, termino honen bitartez zuhaitz itxurako errepresentazioak ez ezik, egitura mailan etiketatuta dauden corpusak adierazten dira, analisi semantikoa barne.

Sintaktikoki etiketaturiko corpusa nahitaezkoa dugu sintaxia sakonago lantzeko, bai alderdi konputacionaleik, bai teorikotik. Praktikan, ordea, hizkuntza oso bat aztertuko duen sistema bat eskuz eraikitzea ezinezkoa dela esan daiteke. Horrenbestez, etiketatze-prozesua automatikoki edota erdi-

⁷Kate hitza erabiliko dugu arloko lanetan, sintaxi konputacionalean, alegia, erabiltzen diren *clusters* (Joshi, 1960), *chunks* (Abney, 1991), *chains* (Grefenstette, 1996) edo *segments* (Aït-Motkhtar eta Chanod, 1997) terminoak adierazteko. *Chunk* terminoa Abney-ren (1997) arabera honela definitzen da: gune edo buru baten inguruan osatzen den zentzu sintaktikoa duten elementuen segida.

automatikoki egitea desiragarria da. Hori da, hain zuen ere, gure asmoa eta horretarako, taldean aldez aurretik garatu ditugun oinarrietatik abiatuko gara, taldean egin diren aurreko tesi-lanetan (Aduriz, 2000; Arriola, 2000) deskribatuak, hain zuen ere. Hauetan sintaxi partziala deritzona landu da *Constraint Grammar* (CG) (Karlsson *et al.*, 1995) formalismoa jarraituz. Hala, Adurizek (2000) CGren euskararako egokitzapena gauzatu du, aurrentzean Murritzapen Gramatika (MG) izenarekin ezagutuko duguna, eta Arriolak (2000) *Euskal Hiztegiako* (Sarasola, 1997) adibideetan oinarrituta, aditz-azpikategorizazioa jorratu du, kate sintaktikoak ezagutzeko hasierako urratsak eginez.

Horrela, bada, sintaxi partzial horretatik abiatuta osorako bidea eraiki nahi dugu, esaldia osatzen duten elementuen arteko lotura gauzatzu.

Gure proiektuaren nondik norakoak adierazi ondoren, I.2 atalean aurkeztuko ditugu hori lortzeko ezarri ditugun zeregin zehatzak. Kapitulu honetako azken atalean (I.3), tesiaren eskema azalduko dugu.

I.2 Helburuak

Tesi honen helburu nagusia euskarazko testu errealko aztertzeko baliabide sintaktikoak (zuhaitz-bankua eta gramatika konputazionala) garatzea da. Zeregin horretan kontuan hartu ditugu IXA taldeko ikerkuntza-bideak, urratuak zein urratzen ari direnak, batetik, aurkeztuko dugun lan hau horietan integratzeko eta, bestetik, berau gauzatzen laguntzeko.

Helburu nagusi hori lortze aldera, eginkizun zehatz hauek ezarri ditugu:

- Sintaxia adierazteko formalismoa aukeratu

Testu errealen analisi sintaktikoa gauzatzeko lehendabiziko lana, aplikazio informatikorako egokia den eredu aukeratzea izan da.

Dependentzieta oinarritutako formalismoa aukeratu dugu arrazoi ugariengatik: a) aurreko analisiaren hezurdura, eredu oso antzekoan oinarritzen da, b) dependentzia-ereduak tradizio handia du hizkuntzalaritza orokorrean, eta eranskariak diren eta hurrenkera librea duten hizkuntzentzat egokiagoa dela ondorioztatu da, c) intuitiboa da; hots, hitzak binaka lotzen dira eta lotura horretan bata gobernatzailea da eta bestea mendekoa, d) analizatzaile sintaktikoa garatzeko aukera eskaintzen du, eta e) semantika tratatzeko ateak zabaltzen ditu.

- Deskripzio sintaktikoa hobetu, hitzen arteko erlazio gramatikala esplizitu eginez

Euskararen Murritzapen Gramatikan gordetzen den orain arteko deskripzio sintaktikoak dependentzia-gramatika jarraitzen du inplizituki. Gure helburua erlazio hori esplizitu egingo duten gramatika konputazionalak sortzea da. Horretarako, erlazio sintaktiko guztiak esplizitu egitea helburu duen Dependentzia Gramatika jarraitzeari egoki iritzi diogu.

Ondorioz, analisi sintaktiko partzialetik haratago doan analisia egingo dugu, eta esaldien analisi osoak, edota esaldiko hitz guztien arteko lotura egitea lortuko dugu.

- Zuhaitz-bankua eraikitzeko metodologia definitu

Zuhaitz-bankuaren formalizazioan buru-belerri sartu aurretik, hainbat erabaki hartu behar dira aukeratutako formalismoa kontuan izanik; hal-a nola, azaleko analisia ala sakona egingo den; bateragarria izango den gramatika konputazionalarekin (erdi-automatikoki gauzatzeko analisien aurrebaldintza); teoria linguistikorik jarraituko duen etiketatze-eskemak; zein diren definituko diren gramatika-etiketak, eta implementazioan kontuan hartu beharreko beste xehetasun praktiko batzuk.

- Analisi automatikorako gramatika konputazionalak idatzi

Euskararen sintaxi konputazionala aztertzeko aipatu berri ditugun te-si-lanak (Aduriz, 2000; Arriola, 2000) hartu ditugu kontuan. Lan horietan, besteak beste, sintagma eta aditz-kate mailako egitura linguistikoak ezagutzen dira. Gure asmoa lan horretan aurrera egitea da batetik, euskararen egitura sintaktiko desberdinak exhaustiboki azalduz, eta bestetik, etorkizuneko ikerketa-lanetan eta konputazio-mailan irtenbide praktikoak emateko baliatuko den etiketatze-eskema definituz.

- Analisi automatikorako sortutako gramatikaedo erregelek ebaluatu

Hizkuntza-ezagutzan oinarrituta definitu ditugun erregelek benetan lortu nahi dugun emaitza lortzen duten konprobatuko dugu, eskuz zein automatikoki etiketatu den corpusaren zati bera alderatuz. Hau da, gramatika-erlazio egokiak eskuz etiketatuta dituen corpusa gramatika konputazionalak baliatuta automatikoki etiketatu denarekin alderatu-

ko dugu. Lortzen diren emaitzak erregelak fintzeko edota beste batzuk sortzeko erabiliko ditugu.

- Etiketatze semantikorako abiapuntua jarri

Etiketatze-eskema aukeratzean kontuan izango dugu semantikarekiko interfazea, ingelesarekin egin izan den bezala. Mota honetako corpusa dugu *PropBank* (Palmer *et al.*, 2005), rol tematikoetan oinarrituta semantikoki etiketatu dena.

I.3 Tesiaren eskema

Tesi hau bi zati nagusitan banatu dugu. Sarrera honen ondotik datorren lehen partea, sintaktikoki etiketatutako corpusaren edo zuhaitz-bankuaren osaera-ri eskaini diogu, bi kapitulutan banatuta (II. eta III. kapituluak). Bigarren partean (IV., V. eta VI. kapituluak), euskal sintaxiaren tratamendu automatikoa aztertu dugu. Bukatzeko, lan honetatik ateratako ondorioak adierazi ditugu VII. kapituluan. Hauetz gain, eranskinetan, analisietan erabilitako laburtzapenen esanahia, analizatzaile sintaktikoak baliatzen duen gramatika idazteko jarraitu beharreko urratsak zein diren eta idatzi diren gramatika konputazional desberdinak jaso ditugu.

Zehatzago esateko, II. kapituluan, corpusaren etiketatze sintaktikoa zertan datzan azalduko dugu eta etiketatze-lan hori gauzatzeko erabiltzen diren eredu edo formalismo desberdinak aurkeztuko ditugu: osagaietan oinarritutako eredua eta Dependentzia Gramatikan oinarritutakoa. Halaber, eredu horiek jarraituz osatu diren erdal hizkuntzetako hainbat zuhaitz-bankuri gainbegratua egingo diegu, euskararen azterketarako eredurik egokiena aukeratzeko helburuarekin.

III. kapituluan, euskal sintaxiaren azterketarako Dependentzia Gramatika formalismoa aukeratu izana arrazoituko dugu eta euskarako zuhaitz-bankua eraikitzeko irizpide sintaktikoak azalduko ditugu.

IV. kapituluan, testu errealetako esaldiak sintaktikoki aztertzeko hartu dugun MG formalismoa aurkeztu aurretik, analisi sintaktikorako joera nagusiak deskribatuko ditugu formalismo hau kokatzearen. Gure ikerketa-taldean

egin den lana kontuan izanik, erregeletan oinarritutakoak, estatistikoak (probabilistikoak) edota bien konbinazio diren teknikak aipatuko ditugu.

V. kapituluan, analisi sintaktiko partziala izango dugu aztergai. Esaldien analisi partzialak lortzeko definitu ditugun gramatikak aurkeztuko ditugu, testuko kate sintaktikoak identifikatzeko gramatikak, alegia. Gramatika horiek baliatzen dituzten analizatzaile partzialek fidagarritasuna eta sendotasuna dute helburu, sakontasuna eta osotasuna neurri batean galduz.

VI. kapituluan, analisi sintaktiko partzialetik osorako jauzia egingo dugu. Horretarako, dependentzieta oinarrtitutako gramatika konputazionalak definituko ditugu eta beraien bitartez analizatzaile sintaktikoa garatuko dugu.

VII. kapituluan, tesi honetan egindakoaren ondorio batzuk eta aurrera begira egin beharrekoak bilduko ditugu.

Tesiaren bukaeran, bibliografiaz gain, lau eranskin gehitu ditugu:

- A eranskinean, gramatikan eta analisietan erabiltzen diren laburzapenen esanahia adierazi dugu.
- B eranskinean, erabiliko dugun MG-2 analizatzaile sintaktikoak baliatzen duen gramatika idazteko jarraitu beharreko urratsak zein diren adierazi dugu.
- C eranskinean, analizatzaile sintaktiko partzialak baliatuko dituen kate sintaktikoen gramatikak jaso ditugu.
- D eranskinean, analizatzaile sintaktikoaren garapenerako definitu dugun Euskarako Dependentzia Gramatika Konputazionala (EDGK-I) jaso dugu.

LEHEN PARTEA: SINTAXIAREN FORMALIZAZIOA

II. KAPITULUA

GAINBEGIRATUA ZUHAITZ-BANKUEI

Kapitulu honetan, corpus baten etiketatze sintaktikoa zertan datzan eta zertarako erabiltzen den adieraziko dugu. Horrela, bada, zenbait termino definitu ondoren, corpusaren etiketatzeari buruzko oinarriak laburbilduko ditugu. Era berean, etiketatze-maila desberdinaren berri emango dugu eta corpusak sintaktikoki etiketatzeko dauden eredu nagusiak deskribatuko ditugu. Azkenik, eredu horiek jarraituta eraiki diren erdal hizkuntzetako zenbait zuhaitzbanku aurkeztuko ditugu.

II.1 Sarrera

Corpus bat sintaktikoki etiketatzea, testuan informazio sintaktikoa gehitzea da, egitura sintaktikoaren berri emango duten markak txertatuz (Leech *et al.*, 1996); adibidez, etiketatutako parentesiak edo hitzen arteko dependentzia-erlazioak adierazten dituzten ikurrak. Horretarako baliatuko den etiketatze-eskemak hizkuntza bakoitzaren sintaxiaren azterketarekin du zerikusia (formalizatua edo ez, teoria bati zuzendua edo ez) eta bere helburuarekin.

Etiketatze-eskema terminoa corpus jakin bat markatzeko erabiltzen den etiketatze-praktiken zehaztapenez hitz egiteko erabiltzen da, etiketatze-eskema corpusari aplikatzeko erabiltzen den metodotik bereizteko. Etiketatze sintaktikoan erabiliko diren etiketak definitzeaz gain, etiketa hauek zein elementu esleituko zaizkion ere zehaztu behar da. Normalean, esaldia¹ izaten da

¹Zaila da esaldia zer den definitzea. Modu erraz batera, puntuazio-marka batzuen bi-

aztergai unitaterik handiena eta hitza txikienna.

Eskema honen aplikazioa, berriz, eskuz, automatikoki edota erdi-automatikoki egin daiteke. Lehen kasuan, gaian adituak direnek, hizkuntzalariek oro har, eskuz etiketatzen dute testua. Bigarrenean, etiketatze-lana tresna informatikoak baliatuta gauzatzen da; azkeneko urteetan, ikasketa automatikoko tekniken bidez egiten da (Collins, 1999). Baina, ez da prozesua berriz aztartzten eta horren ondorioz ez da eskuzkoa bezain fidagarria. Eta azkenik, etiketatze erdi-automatikoa, adituak tresna informatikoak eskaintzen dion analisia onartu edota zuzendu egiten du.

Dauden corpusak, etiketatze motan eta duten kodetzeko sisteman desberdintzen dira. Hala eta guztiz ere, corpus bat etiketatzerakoan ondoko zazpi printzipio hauek bete behar direla dio Leech-ek (1993):

1. Etiketatutako corpus batean txertatu diren etiketak kentzeko aukera egongo da; hots, etiketatu gabeko corpora bihurtu ahal izango da.
2. Corpus bateko etiketak erauzi ahal izango dira eta inolako loturarik gabe gorde.
3. Erabiltzaileak eskura izango du erabili diren etiketen deskribapena eta hartutako erabakiak jasotzen dituen eskuliburua.
4. Etiketatzea nola gauzatu den argi utzi behar da: eskuz egin den eta nork egin duen; automatikoki egin den eta hizkuntzalariren batek zuzendu duen jarraian ala ez.
5. Jarraitutako etiketatzearren fidagarritasuna eta sendotasuna bermatu behar da, nahiz eta etiketatutako corpusean okerrak egon daitezkeen.
6. Etiketatze-eskemak teorikoki neutroak diren eta komunitate zientifikoan onartuak izan diren printzipioetan oinarrituko dira.
7. Etiketatze-eskemak ez dira estandartzat hartuko, arrazoi praktikoak direla medio alda baitaitezke.

Hauetako gomendio batzuek begien bistakoak diruditen arren, gehienak etiketatze-eskema batzuek sortzen dituzten arazoengandik ondorio dira. Printzipio horiekin, beraz, erabiltzaileek izan dituzten arazoak eta etiketatutako corpora berriz erabili nahi izatean sortu diren arazoak saihestu nahi dira.

tartez mugatuta dauden hitzen segida modura defini daiteke. Zoritzarrez, muga hauek anbiguoak izan daitezke; anbiguotasun hau zenbakiek eta **etab.** (**eta abar**) edo **jn.** (**jauna**) bezalako laburdurekin gertatzen da.

II.2 Etiketatze-mailak

Etiketatze-lanean, informazio-maila desberdinak ezagutzen dira; hori dela eta, etiketatze-eskemaren arabera maila bateko edo besteko azterketa gauzatuko da. EAGLESen² proposatzen diren etiketatze-mailak hauek dira:

- a) Segmentuen etiketatzea parentesiak baliatuz; hau da, osagai sintaktikoen mugarriztatzea: esaldiak, perpausak, sintagmakiak eta hitzak.
- b) Segmentuetako kategorien etiketatzea izen-sintagma, aditz-sintagma moduko etiketak baliatuz.
- c) Buruen eta buru horien mendekoen arteko dependentzia-erlazioen markaketa.
- d) Funtzio sintaktikoen markaketa: subjektua, objektua...
- e) Segmentu sintaktikoen azpisailkapena; hau da, sintagmei edo hitzei singularra, partizipio burutua, etab. moduko ezaugarriak esleitzen zaizkie maila honetan.
- f) Mota desberdinako erlazio logikoak: koerreferentzia (kontrol egituraren, esaterako), erreferentzia gurutzatua (edo ordezkapena), kontrol egiturak, elipsia, aztarrenak edo osagai sintaktikoen ez-jarraitutasuna.
- g) Unitate sintaktikoaren mailari buruzko informazioa indexazioaren edo beste marka batzuen bitartez.
- h) Hitz-jarioan gertatzen diren hutsuneei buruzko informazioa.

Maila horiek guztiak hierarkikoki antolatuta daude, eta zenbait kasutan elkarri eragiten diote, esaterako a) maila b) baino lehenago bete behar da. Adibide bat jartzearren, II.1 taulak erdal corpusetako etiketatze-eskema desberdinan implementatu diren mailak zein izan diren adierazten du. Corpus hauei buruzko informazio zehatzagoa (hizkuntza, tamaina...) II.4 atalean emango da.

²EAGLES (*Expert Advisory Group on Language Engineering Standards*): Europa mailako hizkuntzak automatikoki lantzeko eta kodetzeko proposamenak egiten dituen taldea da. Bertan, hizkuntza guztiak kontuan harturik, hizkuntzaren mailetan landu beharreko ezaugarriak proposatzen dira, besteak beste, anotazio sintaktikoan (Leech *et al.*, 1996).

	Etiketatze-mailak							
	a	b	c	d	e	f	g	h
Penn Treebank	+	+	+	+	-	+	+	-
SUSANNE	+	+	+	+	+	+	+	+
NEGRA	+	+	+	+	-	-	+	-
PDT	-	+	+	+	-	-	+	-
TUT	-	(+)	+	+	-	+	+	-

II.1 Taula: Erdal corpusetako etiketatze-maila desberdinak.

II.3 Corpora etiketatzeko eredu sintaktikoen azterketa

Egitura sintaktikoak errepresentatzeko dauden eredu desberdinen artean, bi dira nagusitzen direnak: bata osagai-egituraren oinarritzen dena eta bestea, mendekotasun- edo dependentzia-egituraren. Lehen ereduan, osagaiek esaldien egitura sintagmatikoa adierazten dute; bigarrenean, aldiz, esaldia osatzen duten hitzen arteko mendekotasuna irudikatzen da, hitz bat beste baten mende dagoela adieraziz.


Osagai-egituraren bidezko analisian hiru motako adabegiak³ agertzen dira: erroa (gurasorik gabeko adabegia), hostoak (umerik gabeko adabegiak) eta barne-adabegiak (gurasoak eta umea(k) dituzten adabegiak). Adibidez, ingeleseko *Economic news had little effect on financial markets* **Ekonomia-ko berriek eragin txikia dute finantza-merkatuan** esaldiari dagokion II.1 irudi-ko arbola-diagraman, S⁴(sentence) erroa litzateke; VP (verbal phrase), NP (noun phrase) eta PP (prepositional phrase) barne-adabegiak lirateke, eta JJ (adjective), NN (noun, singular or mass), VBD (verb, past tense), IN (preposition/subordinating conjunction) eta NNS (noun, plural) hostoak.

Adabegi horiek multzokatze sintaktikoak adierazten dituzte eta ez dagozkie esaldiko hitz-formei. Implizitu dagoen funtzio-informazioak ez du garantzirik.

Kako zuzenen bidez ere adieraz daiteke II.1 irudi-ko arbola-diagrama, II.2

³Adabegiak izendatzeko, Informatika jakintza-arloan erabiltzen diren terminoak baliatu ditugu.

⁴Ingeleseko laburdura hauen itzulpena edo esanahia euskaraz: S: perpausa; VP: aditz-sintagma; NP: izen-sintagma; PP: preposizio-sintagma; JJ: adjektiboa; NN: izena, singularrua edo masa; VBD: aditza, lehenaldia; IN: preposizio/subordinazio juntagailua eta NNS: izena, plurala.



II.1 Irudia: Ingeleseko *Penn Treebank*ko esaldi baten arbola-diagrama osagai-egituraren oinarrituta.

irudian islatzen den moduan. Eredu hau da EAGLESen (Leech *et al.*, 1996) proposatzen dutena; hau da, etiketak kako zuzenen hasieran eta bukaeran jartzen dira. Askoz ere egokiagoa eta irakurterrazagoa dela diote, kako zuzenen multzoa bereizten laguntzen duelako. Eskema hau SUSANNE corpusean ere (Sampson, 1995) erabiltzen da.

Ingeleseko corpus zabalena eta gehien erabilia den *Penn Treebank*ak (Marcus *et al.*, 1993), aldiz, II.3 irudiko etiketatze modua jarraitzen du; hau da, egiturei dagozkien etiketak kako zuzenen hasieran besterik ez dira jartzen.

Mendekotasun- edo dependentzia-egiturari dagokionez, erroan izan ezik, zuhaitzeko gainerako adabegietan, barne-adabegietan zein hostoetan, hitzak

[NP Economic news NP] [VP had [NP little efect [PP on [NP financial markets NP] PP] NP] VP]

II.2 Irudia: Esaldiak etiketatzeko modua (I).

[NP Economic news] [VP had [NP little efect [PP on [NP financial markets]]]]

II.3 Irudia: Esaldiak etiketatzeko modua (II).


daude. Hitzen arteko dependentzia-erlazio horretan hitz bat gobernatzailea izango da, eta bestea bere mendekoa. Horrela, bada, hitz bakoitzak gobernatzailea izango du; baina hitz guztiekin ez dituzte mendekoak izango. Era berean, mendekoari dagokion dependentzia-etiketa bi hitzen arteko lotura horretan adieraziko da. Funtzio-informazioak oso garrantzi handia du beraz.

Adibidez, II.4 irudiko esaldian, *had* hitza *news* eta *effect* hitzen gobernatzailea da; *news* hitza *economic* hitzarena; *effect* hitza *little* eta *on* hitzena; *on*, berri, *markets* hitzarena eta hau, *financial* hitzarena. Hierarkia horretan, gobernatzaileak goiko mailan agertzen direnak dira, eta mendekoak beheko mailakoak.


Osagaietan oinarritutako ereduau gertatzen den bezala, dependentziatan oinarritutako esaldi-egitura adierazteko ere aukera bat baino gehiago dago; esaterako, II.5 irudian gezien bidez adierazten da. Gezi horiek gobernatzaileik abiatu eta mendekora iristen dira. Dena den, alderantziz ere irudika daiteke; hau da, geziak mendekotik gobernatzaileara doazela (II.6 irudia).

Dependentziien ereduau oinarritutako esaldi-egiturak adierazteko zutabeetan banatutako eskema proposatzen dute EAGLESen. Zutabe batean esaldiko hitzak idatziko dira, eta zutabe horren aurretik beste zutabe bat hitz bakoitzari dagokion zenbakirekin. Mendekotasunak lehen zutabe honetako zenbakiak erreferentziatuz adieraz daitezke. Etiketa sintaktikoentzat beste zutabe bat erants daiteke. Eskema hau erabiliz, II.2 taulan bezala adieraz daiteke II.4ko adibidea.


Eskema horretan ez dira geziak beharrezko, mendekoak eta beren noranzkoia laugarren zutabeko zenbakietatik inferi baitaitezke: laugarren zutabeko zenbakia lehen zutabekoa baino handiagoa bada, mendekoaren gobernatzailea ondoren dator; bestela gertatzen bada, berri, aurrean egongo da. Adibi-



II.4 Irudia: Ingeleseko *Penn Treebank*eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza.



II.5 Irudia: Ingeleseko *Penn Treebank*eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza geziak baliatuta (I).



II.6 Irudia: Ingeleseko *Penn Treebank*eko esaldiaren dependentzia-zuhaitza geziak baliatuta (II).

Posizioa	Hitza	Dependentzia-mota	Gobernatzailea
1	Economic	Nmod	2
2	news	Sbj	3
3	had	MainV	
4	little	Nmod	5
5	effect	Obj	3
6	on	Nmod	5
7	financial	Nmod	8
8	markets	Pmod	6

II.2 Taula: *Economic news had little effect on financial markets* adibidea.

dez, *Economic* hitzak 1 zenbakia du eta 2 zenbakiaren mende dago; hau da, bere gobernatzailea (*news*, bigarren hitza) bere ondotik dator. Modu berean, *effect* hitzak 5 zenbakia du eta bere aurretik dagoen 3 zenbakiaren mende dago. Azkenik, esaldiko buruak, *had* aditzak, ez du gobernatzailerik bera delako erroa.

Dependentzieta oinarritutako eredu hau tsekierako *Prague Dependency Treebank (PDT)* (Hajic, 1998) corpusean erabili da, besteak beste.

Corpusak etiketatzeko bi eredu horiek alderatuz gero, bakoitzak bere alde on eta txarrak ditu: osagaietan oinarritutakoa erraza da irakurtzeko eta bat dator gramatika arruntaren ezagutzarekin (esaldi nagusienentzat); baina konplexutasun arbitrarioa sartzen du (behar diren baino adabegi gehiago sartuz). Dependentzia-loturak malguagoak dira eta ezagutza arruntarekin ere bat dato (funtzio gramatikalak); baina ez da hain irakurterraza (hitz hurrenkeria ez da zertan mantendu) eta zenbait multzotan hitz bat buru aukeratzea arbitrarioa izan daiteke.

Beste desberdintasun bat da osagaietan ez dela zuzenean edo esplizitu agertzen buruaren eta modifikatzailearen arteko erlazioa. Dena den, ez litzateke zaila izango hau adieraztea, nahikoa bailitzateke sintagma bakoitzeko burua markatzea. Eta bestalde, honetan ez bezala, dependentzia-ereduan hitz ez-jarraituak etiketa daitezke hurrenkera linealak garrantzi txikiagoa duelako.

Hala eta guztiz ere, zenbait proiektutan bi ereduak baliatzen dituzte; hau da, irtenbide hibridoa aukeratzen da proiektua aurrera eramateko, alemaneko *NEGRA* corpora (Brants *et al.*, 2003), kasu.

Horrela, bada, deskribatu diren bi eredu horiek, mendekotasun- eta osagai-egituretan oinarritutako gramatika ereduak, egokiak badira ere, bakoitzaren arrakasta eta aplikazioaren eraginkortasuna hizkuntzaren araberakoa da.

II.4 Erdal hizkuntzetako zuhaitz-bankuak

Hogeit bat urte badira sintaktikoki etiketatutako corpusak edo zuhaitz-bankuak osatzen hasi zirela inglesarentzat, esaterako *Penn Treebanka* (Marcus *et al.*, 1993).

Orduko helburua, datu enpirikoetan oinarrituta etiketatze-eskema osoena eskaintza zen, eta corpus txiki batean (programa estatistikoak tratatzeko adinako tamainako corpora) validatzea edo testatzea. Helburua, hizkuntzala-

ritzaren esperimentalaren alde egitea zen, eta berarekin batera, corpusen gaineko interesa handitzea.

Eredur linguistiko helduagoen garapenarekin, egun, zenbait zuhaitz-bankuren helburua teoria linguistiko jakin bat aplikatzea da, esaterako, dependentzia-gramatika zehatza Pragakoen proiektuarentzat (Bömová *et al.*, 2003) edo *Head-Driven Phrase Structure Grammar* (HPSG) gramatika Poloniako proiektuarentzat (Marciniak *et al.*, 2003).

Baina helbururik arruntena baliabide berria sortzea da, teoria jakin batiz zuzendua ez dagoena eta eredu linguistiko desberdinetara molda daitekeena.

Hizkuntza desberdinatarako garatu diren corpusek, ingelesekoea hartu du-te eredu gisa, *Penn Treebanka*, hain zuzen ere. Zenbaitetan, ordea, formalismoa aldatu behar izan da hizkuntzaren ezaugarriak direla eta. Jarraian aipatuko ditugu hizkuntza desberdinatarako garatu diren zuhaitz-banku nagusienak; bertan nabarmenduko ditugu i) bakoitzaren tamaina, ii) jarraitu den metodologia; hau da, eskuz, erdi-automatikoki ala automatikoki gauzatu den etiketatze sintaktikoa, iii) etiketatze-lan horretan teoria linguistikorik jarraitu den, eta iv) osagai-ereduan ala dependentzia-ereduan oinarrituta etiketatu diren.

II.4.1 Ingeleseko zuhaitz-bankuak

The Penn Treebank: ingeleseko zuhaitz-banku honetan *Wall Street Journal* eta *Brown Corpuseko* testuak dira baliatu direnak, zazpi milioi hitz guztira (Taylor *et al.*, 2003). Proiektuaren lehen urratsean egin den analisi sintaktikoa simplea da, esplizitu ageri diren elementuak etiketatzera mugatu delako, alde batera utziz elementu ez-jarraituak eta implizitu ageri diren hainbat elementu. Bigarren urrats batean, ordea, informazio berria txertatu da: aditzaren argumentu eta adjunctuen arteko bereizketa; elementu ez-jarraituen analisia eta implizitu ageri diren elementuen azterketa (infinitibozko egituretako subjektuak, egitura pasiboak...).

Etiketatze-lan hori erdi-automatikoki egin da osagaietan oinarritutako eredua eta *X Marra Teoria* jarraituz; hau da, lehendabizi automatikoki etiketatu (esaldiko analisi bat eskaintzen da; anbiguotasun kasuetan bakarrik ematen dira analisi bat baino gehiago) eta ondoren ezkuzko zuzenketa egin da.

SUSANNE (Surface And Underlying Structural Analyses of Natural English) Corpus: corpus honetako 120.000 hitzak eskuz etiketatu dira osa-

gaietan oinarritutako ereduia jarraituz (Sampson, 1995). Osagaiak eta funtzio sintaktikoak markatu dira eta elementu nuluak (elipsia) ere tratatu dira koindizazioarekin. 1992az geroztik eskuragarri dago.

Bestalde, *SUSSANE* Corpusa ezaguna da markaketa sintaktikoa gauatzeko definitu den etiketatze-eskema zehatza delako, garatu diren eskema guztiengatik zehatzena, agian. Horren zergatia ondo asko adierazten dute Sampsonen (2003) hitz hauek:

«(...) we treat detail, accuracy, and explicitness of annotation as more important than quantity of material annotated, with the inevitable consequence that our treebanks have to be relatively small. (The book which defines the SUSANNE annotation scheme contains quite a lot more wording than the SUSANNE treebank)».

(Sampson, 2003, 35)

Bank of English⁵: corpus honetako berrehun milioi hitz morfologikoki eta sintaktikoki etiketatu dira Koskenniemi-k (1983) proposatutako ereduia eta *English Constraint Grammar* analizatzailea (Karlsson, 1990) baliatuta (Järvinen, 1994). Ondoren, analizatzaile hori abiapuntu harturik, *Functional Dependency Grammar* analizatzaile sintaktikoa garatu dute analisi sintaktiko sakona eta zehatza lortzeko asmoarekin.

Proiektu honen erronkarik handiena erregeletan oinarritutako etiketatze-sistema erdi-automatikoki aplikatzea eta garatzea izan da (Järvinen, 2003).

II.4.2 Alemaneko zuhaitz-bankuak

NEGRA: ingelesa aztergai ez duen lehenetako corpusa dugu hau; 20.000 esaldiz (350.000 token) osatutako alemaneko kazetaritza-corpusa, hain zuzen ere (Brants *et al.*, 2003). Jarraitu duten etiketatze-eskema hibrido da; hau da, osagai-egiturak eta dependentzia-egiturak konbinatzen dituena.

Hizkuntzaren ezaugarriak (hurrenkera libreko hizkuntza, besteak beste) eta corpusaren egiturak (eliditutako egituren maiztasuna) eraginda erabaki

⁵Corpus honi buruzko informazio gehiago helbide honetan aurki daiteke: http://titania.cobuild.collins.co.uk/boe_info.html

da hasiera batean Dependentzia Gramatikan oinarritzea. Bainaz gobernatzaileen eta mendeko arteko berezketa egiteko dituzten zaitasunak, eta bereziki, buru sintaktikoa zein den argi ez dagoen egiturak (elipsia, aditzik gabeko esaldiak eta koordinazioa) aztertzeko zaitasunak direla-eta, dependentzia-eredua erabat jarraitzeko ideia nagusia baztertu eta bi ereduak konbinatzen dituen etiketatze-eskema osatu da.

Prozesua erdi-automatikoki eraman dute aurrera, eta ez da teoria lingüistikorik jarraitu, helburuetako bat deskriptiboa eta teorikoki neutroa den etiketatze-eskema definitza dutelako.

Gaur egun, proiektu honetan garatutako tresnak eta metodoak *TIGER* proiektuan⁶ ari dira erabiltzen. Proiektu honen helburua 50.000 esaldiko corpusa etiketatzeari da.

II.4.3 Eslaviar zuhaitz-bankuak

Prague Dependency Treebank (PDT): tsekierarako eraiki den zuhaitz-bankua da hau (Bömová *et al.*, 2003). Tsekierako Corpus Nazionaletik (CNC, cnk) aukeratu diren testuez (kazetaritza-artikuluak, ekonomiako berriak...) osatuta dago, 450.000 hitz guztira.

Etiketatze-lan honetan, hiru maila bereizten dira: morfologikoa, sintaktikoa (*analytical* deitzen dutena) eta hirugarren maila, *tectogrammatical* izenarekin ezagutzen dena. Maila sintaktikoari dagokionez, dependentzia-egitura aukeratu dute esaldiko azaleko erlazio sintaktikoak adierazteko. Hirugarren mailak, *tectogrammatical* mailak alegia, esaldiaren esanahi linguistikoa du jomuga; hitz autosemantikoek bakarrik dute adabegia, funtzioren analitikoen ordez funtzioren tektogrammatikalak adierazten dira (egilea, jasalea...) eta esaldiaren informazio-egiturari buruzko ezaugarriak eransten dira (mintzagai eta galdegaia).

Hemen ere dependentzia-eredua baliatzen da; baina *Functional Generative Description* formalismoa (Sgall *et al.*, 1986) estuki jarraituz (formalismo hau testu errealei aplikatzen zaien lehen aldia da). Erdi-automatikoki burutu den lana izan da.

BRG (Baza Rozbiorów Gramatycznych): proiektu honen helburua polonierako tamaina handiko zuhaitz-bankua osatzea bada ere, lehen urrats batean 340 esaldi aztertzera mugatu dira. Esaldi horiek bi multzotan banatu di-

⁶<http://www.ims.uni-stuttgart.de/projekte/TIGER/>

tuzte, batean esaldi gramatikalak eta bestean ez-gramatikalak; eta ondoren, multzo bakoitza esaldiaren konplexutasunaren arabera antolatu dute. Oso garrantzitsua dela diote formalizatutako gramatika ebaluatzean, esaldiaren konplexutasuna eta gerta daitezkeen okerrak ezagutzea, polonierarako garatu den edozein analizatzailek analisi okerrak baztertu eta zuzena aukera dezan.

Esaldi horiek guztiak eskuz markatuak izan dira. Etiketatze-lan hori HPSG formalismoaren eredua (Pollard eta Sag, 1994) jarraituta egin da, formalizatutako gramatika horien estaldura ebaluatzeko garatu diren tresnek ere HPSG gramatiketarako diseinatuak izan direlako. Dena den, proiektu honean garatutako corpora, polonierarako deskribatu den dependentzia-gramatika ebaluatzeko ere baliatuko da (Marciniak *et al.*, 2003).

CLD-MSU Corpus: proiektu honen helburua errusierako zuhaitz-bankua osatzea da. Etiketatutako corpusen erabilera aski arrunta bihurtu bada ere hizkuntzalaritza konputazionalean, errusierako corpusa osatzen 2000n hasi ziren (Boguslavsky *et al.*, 2000). Dependentzia-egituren formalismoa da baliatu dutena, esaldiko osagaien hurrenkera askea izanik, eslaviar hizkuntzentzat egokiena dela iruditzen zaielako. Errusiarr prosa eta egunkariko laburpenek osatzen duten *Upsala corpora* da erabili dutena azterketa honetan, 12.000 esaldi edota 180.000 hitz guztira. Esaldi horiek erdi-automatikoki markatu dituzte; hau da, testu gordin hauei analizatzaile morfologikoa eta sintaktikoa pasa ondoren, analisi horiek eskuz zuzendu dira.

II.4.4 Latin hizkuntzetako zuhaitz-bankuak

Cast3LB: espanyierarako garatu den 100.000 hitzeko corpusa da hau (Civit *et al.*, 2003). Corpus hau 3LB izeneko proiektuaren⁷ barruan dago kokatuta (Palomar *et al.*, 2004). Proiektuaren helburua sintaktikoki, semantikoki eta pragmatikoki etiketatutako hiru corpus osatzea da implikaturiko hiru hizkuntzentzat: espanyiera (Civit eta Martí, 2002; Navarro *et al.*, 2003), katalana

⁷Proiektu honek Zientzia eta Teknologia Ministerioaren PROFIT programaren dirulaguntza izan du (FIT-150500-2002-244) eta proiektu honetan parte hartu duten unibertsitateak dira: Universidad de Barcelona, Universidad Politécnica de Catalunya, Universidad de Alicante, Universidad Politécnica de Valencia eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Informazio gehiago nahi izanez gero, proiektuaren web-orria hau da: <http://www.dlsi.ua.es/projectes/3lb>

(Civit *et al.*, 2004) eta euskara⁸ (Aduriz *et al.*, 2002).

Cast3LBren etiketatze sintaktikoa erdi-automatikoki egin da osagaietan oinarritutako eredua jarraituz eta ikuspegi linguistikotik neutroa den etiketatzea gauzatu da.

Syntactically Annotated Corpus (SAC): 1.500 esaldik osatzen dute gaztelaniako kazetaritza-corpus hau, 22.695 hitz guztira. Lehen urrats batean egin den lanaren helburua etiketatze-eskema definitza izan denez, eredugarri diren esaldiak aukeratu dira. Aukera hori bi hizkuntzalariren irizpideen arabera egin da eta egitura mota jakin bateko joera erakusten dutenez, hurrengo urratsean ausaz hartutako esaldiekin egin da lan (Moreno *et al.*, 2003).

Orokorrean, *Penn Treebank*aren etiketatze-eskema jarraitu dute, osagaietan oinarritutakoa, alegia. Dena den, hizkuntzaren beraren ezaugarriak direla-eta egokitzapenen bat edo beste egin dute eta horren ondorioz ezaugarri batzuk erantsi dizkiote etiketatze-eskemari, hala nola kategoria sintaktikoak (izena, adjektiboa...), funtzio sintaktikoak (subjektua, zehar-objektua, objektua, etab.), ezaugarri morfosintaktikoak (numeroa, generoa...) eta zenbait ezaugarri semantiko (gizakia, denbora, etab.).

Frantseseko zuhaitz-bankua: milioi bat hitzeko kazetaritza-corpusa da etiketatu dutena osagaietan oinarritukako eredua baliatuz (Abeillé *et al.*, 2003). Osagaiak eta funtzio sintaktikoak markatu dira. Frantseserako etiketatze-gida zehatza osatu dute EAGLESeko gomendioetan oinarrituta. *Penn Treebank*aren antzera eskuzko etiketatzea eta etiketatze automatikoa bereizi dituzte; etiketatze automatikoaren ondotik, eskuz egindako balioztatzea eta zuzenketa datoroz. Hauen helburua akatsik gabeko zuhaitz-bankua osatzea izan da, teorikoki neutroa eta azalekoa dena.

TUT (Turin University Treebank): 1.000 esaldiek osatzen dute italierako corpus hau (Bosco *et al.*, 2000). Dependentzia-eredua jarraituz, erdi-automatikoki gauzatu dute etiketatzea. Ez dute teoriarik jarraitu.

⁸Ondoren datorren kapituluan ikusiko dugun moduan, tesi honetako lanak lotura zuzena du proiektu honekin.

II.4.5 Beste hainbat hizkuntzatako zuhaitz-bankuak

Sinica Treebank: egitura mailan etiketatutako mandarin txineraren lehen corpusetako bat da (Chen *et al.*, 2003). 38.725 esaldik edo 239.532 hitzek osatzen dute kazetaritza-corpus hau. Kategoria sintaktikoez gain rol tematikoek buruzko informazioa ere txertatzen da. Egitura maila abstraktuak alde batera utzi eta esaldiko maila kanonikoak markatzera mugatu dira; hau da, beraien asmoa ahalik eta egitura konplexu gutxien etiketatzea da, kontuan izanik oinarrizkoak diren egitura mailarik minimoenak direla teoria guztien aztergai. Semantikari dagokionez, etiketatze semantiko partziala egingo dute; *Prague Dependency Treebankaren* modura, predikatu eta argumentuen arteko erlazio tematikoa da kategoria gramatikalarekin batera markatuko dena.

Osagaietan oinarritutako eredu da jarraitu dutena. Analisia erdi-automatikoki burutu da eta analisi horien guztien implementazioa HPSG formalismoa baliatuz egin da.

Japonierako corpus etiketatua: 40.000 esaldiko kazetaritza-corpusa du-te aztergai, 950.000 token guztira. Erabilera estandarreko japoniera idatzia-ren eredu da kazetaritza-corpus hau. Etiketatutako corporusa osatzeaz gain, *JUMAN* analizatzaile morfologikoa eta dependentzietan oinarritutako *KNP* analizatzailea zehatzagoa egitea dute helburu (Kurohashi eta Nagao, 2003); hau da, analizatzailearen emaitza okerrak zuzendu ez ezik, analizatzaileak baliatzen duen sistema edo gramatika hobetuko dute.

Turkierako zuhaitz-bankua: lehen urrats honetan 1.500 esaldiko corporusa baliatu dute zuhaitz-bankua osatzeko. Turkiera hizkuntza eranskaria eta hurrenkera librekoa izanik, dependentzietan oinarritutako eredu jarraitu dute (Oflazer *et al.*, 1999, 2003). Etiketatze lan hau erdi-automatikoki egin da; horrela, etiketatzaileak analizatzaileak eskaintzen dion analisi okerrak zuzen-tzeko aukera du, eta posible diren dependentzia-analisietatik zuzena aukera-tzeko. Behin lan hau eginda, 20.000 esaldi gehiago etiketatu dituzte.

Laburbilduz, orokorrean osagai-ereduan oinarritutako errepresentazioak hitz hurrenkera zurruna eta osagai-egitura argiak dituzten hizkuntzetan aurki daitezke, ingeleseko zuhaitz-bankuetan esaterako. Mendekotasun-ereduan oinarritutakoak, berriz, egokiagoak dira hurrenkera librea duten hizkuntzen-tzat, adibidez, eslaviar hizkuntzentzat. Horrek ez du esan nahi ingelesa bezalako hizkuntzek osagaietan oinarritzen diren errepresentazioak bakarrik balia-

tu behar dituztenik, ezta hurrenkerak libreko hizkuntzek ere dependentzietan oinarritu behar dutenik. Horren adierazle dira, besteak beste, dependentzia-ereduan oinarritutako *English Constraint Grammar* (Karlsson *et al.*, 1995) eta maila apalago batean bada ere, italierako TUT zuhaitz-bankua.

Jarraitu den metodologiari dagokionez, eskuz etiketatu dira ingeleseko *SUSANNE* corpusa eta polonierako *BRG* corpusa. Gainerako guztiak, erdi-automatikoki etiketatu dira. Erdi-automatikoki egindako etiketatzea modu batera baino gehiagotara gauzatu da: i) zuzenketa bitartez; hau da, hizkuntzalari adituek analizatzaile sintaktikoaren irteera-analisia dauden akatsak zuzendu dituzte; *The Penn Treebank*, ii) azaleko analisia abiapuntu hartuta zuhaitzen eskuzko osaketa egin da: *Cast3LB*, iii) etiketatze interaktiboa; hots, maila guztien etiketatze- eta errebisatze-lana batera gauzatu da: *NEGRA* corpusa.

Egun zenbait proiektu ahozko corporusaren etiketatze sintaktikoan murgilduta daude. Dendarik gabe, mota honetako corporusen analisia egitean, beste arazo batzuk dira agertzen direnak: hitz-zatiak, etenak, bukatu gabeko esaldiak eta diskurtso markatzaileak. Adibide gisa, ahozko ingelesa aztergai izan dute, esaterako, *CHRISTINE Treebankak*, 1990eko hizkera adierazten duen *British National Corpus*ko zatia oinarri duena (Sampson, 1995) eta *Switchboard Corpusak*, *Penn Treebank* proiektuaren jarraipen gisa (Taylor *et al.*, 2003).

II.5 Zuhaitz-bankuaren erabilera orokorra

Corpusak, etiketatuak zein etiketatugabeak, erabilera asko ditu; besteak beste, ikerketa linguistikoak egiteko (genero edota garai desberdinako testuak baliatuta hizkuntza aldaerak aztertzeko, hitz edo egitura jakin baten maiztasuna aztertzeko, egiturak berak, e.a.) erabil daiteke edota hizkuntzaren prozesamendurako (analizatzaile sintaktikoa balidatzeko, itzulpen automatikorako, etab.).

Hizkuntzaren prozesamenduan, sintaktikoki etiketatutako corpusak funtsezko bi erabilera hauek ditu:

1. Ikasteko balio du; hau da, markatutako informazio linguistikoa eta informazio horretatik ondoriozta daitezkeen egiturak erauztea izango da erabilera honen oinarrizko helburua. Hau ikasketa automatikoko teknikak edota erauzketarako teknikak erabilita gauzatu daiteke.

Ikasketa automatikoko sistema guztiekin behar dituzte informazio linguistikoak esplizituki adierazita dituzten adibideak, etiketatutako corpusak, alegia. Ikasketa automatikoaren prozesu horretan bi zati nagusitzen dira: trebatze-aldea, non sistemek testuak nola dauden etiketatuta ikasten duten, eta testa, non sistemak beste testu bat etiketatzentzen duen. Adibidez, trebatze-aldian **Etxera joan da** bezalako esaldia ikasi badu sistemak, gero **Mendira joan da** moduko esaldiak etiketa ditzake, nahiz eta aurretik inoiz ez ikusi. Dena den, prozesu hori konplexua da eta ez da gure helburua horretaz sakontzea.

Halaber, sistema automatikoen ondo ikas dezakete eta doitasun handia lortu esaldiak corpus beretik datozenean, adibidez *Penn Treebank*; baina arazo handiak dituzte corpus desberdinatan aplikatzean.

Bestalde, zuhaitz-bankuak baliabide lexikoak garatzeko ezagutza-iturri ezin aberatsagoak dira. Adibidez *Bank of English* proiektuaren helburu nagusia *Collins COBUILD* hiztegiaren bigarren argitalpena osatzen ari ziren hiztegigileei etiketatutako corpora eskaintza izan zen, adibide berriak eta ingeleseko aditz gehienentzat egitura berriak txertatuz hiztegia handitu zezaten (Sinclair *et al.*, 1995).

Informazio linguistikoa erauzteko erabiltzen den etiketatutako corpusak abantaila handiak ditu (Matsumoto, 2002):

- Corpusetan oinarrituta garatu den baliabide orok duen abantaila: erauzten diren datuak enpirikoak dira; hau da, hiztunek egiten duten hizkuntzaren erabilera errealetitik erauzitako datuak dira.
 - Etiketatu gabeko corpusean ez bezala, etiketatutako corpusean esplizituki markatutako informazio linguistikoa dago. Gainera, informazio hau gizakiak baliodundua izan da; beraz, hasiera batean, behintzat, zuzena da.
2. Ebaluatzeko balio du.

Etiketatutako corpus batek izan dezakeen bigarren erabilera urre-patroi (ingelesez, *gold standard*) modura erabiltzea da HPko sistemak ebaluatzeko. Urre-patroi hitzen bitartez adierazi nahi da etiketatutako corpora analisi linguistiko zuzena duen lagina dela gizakiak baliodundua izan den neurrian.

HPko sistema bat ebaluatzeko erabiltzen den eskemarik oinarrizkoena bi analisiak alderatzea da; hots, automatikoki gauzatu den analisia

etiketatzaleak egin duen analisiarekin alderatzea. Zenbat eta gertuago egon bi analisi horien emaitza, orduan eta hobeto funtzionatuko du sistemak.

Azpimarratzeko da, beraz, zuhaitz-bankuaren garrantzia.

II.6 Laburbilduz

Kapitulu honetan, corpusaren etiketatze sintaktikoari buruzko ezaugarririk orokorrenak azaldu ditugu. Corpus bat sintaktikoki etiketatzeko jarraitu diren bi eredu nagusiak deskribatu ondoren, erdal hizkuntzetan nola jokatu den aztertu dugu euskararen azterketarako eredurik egokiena aukeratzeko helburuarekin.

III. KAPITULUA

EUSKARAKO ZUHAITZ-BANKUA ERAIKITZEKO IRIZPIDE LINGUISTIKOAK

Kapitulu honetan, euskarako zuhaitz-bankua edo sintaktikoki etiketatutako corpora eraitzeko ezarri ditugun irizpide linguistikoak aurkeztuko ditugu.

III.1 Sarrera

Zuhaitz-bankua osatzerakoan jarraitu behar den ereduari edo formalismoari buruzko eztabaidea irekita dago (Kakkonen, 2005). Aurreko kapituluan ikusi bezala, alde batetik, osagai-eredua ingelesa bezalako hizkuntzak etiketatzeko erabili da; hau da, osagaien hurrenkera finkoa duten hizkuntzentzat. Horren eredu dugu, adibidez, ingeleseko *Penn Treebanka* (Marcus *et al.*, 1993).

Beste aldetik, zenbait lanek dependentzia-ereduan oinarritutakoa egokia-goa dela hurrenkera libreko hizkuntzentzat diote (Boguslavsky *et al.*, 2000; Brants *et al.*, 2003; Oflazer *et al.*, 2003). Beste batzuek, aldiz, emango dioten erabileraren araberako aukera egin dute (Rambow *et al.*, 2002). Eta azkenik, beste zenbait kasutan, etiketatze-sistemak tradizio linguistikoa jarraitu du (Bemova *et al.*, 1999).

Gure kasuan, euskararako erabilgarria den etiketatze-eskema sintaktikorik ez dagonez, zuhaitz-bankuaren eraikuntzan erronka nagusiena euskal sintaxiaren oinarri teorikoak ahalik eta etiketatze sintaktiko praktikoenera ego-

kitzeko formalismo linguistikoa aukeratzea izan da. Behin formalismo-eredu desberdinak aztertuta, Dependentzia Gramatikaren eredu (Tesnière, 1959) jarraitzeari egoki iritzi diogu EPEC corpusa sintaktikoki etiketatzeko.

Eredua aplikatzerakoan, gure asmoa izango da batetik, euskararen egitura sintaktiko desberdinak exhaustiboki azaltzea, eta bestetik, etorkizuneko ikerketa-lanetan eta konputazio-mailan irtenbide praktikoak emateko balituko den etiketatze-eskema definitzea. Dependentzieta oinarrituta egingo den sintaxiaren lehen formalizazioa da hau.

Jarraian, III.2 atalean, Dependentzia Gramatikaren oinarriak azalduko ditugu. Eedu hau aukeratu izana III.3 atalean justifikatuko dugu eta bertran, zuhaitz-bankua eraikitzeko ezarritako irizpideak ere azalduko ditugu. Ondoren, III.4an, etiketatze-prozesua nola burutu den adieraziko dugu. III.5 atalean, corpus honetako euskararen egitura sintaktiko oinarrizkoenak adibide gisa hartuta definitu dugun etiketatze-eskema aurkeztuko dugu. III.6an, berriz, etiketatze-lanean sortutako zenbait arazori emandako irtenbideak aipatuko ditugu. Etiketatze-lana egiten laguntzeko erabili dugun *Abar-Hitz* zuhaitz-editorea, III.7 atalean azalduko dugu, eta bukatzeko, III.8an, hemen azaldutakoa laburbilduko dugu.

III.2 Dependentzia Gramatika

Nahiz eta deskripzio linguistikoetan tradizio handia izan, Dependentzia Gramatika nahiko ahaztua egon da bai teoria linguistikoetan eta bai hizkuntzaren tratamendu konputacionalean. Melćuk-en (1988) hitzek jasotzen duten moduan, osagaietan oinarritutako ereduak itzal handia egin dio dependentzia-sintaxiari urteetan:

«Phrase structure representation in syntax was strongly promoted by the Structuralist school during the thirties, forties and fifties (...). It became the only syntactic representation ever seriously discussed in the work of N. Chomsky and the Transformational-Generative School he founded in the late fifties. As a result of the triumphal offensive of the transformational-generative approach throughout the world, phrase-structure syntax forced dependency syntax into relative obscurity».

(Melćuk, 1988, 3-4)

Azken urteotan, ordea, hizkuntzaren prozesamenduan areagotu egin da dependentzietan oinarritutako analisien interesa. Interes honek bi arrazoi nagusi ditu: batetik, osagaien arteko binakako erlazioa geroz eta gehiago erabilten da anbiyuotasuna ebazteko, eta bestetik, askoz ere eraginkorragoa da, azkarra delako programaren abiaduraren aldetik.


Esan bezala, azterketa gramatikaletan tradizio luzea du dependentzia sintaktikoaren kontzeptuak aro grekolatinotik. Dena den, esan daiteke tradizio gramatikal honek Tesnière-ren (1959) lanarekin ezagutu zuela garairik nagusiena; hain zuzen ere, lan hau hartzen da dependentzia-gramatikaren egungo tradizioaren abiapuntutzat. Tradizio honek teoria gramatikal eta formalismo desberdin ugari hartzen ditu bere barruan. Horrela, bada, Tesnièrek garatu-tako egitura sintaktikoaren teoriaz gain, dependentzia-gramatika teoria ezagunenen artean ditugu: *Word Grammar* (WG) (Hudson, 1996), *Functional Generative Description* (FGD) (Sgall *et al.*, 1986), *Dependency Unification Grammar* (DUG) (Hellwig, 2003) eta *Meaning-Text Theory* (Melćuk, 1988). Horiek ez ezik, murriztapenetan oinarritutako dependentzia-gramatikek ere tradizio handia izan dute: *Constraint Dependency Grammar* (CDG) (Máruyama, 1990), *Functional Dependency Grammar* (FDG) (Tapanainen eta Järvinen, 1997) eta *Topological Dependency Grammar* (TDG) (Duchier eta Debusmann, 2001). Dependentzia gramatikei buruzko sintesia *Dependency Grammar Logic* (DGL) (Kruijff, 2001) lanean aurki daiteke. Gure asmoa ez da teoria horiek guztiak hemen aztertzea; bai, ordea, adieraztea dependentzia nozioa nola ulertzen den.

Dependentzia nozioari dagokionez, Tesnière-ren (1959) lanari jarraiki, guztiak bat datozen esaldiaren egitura sintaktikoa esaldia osatzen duten elementu lexikoen arteko binakako erlazioan datzala adieraztean. Erlazioan dauzen bi elementu horiek izendatzeko termino desberdinak erabili dira literaturan barrena: batarentzat, *régissant*, *governor* eta *regent* terminoak, eta bestearentzat, *subordonné* eta *modifier*. Tesi-lan honetan erabiliko dugun terminologiaren arabera, berriz, binakako dependentzia-erlazio hori *gobernatzailearen* eta *mendekoaren* artean gertatuko da beti:

A da Bren gobernatzalea, edota B da Aren mendekoa

Adibidez, **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldiaren dependentzia-zuhaitza geziak erabiliz irudikatu dugu III.1 irudian. Gezi horiek, mendekotik abiatu eta gobernatzailera iristen dira. Horrela adierazi nahi da esaldiko **cowboy**, **etxe** eta **zituen** hitzak; hau da, sintagmetako gobernatzaila eta aditz laguntzailea, **errezipitu** aditzaren mendekoak direla; era

berean, **zinemako** eta **hark** hitzak, sintagmako gobernatzale den **cowboy** hitzaren mendekoak, eta **bere** eta **handia** hitzak, berriz, sintagmako gobernatzale den **etxe** hitzarenak.



III.1 Irudia: Gobernatzale/mendeko erlazioak esaldi batean.

Dependentzia-erlazioak ezartzeko eta erlazio horietan gobernatzalea eta mendekoa bereizteko irizpideek garrantzi handia izan dute dependentzia-gramatikan. Irizpide horiek dependentzia-gramatikan ez ezik buru sintaktikoak garrantzia duen beste lanetan ere, osagaietan oinarritutako ereduak barne, eztabaidatuak izan dira. Hona hemen Hudson-ek (1990) proposatzen dituen irizpideak egitura (E) batean gobernatzalearen (G) eta mendekoaren (M) arteko erlazio sintaktikoa ezagutzeko:

1. Gk Eren kategoria sintaktikoa zehaztuko du eta E ordezka edo adieraz dezake.
2. Gk Eren kategoria semantikoa zehaztuko du; Mk zehaztasun semantikoa emango du.
3. G derrigorrezkoa da; M ez da derrigorrezkoa.
4. Gk M aukeratuko du eta M derrigorrezkoa ala aukerazkoa den zehaztuko du.
5. Mren forma Gren araberakoa da.
6. Mren hurrenkera lineala Grekiko zehaztuta dago.


Ikus daitekeen bezala, zerrenda horretan irizpide desberdinak daude, batzuk sintaktikoak eta beste batzuk semantikoak.

Beste egile batzuek ere azpimarratu dute dependentzia-erlazio desberdinak bereizteko beharra; hala, Melćuk-ek (1988) dio esaldiko hitzak hiru

dependentzia-moten bitartez lot daitezkeela: dependentzia morfologikoa, sintaktikoa eta semantikoa. Edo, bada dependentzia sintaktikoen artean egitura endozentrikoak eta exozentrikoak bereizten dituenik ere (Nivre, 2005). Egitura endozentriko eta exozentrikoen arteko bereizketa buru-osagarri eta buru-modifikatzale (edo buru-adjuntu) erlazioen bereizketarekin erlazionatu izan ohi da. Osagarrien eta modifikatzaleen arteko bereizketa hau balentzia terminoaz ere ezagutu izan da. Balentzia aditz bati dagozkion nahitaezko osagarrien multzoa da. Aditz desberdinek mota bateko osagarriak edo bestelakoak hartuko dituzte. Horietako osagarri batzuk nahitaezkoak dira aditzarentzat, esaterako subjektua. Beste osagarri batzuk, aldiz, aukerazkoak edo zirkunstantzialak dira, adibidez lekua, denbora edo moduaren berri ematen duten adjuntuak. Dependentzia-teoria oinarri duten hizkuntzalaritza arloko lan gehienak, batez ere *balentziaren teoria*, Alemanian burutu direla diote Järvinen eta Tapanainen-ek (1997).

Matematika-terminoetan ere, dependentzien irudikapen grafikoa egiterakoan, guztieta betetzen dira jarraian azalduko ditugun printzipioak (Nunes, 2006):


- a) Dependentzia-erlazioak aziklikoak dira. III.2 irudiak onar ez daitezkeen bi egitura¹ erakusten ditu.



III.2 Irudia: Dependentzia ziklikoen irudikapena.

- b) Dependentzia-grafoak lotu behar dira. Hau bat dator esaldiak buru bakarra (erroa) duela eta gainerako hitzak bertara itsatsita daudela aditzera ematen duen ideiarekin. III.3 irudian islatzen den *w1 w2 w3 w4 w5* esaldian lotu gabeko bi azpigrafo ageri dira.
- c) Hurbiltasun edo proiektibilitatearen printzipioa (ingeleseko *projectivity* edo *adjacency* terminoekin ezagutzen dena). Aurreko biak baino eztabaidagarriagoa da proiektibilitatearen printzipio hau. Honen bitartez,


¹Egiturak irudikatzeko **w** horiek *tokenak* adierazten dituzte.



III.3 Irudia: Lotu gabeko grafoak dituen *w1 w2 w3 w4 w5* esaldia.

hitzak hurrenkera linealean jarriz gero, hitzen arteko arkuak irudika daitezke elkarrekin gurutzatu gabe, edo beste era batera esanda, hitzak eta bere mendekoak ondoz ondoko segida osatzen dute esaldian.

Dependentzia-grafoan, proiektibitatea gertatzen da gurutzatu gabeko arkuak daudenean. Adibidez, III.4 irudian jasotzen den ingelesko *John saw a dog yesterday which was a Yorkshire Terrier²* **Jonek Yorkshire Terrier arrazako txakurra ikusi zuen atzo** esaldian, *which was a Yorkshire Terrier* perpaus erlatiboa eta modifikatzen duen *the dog* objektua, *yesterday* adberbioak banatzten ditu. Ondorioz, esaldi honen dependentzia-zuhaitzean arkuak gurutzatu egiten dira. Beraz, perpausa ez-proiektiboa da.



III.4 Irudia: *John saw a dog yesterday which was a Yorkshire Terrier* esaldiaren dependentzien irudikapena.

III.3 Oinarri metodologikoak

Hizkuntza desberdinako esperientziak batetik, eta bestetik, euskararen tipología kontuan harturik, zuhaitz-bankua osatzeko jarraitu ditugun irizpideak hauek dira:

1. Dependentzia-eredua.

²Adibide hau (McDonald *et al.*, 2005) lanetik hartu da.

Dependentzia-ereduan oinarritzea erabaki dugu euskararen moduan eranskariak diren hizkuntzak eta hurrenkera librea duten hizkuntzen azterketarako burutu diren zenbait lanek hala erakutsi dutelako, besteak beste, alemanak (Skut *et al.*, 1997), txekierak (Bömová *et al.*, 2003), turkierak (Oflazer *et al.*, 2003) eta hungarierak (Csendes *et al.*, 2005).

Horretaz gain, dependentzia-ereduari ikusten dizkiogun alde on hauek ere eragina izan dute aukeraketan:

- Metodo erraza eta intuitiboa da.

Esaldia osatzen duten hitzak binaka lotuz lortzen da dependentzia-zuhaitza. Dependentzia-zuhaitzen ezaugarriak hauek dira:

- Hitzak zein zeinekin eta nola lotzen diren erakusten dute.
- Esaldi baten egitura, hau da, esaldiko hitzen arteko lotura, hierarkikoki adierazten dute.
- Rol tematikoak esplizituki adierazten dira etiketa berezien bittartez.
- Zuhaitzaren adabegietan hitzak daude; hots, adabegiek ez dituzte multzokatze sintaktikoak adierazten.

- Hitzen arteko lotura egiteko ez da beharrezkoa hitzen hurrenkera zurruna izatea edo hitzen hurbiltasuna adabegietan. Beraz, osagaietan oinarritutako ereduan, hitz ez-jarraituak modu erraz batean behintzat tratatu ezin diren bezala, hemen badute irtenbidea.
- Erlazio semantikoak adierazteko bidea ematen du. Dependentziek oinarri sendoa ematen dute analisi-kateko hurrengo urratsak gauzatzeko: aditz-balentziaren eta rol tematikoen azterketak (Agirre *et al.*, 2006).

- Tresnen erabilera. IXA ikerketa-taldean sortu diren tresnen garapenarekin du zerikusia; hau da, testu baten analisi-prozesua moduluetan banatuta dago eta urrats bakoitzean aurreko modulu hartzen da abiapuntutzat. Analisi-prozesu horrekin jarraitzeko Dependentzia Gramatikaren ildotik jotzea dela egokiena erakutsi dute orain arte egindako azterketek, Arriolarenean (2000) eta Adurizen (2000) lanek, besteak beste.

Gainera, hori posible ez balitz, dependentzia-egiturak osagai-egitura bihur daitezke automatikoki (Xia eta Palmer, 2000).

- Ebaluaziorako. Analizatzaile sintaktikoak ebaluatzeko tekniken artean, dependentzia-zuhaitzetan oinarritutako teknika goraipatzen dute bai Lin-ek (1995), bai Carroll *et al.*-ek (1998), metodoetatik edo analizatzaile sintaktikoetatik independenteak direlako.

2. Etiketatuko diren elementuak.

Corpusean esplizitu ageri diren hitzez gain, eliditura dauden beste zenbait ere etiketatuko ditugu eskuz. Eliditutakoen artean, batetik lexikoki gauzatzen ez diren eta aditzarekin komunzadura egiten duten **nor**, **no-ri** eta **nork** kasu-markei dagozkienak ditugu; hots, *Pro* gisa ezagutzen diren elementuak. Eta bestetik, erlatibozko perpausetako erreferentzia-izenak direnak, *PRO* bitartez markatuko ditugunak.

Beraz, etiketatze sintaktiko honetan, hitzak izango ditugu oro har unitate aztergairik txikienak.

3. Hitz anitzeko esapideak.

Postposizio konplexuak (adibidez, *Leihoko kartelen artetik* begiratzen du), entitateak (adibidez, **Henriette Airek** olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak azalduko ditu), hitz anitzeko unitate lexikalak (adibidez, **Proposamenarekin bat egin zuen Espilondok**) eta menderagailu konplexuak (adibidez, **Nahiz eta berandu iritsi den, sartu egin da**) ere unitate bakartzat hartuko ditugu, bere ondotik egingo den analisi automati-koarekin duen lotura estua kontuan izanik (ikus III.6 atala).

4. Esaldiak.

Esaldiak izango ditugu etiketatze-lan honetako unitate aztergairik handienak. Esalditzat ondoko testu-zatiak hartuko ditugu:

- puntutik edo esaldi hasieratik puntura bitartekoak;
- puntutik edo esaldi hasieratik galdera-marka bitartekoak;
- puntutik edo esaldi hasieratik harridura-marka bitartekoak;
- puntutik edo esaldi hasieratik bi puntu bitartekoak.

Puntuazio-markak, beraz, esaldiak mugatzeko besterik ez dugu erabili. Komak izango dira salbuespen, esaldiak edo sintagmak elkartzen dituztenean, juntagailutzat hartuko baititugu.

5. Zein hitz dira gobernatzaleak?

Dependentzia Gramatikan, esaldiko aditz nagusia da gobernatzalea eta, hain zuzen ere, aditza agertzen da hierarkiako mailarik gorenean dependentzia-zuhaitzean. Gainerako hitzak aditzaren inguruan antolatzen dira.

Hitz horietan gobernatzalea zein den zehazterakoan, ordea, iritzi desberdinak jaso dira literaturan barrena; esaterako, izen-sintagma batean izena hartu behar den determinatzailearen gobernatzailertzat edo alderantziz. Euskarari dagokionez, Artiagoitiak (2004) zenbait argudio ematen ditu determinatzailea izen-sintagmaren burutzat jotzen duen hipotesiaren alde eta ohiko izen-sintagmaren analisia baztertzeko.

Gure kasuan, dependentzia bitartez irudikatu ditugun esaldietan izena hartu dugu gobernatzailertzat; hau da, gobernatzalea sintagmako elementu lexiko edo esanahiduna izango da, gramatika tradizionalari jarreraiki. Erabaki honetan, ikuspuntu semantikoak eragina izan du, analisi sintaktikoaren ondotik egingo dugun azterketa semantikoko etiketekin lotura errazago egitea aurreikusi dugulako hitzen bitartez.

6. Teoriarik jarraituko da?

Corpus bat informazio linguistikoarekin etiketatzeak corporua interpretatzea dakar berarekin, ikuspuntu teoriko zehatza hartza eta irtenbide bat baino gehiago izan ditzaketen arazo linguistikoei soluzioa bilatzea. Honek, garatutako etiketatzeak, alegia, corporusaren erabilera baldintzatzen du.

Hori horrela izanda ere, gure ustez, eta McEnery eta Wilson (2001) egileekin bat eginez, etiketatze-lanaren ondorio diren arazoak (subjektitatea etiketatze-lanean, eta hori dela eta, etiketatzaleak bat ez etortzea; hartutako ikuspuntu teorikoa...) gutxitu daitezke eta modu horretara ahalik eta neutroena, estandarrena eta sendoena den etiketatza lortzen saiatu.

Beraz, zuhaitz-bankuaren eraketarako teoria jakin bat ez jarraitzea era baki dugu. Gure helburuetako bat etiketatze-lana modu neutroan gauzatzea izan da, gisa honetara etiketatutako corporua hizkuntzalaritza eta informatika alorretako ikertzaileek erabil dezaten, besteak beste. Gainera, dependentziatan oinarritutako etiketatze sintaktikoan egiten

dugun lehen urratsa izanik, uste dugu teoriarekiko neutroa izateak ondoren eman daitekeen edozein aberasketa (teoria jakin bat jarraituz edo ez) egiteko aukera ematen digula.

7. Etiketatze-eskema.

Dependentzia-erlazioak oinarri dituen etiketatze-eskema definitzeko Carroll *et al.*-en (1998) proposamena jarraitu dugu eta EPEC corpuseko 50.000 hitzeko lagina erabili dugu. Horiek proposatzen duten etiketatze-eskeman, testuko esaldi bakoitza erlazio gramatikal batzuekin markatzen da, mendekoaren eta bere gobernatzailaren arteko dependentzia sintaktikoa zehaztuz.

Erlazio horiek mailakaturik edo hierarkikoki antolatuta daude (III.5 irudia). Gobernatzailaren eta mendekoaren arteko erlaziorik orokorrean *dependent* da. Bi hitzen arteko erlazioa zehatzagoa denean, hierarkian beherago aurkitzen diren erlazioak erabiltzen dira, esaterako *mod(ifier)* edo *arg(ument)*. Mailakatze horrekin jarraituz, maila bakoitzaren zehaztasun handiagoa lortzen da. Eta behin dependentzia-erlazioa zehaztuta, dependentzia-etiketa bakoitzak dituen eremuak osatzen dira erlazio-mota, gobernatzaila eta mendekoa adieraziz. Adibidez, *walk with John John-ekin ibili* esaldia honela markatzen dute:


mod (with, walk, John)

Ingeleseko erlazio gramatikal horien guztien azalpen zehatza Carroll *et al.*-n (2003) ageri da.

Euskarari dagokionez, estandarra den sistema erabiltzea egokia iruditu zaigu, horrela beste hizkuntzeta rako dauden sistemekin bateragarria egin ahal izateko. Beraz, oro har ingelesko terminologia bera erabili dugu dependentzia-etiketak izendatzerakoan; dena den, hizkuntzaren ezaugarriak hala eskatuta zenbait dependentzia-etiketa berri sortu behar izan dugu. Guztira 31 dependentzia-etiketa (III.1 taula) baliatu ditugu; beraien deskripzioa III.5 atalean egingo da.

III.4 Etiketatze-prozesua

Etiketatze-prozesua argi definitzeak garrantzi handia du, kalitateko etiketatzea lortu nahi bada, behintzat. Euskarako zuhaitz-bankua eraikitzeko, pro-



III.5 Irudia: Erlazio-gramatikalen hierarkia (Carroll *et al.*, 1998).

zesu hori urrats hauek jarraituz egin dugu:

1. Lehen urratsean, hiru hizkuntzalarik 50 esaldi aztertu zituzten etiketatze-sistema definitzeko helburuarekin. Lan horren ondorioz, etiketatze sintaktikoari buruzko oinarriak finkatu ziren eta eskuliburuaren lehen bertsioa (Aduriz *et al.*, 2003) osatu zen.
2. Bigarrenean, beste 150 esaldi etiketatu ziren lehen definitutako eske-maren egokitasuna egiazatzeko. Eskuliburuan zenbait zuzenketa egin ziren eta egitura berriekin osatu zen.
3. Hirugarren urratsean, lehen aztertutako 200 esaldiak etiketatu zituzten beste hiru hizkuntzalarik. Analisi horiek guztiak alderatu eta berrikusi ziren. Horren helburua eskuliburuak anbiguotasunik jasotzen ez zuela egiazatzea zen batetik, eta bestetik etiketatzaleak etiketatze-lanarekin ohitu zirela ikustea. Horrela, bada, eskuliburuaren bigarren bertsioa egin zen (Aranzabe *et al.*, 2003).

Dependentzia-etiketa	Deskripzioa
aditz_nagusi	Aditza
aponcmod	Aposizioa (ez-perpausa)
apocmod	Aposizioan dagoen mendeko perpaus jokatua
apoxmod	Aposizioan dagoen mendeko perpaus ezjokatua
arg_mod	Etiketa semantikoa
auxmod	Aditz laguntzailea
ccomp_obj	Mendeko perpaus osagarri jokatua, objektua
ccomp_subj	Mendeko perpaus osagarri jokatua, subjektua
cmod	Mendeko perpaus jokatua; adizlaguna edo izenlaguna
detmod	Determinatzailea
entios	Entitate-osagaia
galdemod	Aditzaren indartzailea
gradmod	Graduatzalea
haos	Hitz anitzekoaren osagaia
itj_out	Interjekzioa
lot	Loturazko elementuak
lot_at	Lokailuak
menos	Menderagailu-osagaia
ncmod	Adizlaguna
ncmod	Modifikatzailea
ncpred	Predikatiboa (ez-perpausa)
ncobj	Objektua (ez-perpausa)
ncsubj	Subjektua (ez-perpausa)
nczobj	Zehar-objektua (ez-perpausa)
postos	Postposizio-osagaia
prtmod	Partikulak; aditzarekin agertu ohi direnak
xcomp_obj	Mendeko perpaus osagarri ezjokatua, objektua
xcomp_subj	Mendeko perpaus osagarri ezjokatua, subjektua
xcomp_zobj	Mendeko perpaus osagarri ezjokatua, zehar-objektua
xmod	Mendeko perpaus ezjokatua; adizlaguna edo izenlaguna
xpred	Mendeko perpaus ezjokatua, predikatiboa

III.1 Taula: Euskarako dependentzia-etiketak alfabetikoki zerrendatuta.

4. Azkenik, eta behin etiketatzailak trebatuta, gainerako esaldi guztiak (lagineko 50.000 hitzak) etiketatu ziren, *Abarhitz* zuhaitz-editorea (III.7 atala) baliatuta. *Abarhitzen* bitartez etiketatze-lana arintzea eta erroreak saihestea lortu zen.

Egindako urrats hauek erakusten duten moduan, etiketatze-prozesuari dagozkion elementuak dira etiketatzailak, prozesu-mota, zuhaitz-editorea

eta etiketatzeko gida edo eskuliburua. Guztiek dute zerikusia aipatu berri dugun kalitatearekin. Lan askotan aditzera eman den bezala, esaterako (Kilgarriff, 1999), gurean ere etiketatzaile adituak izan dira eskuzko etiketatzelana gauzatu dutenak; hau da, esperientzia dutenak erabaki linguistikoak hartzeko. Gainera, lanaren konplexutasuna dela eta, etiketatzeari ekin aurretik, saio batzuk egin genituen desadostasunak aztertzeko, besteak beste.

Etiketatze-prozesua bera prozesu ziklikoa izan da; hau da, etiketatzeko irizpideak corpusean aurkitutako datuen arabera definitu ditugu. Horrela, bada, oinarrizko eskuliburua prestatu ondoren, eskuliburu hori osatzen joan gara prozesuan zehar etiketatzaileek izan dituzten zalantzak eraginda hartu ditugun erabakiek eta corpusean agertutako datu berrieikin. Sampson-ek (2003) ondo adierazten duen moduan, dokumentazioaren tamaina corpora-reна berarena baino handiagoa izan daiteke. Hain zuen ere, eskuliburuaren garrantzia dago lotuta:

- Analisiaren konsistentziarekin: egitura berak analisi bera jaso behar du.
- Hizkuntzalariaren leialtasunarekin: egindako analisiak hizkuntzari da-gozkionak behar dute izan.
- Hizkuntzalariaren arrazoairekin: hizkuntzalariak egindako analisiak, analisirik egokiena dela erakutsi behar du.
- Egitura korapilatsuei; hots, egitura bereziei edo lehenengoz agertzen diren egiturei emandako irtenbideekin.
- Etiketatzaileen arteko adostasunarekin.

III.5 Dependentzia-erlazioen deskripzioa

Aurreko ataletan aipatu ditugun Tesnière-ren oinarrizko dependentzia terminoaren definizioa baliatuta eta Hudson-en zehaztapenak oinarri harturik, he-men euskarako egituren deskripzioa egingo dugu III.1 taulako dependentzia-etiketen bitartez. Dependentzia-etiketa horiek EPEC corpuseko adibideekin ilustratuko ditugu.

Deskripzio honek garrantzi handia du, bertan esaldiko zein hitzen artean gertatzen den dependentzia-erlazioa definituko dugulako dependentzia-etiketen eremu-kopurua zehatzuz eta eremu bakoitzean jasotzen den informazioa adieraziz. Lan hau, gainera, oso baliagarria izango da ondoren egingo

diren tratamendu automatikoetarako, informazio hau guztia XML³ (*eXtensible Markup Language*) formatuan lortzeko aukera ematen baitu.

Dependentzia-etiketak alfabetikoki azaldu beharrean, multzoetan banatu ditugu, multzo hauetan antzeko ezaugarriak edo antzera jokatzen dutenak bilduz. Egin dugun antolaketa hau izan da: hasteko, esaldiak perpaus bakanetan (aditz bakarreko perpausak), konposatuetan (perpaus bat beste baten barruan txertatuta duena) eta elkartuetan (maila bereko perpausen juntadura edo elkarlaketa) banatu ditugu. Ondoren, perpaus mota bakoitzaren barnean atal desberdinak adierazi ditugu: perpaus bakanetan, aditz-katea (perpausko aditz nagusia eta berarekin batera ager daitezkeen aditz laguntzailea, **ez, bai, al, ba, omen, ote, ezin eta ahal** hitzek osatzen duten egitura) eta sintagmakin (sintagma hitzaren bitartez, izen-sintagmei eta izen-sintagmetatik eratortzen diren gainerako sintagmei -adizlagunak, izenlagunak...- egiten zaie erreferentzia, perpaus ez direnei, alegia); perpaus konposatuetan, mendeko perpaus jokatuak zein jokatugabeak, eta perpaus elkartuetan, lokailuen eta juntagailuen bidezko juntadurak.

Jarraian, multzo bakoitzeko dependentzia-etiketek adierazten dutena azalduko dugu: perpausean betetzen duten zeregina eta beren adierazpide orokorra. Horretaz gain, etiketa bakoitza adibide batekin ilustratuko dugu, adibide bakoitzari dagokion analisia adieraziz (erlazioan jartzen diren hitzen dependentzia) edota analisia dependentzia-zuhaitzaren bitartez irudikatuz. Irakurketa erraztearren, adibideetan zein analisietan, beltzago adieraziko dugu dependentzia-etiketa esleitu zaion hitza, mendekoa, alegia, eta azpimarratuta, berriaz, bere gobernatzalea.

Irakurleak ez du zertan ulertu esaldiaren dependentzia bidezko analisi osoa, ez hasiera batean behintzat, analisi osoak ulertzera iritsiko baita etiketak azaltzen joan ahala.

III.5.1 Perpaus bakanak


Mezua sortzean igorlearen helburu komunikatiboa kontuan hartuta, perpausak lau sailetan (adierazpen, galde, aginte eta harridura perpausak) banatzen badira ere, guk ez dugu halako bereizketarik egingo urrats honetan. Arrestian esan bezala, perpaus hauek ezaugarritzen dituzten puntuazio-markak, perpausaren hasiera eta bukaera markatzeko besterik ez dugu erabiliko.

Perpausaren barneko egiturari erreparatuz gero, Euskaltzaindiak (1990)

³Testuak markatzeko lengoaea hedagarria.

ondo adierazten duen bezala, perpausa osagai nagusi edo osagai mailakatuez osatutako unitate sintaktiko independentea dugu eta perpausetik beherako elementuak osagai mailakatuak dira.

Euskaltzaindiaren mailaketan ez bezala, Dependentzia Gramatikan, subjektua aditza baino beheragoko mailan agertuko da; hau da, subjektua aditzaren mende agertzen da, osagarri zuzena egongo litzatekeen bezalaxe. Tesnière-k (1959) bere liburuan ematen duen adibidea baliatuz, *Alfred frappe Bernard* Alfred-ek Bernard jo du, III.6 irudian jasotzen da nola irudikatuko litzatekeen perpaus bera Tesnièreren analisian eta nola analisi tradizionalean.



III.6 Irudia: **Alfred frappe Bernard** adibidearen analisi desberdinak.

Horrenbestez, perpaus batean, aditz kategoriako hitza izango da gobernatzaila. Aditz horrek perpuseko gainerako hitzak gobernatzuko ditu: aditzkatea osatzen dutenak batetik, eta sintagmako gobernatzaila direnak bestetik. Halaber, sintagmako gobernatzailak sintagmako beste hitzak gobernatzuko dituzte: determinatzaila, modifikatzaila eta graduatzaila.


Perpaus bakuneko hitzei dagozkien dependentzia-etiketak dira III.7 irudian agertzen direnak. Azter ditzagun banan-banan.

III.5.1.1 Aditz-katea


Aditz-katearen barnean aztertuko ditugun dependentzia-etiketak, III.8 irudian nabarmenduta daudenak, dira:

Aditz nagusia

Perpaus nagusiko aditza da, esan bezala, perpuseko gobernatzaila. De-



III.7 Irudia: Perpaus bakuneko dependentzia-etiketak.




III.8 Irudia: Aditz-kateko dependentzia-etiketak.

na den, teknikoki, dependentzia-zuhaitzaren abiapuntu den *erroa* adabegitik zintzilikatuko da (1) adibideari dagokion III.9 irudian ikusten den moduan.

Aditz nagusiaren eta abiapunktuko adabegiaren arteko lotura dependentzia-etiketa honen bitartez adieraziko dugu:

- aditz_nagusi

Dependentzia-etiketa hau hiru eremuz osatuko dugu eta bakoitzean jasoko dugun informazioa hau da hurrenez hurren:



III.9 Irudia: **Lanean ikusi zaitut** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

1. Oro har, eremu honetan erlazio-mota adieraziko dugu; zenbaitean, ordea, hutsik utziko dugu, aditz nagusiaren kasuan, esaterako.
2. Gobernatzailea: *erroa*.
3. Aztergai dugun hitza: perpauseko aditz nagusia.

Adibidez,

- (1) Lanean **ikusi** zaitut.

Adibide honi dagokion ondoko analisi honetan ikus daitekeen bezala, esaldiko aditz nagusiari esleitu diogun dependentzia-etiketa aipatutako informaziarekin osatuta dago:

aditz_nagusi (- , erroa, **ikusi**)
 ncmod (ine, ikusi, lanean, lanean, adlg)
 arg_mod (- , ikusi, lanean, adlg)
 auxmod (- , ikusi, zaitut)
 ncsbj (erg, ikusi, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (- , ikusi, nik, subj)
 ncobj (abs, ikusi, Pro, Pro, obj)
 arg_mod (- , ikusi, zu, obj)

Aditz-kateko hitzen azterketarekin jarraituz, aditz nagusiak beste hitz batzuk hartzen ditu aldamenean, berari estu-estu lotuak eta aditzaren parte direnak: aditz laguntzailea, egia balioarekin eta ziurtasun neurriarekin erlazionatzen diren partikulak eta **egin** indartzailea. Hauei dagozkien etiketetan ere hiru eremu dira osatu beharrekoak:

1. Hutsik.
2. Esaldiko aditz nagusia, gobernatzailea, alegia.
3. Hitza bera; hau da, mendekoa dena: aditz laguntzailea, partikula edo indartzailea.

Aditz laguntzailea

Perpauseko aditza perifrástikoa denean, aditz laguntzailearen eta aditz nagusiaren arteko dependencia-erlazioa da ondoko etiketa honen bitartez adieraziko duguna:

- auxmod

- (2) Oso ongi egiten **du** txineraz.


Adibide honetan nabarmendu duguna da **du** aditz laguntzailea egiten aditz nagusiaren mende dagoela.

aditz_nagusi (- , erroa, egiten)
 gradmod (- , ongi, oso)
 ncmod (- , egiten, ongi, ongi)
auxmod (- , egiten, **du**)
 ncmod (ins, egiten, txineraz, txineraz, adlg)
 arg_mod (- , egiten, txineraz, adlg)
 ncsbj (erg, egiten, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (- , egiten, hark, subj)

Aditz laguntzailea markatzeko erabiltzen dugun dependencia-etiketa bera baliatu dugu (3) adibidean, era burutuan, eta aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean kokatuta, iraganeko ohizkotasuna adierazten duen **izan** aditza markatzeko:

- (3) Besteetan gure etxera etorri **izan** da.

Adibide honi dagokion III.10 irudiko dependencia-zuhaitzean, bi osagai dira, beraz, *auxmod* dependencia-etiketa daramatenak: **izan** eta **da**.



III.10 Irudia: **Besteetan gure etxera etorri izan da** perpausaren dependentzia-zuhaitza.

Aditzaren ondoko partikulak

Arestian aipatu bezala, aditzak, askotan, beste hitz batzuk hartzen ditu ondoan: **ba**, **ez**, **omen**, **al**... Elementu hauek perpausean betetzen duten zeregina kontuan izanik bi sail nagusitan banatu ohi dira: egia balioarekin zerikusia dutenak (**ba**, **ez**...) eta ziurtasun neurriarekin erlazionatzen direnak (**omen**, **ote**...). Etiketatze-eskema honetan guztiak markatzeko erabili dugun etiketa hau da:

- prtmod

Ondoko adibidean ikusten den bezala, aditz jokatuari lotzen zaizkion partikulak dira hauek, **ez** partikula salbu, zeina aditz ezjokatuari ere erants dakioken perpaus konposatuak aztertzerakoan ikusiko dugun bezala.

(4) Bakarrik **al** habil hizketan?

Galdera-perpausetan ohikoa den **al** partikula dugu perpuseko **habil** aditz trinkoaren mendekoa.

aditz_nagusi (- , erroa, **habil**)
 ncmod (- , **habil**, bakarrik, bakarrik)
prtmod (- , habil, **al**)
 ncmod (ine, **habil**, hizketan, hizketan, adlg)

arg_mod (-, habil, hizketan, adlg)
 ncsbj (abs, habil, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (-, habil, hi, subj)

Aditzaren indartzailea

Perpauseko aditza galdegai izan daitekeenez, hitz horri enfasia emateko erabiltzen den **egin** galdegaia markatzeko sortu dugu ondoko dependentzia-etiketa:

- galdemod

(5) Gure adiskidantza lizundu **egin** zen.

Dependentzia-etiketa honen bitartez **egin** galdegaia perpauseko **lizundu** aditz nagusiaren mende dagoela adierazi dugu.

aditz_nagusi (-, erroa, lizundu)
 ncmod (gen, adiskidantza, gure, gure)
 ncsbj (abs, egin, adiskidantza, adiskidantza, subj)
 arg_mod (-, egin, adiskidantza, subj)
galdemod (-, lizundu, **egin**)
 auxmod (-, lizundu, zen)

Perpauseko aditza eta honekin lotura estua duten hitzak nola markatu adierazi ondoren, perpauseko sintagmaren barnean sailkatu ditugun etiketak izango ditugu aztergai jarraian.

III.5.1.2 Sintagmak

Sintagma adierazteko *nc* (*non-clausal*) laburtzapena baliatzen da dependentzia-ereduan. Laburtzapen honi era berean sintagmak perpausean betetzen duen funtzioa eransten zaio, esaterako, *ncsubj*.

Bestalde, jakina da sintagma guztien egituraren hiru zati aurki daitezkeela:


1. gobernatzalea: izenak eta izenordainak;
2. izenaren osagarriak: adjektiboak;
3. determinatzaleak: erakusleak, zenbatzaileak eta nolakotzaileak.

Segidan adierazten den bezala, lehen multzokoak, sintagmetako gobernatzaileak, aditzak gobernatuko ditu. Beste bi multzoak, izenaren osagarriak eta determinatzaileak, berriz, sintagmetako gobernatzailearen mendekoak dira.

Sintagmetako gobernatzaileak

Sintagmetako gobernatzaile diren hitzen artean multzokatu ditugu batetik, subjektu, objektu, zehar-objektu, adizlagun eta predikatibo funtziotakoak betetzen dituztenak, eta bestetik, interjekzioak. Azken hauek ez dira, berez, besteen tankerakoak, ez baitute perpausaren barnean inolako funtziorik betetzen; baina bestelako hitz klase izanik, interjekzio gisa erabiltzen diren hitz hauek perpauseko aditzaren mendeko izatea erabaki dugu.

Hauei guztiei dagozkien dependentzia-etiketak dira III.11 irudian nabarmendu ditugunak.



III.11 Irudia: Sintagmetako gobernatzaileen dependentzia-etiketak.

Interjekzioetan izan ezik, dependentzia-etiketa hauetan bost eremutan deskribatuko dugu mendekoaren eta gobernatzailearen artean gertatzen den dependentzia-erlazioa:

1. Bi hitz hauen arteko erlazio gramatikala egiteko erabili den kasu-marka.
2. Gobernatzailea; hau da, perpauseko aditz nagusia.

3. Sintagmako gobernatzalea.
4. Sintagmaren barruan kasu-marka daraman hitza.
5. Mendekoak betetzen duen funtzio sintaktikoa.

Hortaz, interjekzioen kasuan, lehen lau eremuak izango dira osatuko ditugunak, bosgarrena funtzio sintaktikoari baitagokio.

Azter dezagun dependentzia-etiketa bakoitza.

- ncssubj

Perpauseko aditz nagusiaren mende dagoen izen edo izenordain kategoriako hitzari esleituko diogu dependentzia-etiketa hau. Hitz honek absolutiboan, partitiboan edo ergatiboan egiten du komunztadura aditz horrekin eta subjektu funtzioa betetzen du.

(6) Orduan **Francine** gizonaren begiez arduratu zen.

Adibide honen bitartez, perpauseko subjektuaren eta aditz nagusiaren arteko dependentzia-erlazioa adierazi nahi dugu; hau da, **Francine** eta **arduratu** hitzen artekoa.

Dependentzia-eredua jarraituz, honela etiketatuko dugu perpaus hau:

```
aditz_nagusi ( - , erroa, arduratu)
ncmod ( - , arduratu, orduan, orduan)
ncsubj (abs, arduratu, Francine, Francine, subj)
arg_mod ( - , arduratu, Francine, subj)
ncmod (gen, begiez, gizonaren, gizonaren)
ncmod (ins, arduratu, begiez, begiez, adlg)
arg_mod ( - , arduratu, begiez, adlg)
auxmod (-, arduratu, zen)
```

Analisi horetan, aztergai dugun *ncsubj* dependentzia-etiketaren irakurketa hau da: lehen eremuan, gobernatzalearen eta mendekoaren arteko dependentzia-erlazioa absolutiboaren bitartez (**abs**) egin dela adierazi dugu. Bigarrenean, sintagma gobernatzen duen aditza zehaztu dugu: **arduratu**. Hirugarrenean, berriz, aditz horren mendekoa edota sintagma-kogo gobernatzalea den izen berezia: **Francine**. Laugarrenean, mendekoa

agertzen den sintagmaren barruan kasu-marka daraman hitza: **Francine**. Eta, bosgarrenean, mendekoak betetzen duen funtzio sintaktikoa: subjektua.

Ohar bedi dependentzia-etiketa horretako hirugarren eta laugarren eremuan, hitz bera dela errepiatzen dena. Honen arrazoia euskararen tipologian bilatu behar da. Hots, sintagma hitz batez osatuta dagoenez, sintagmako gobernatzaileak berak hartzen du gobernatzailearekiko mendekotasuna adierazten duen erlazio-marka.

Dena den, jakina da beste zenbait hizkuntzatan bezala, euskaraz ere sintagmaren egitura nahiko konplexua izan daitekeela, hitz askok osa baitezakete. Hitz bat baino gehiagoz osatutako sintagmetan, sintagma ixten duen azkenak besterik ez du hartzen kasu-marka⁴. Hori dela eta, sintagmetako gobernatzailee dagozkien dependentzia-etiketetan laugarren eremua gehitu dugu (Aduriz *et al.*, 2002). Eremu honetan jasotzen den informazioak adieraziko du zein hitzek daraman kasu-marka. Honen adierazgarri dugu (7) adibidea:

- (7) Zinemako **cowboy** hark bere etxe handian errezipitu zituen.

Adibide honetan, hain zuzen, subjektu funtzioan dagoen **Zinemako cowboy hark** sintagma hiru hitzek osatzen dute. Hiru horietatik sintagmako gobernatzaile den **cowboy** hitza modifikatzen duen **hark** determinatzailak darama aditzarekiko mendekotasuna adierazten duen ergatibo kasu-marka. Adizlagun funtzioa betetzen duen **bere etxe handian** sintagma ere hiru hitzekoa da eta **handian** adjektiboak darama kasu-marka:

```


aditz_nagusi ( -, erroa, errezipitu)
ncmod (gel, cowboy, zinemako, zinemako)
ncsubj (erg, errezipitu, cowboy, hark, subj)
detmod ( - , cowboy, hark)
arg_mod ( - , errezipitu, cowboy, subj)
ncmod (gen, etxe, bere, bere)
ncmod (ine, errezipitu, etxe, handian, adlg)
ncmod ( - , etxe, handian, handian)

```

⁴Euskara “buru azkena” duen hizkuntza dela esaten da, sintagma-buruak eskuineko posizioan jartzeko joera duelako. Sintagma egiturari erreparatuz gero, marka morfologikoa sintagma hori osatzen duen azken osagaiak darama.

arg_mod (- , errezibitu, etxe, adlg)
auxmod (- , errezibitu, zituen)
ncobj (abs, errezibitu, Pro, Pro, obj)
arg_mod (- , errezibitu, haiiek, obj)

Analisi honi dagokion dependentzia-zuhaitza III.12 irudikoa da.



III.12 Irudia: **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezibitu zituen** perpausaren dependentzia-zuhaitza.

- ncobj

Dependentzia-etiketa honen bitartez ere izen edo izenordain kategoriko hitzen eta aditzaren arteko dependentzia-erlazioa adieraziko dugu. Izen edo izenordain horiek, ordea, absolutiboan edo partitiboan egiten dute komunztadura aditz horrekin eta objektu funtzioa dute.

(8) Nhamdi-k **ukabilak** estetu zituen.

Adibide honi dagokion ondoko analisian ikus daitekeenez, aztergai dugun hitzaren eta aditzaren arteko dependentzia-erlazioa absolutiboaren bitartez egiten da.

aditz_nagusi (- , erroa, estetu)
ncsubj (erg, estetu, Nhamdi-k, Nhamdi-k, subj)
arg_mod (- , estetu, Nhamdi-k, subj)
ncobj (abs, estetu, **ukabilak**, ukabilak, obj)

arg_mod (- , estutu, ukabilak, obj)
auxmod (- , estutu, zituen)

- nczobj

Zehar-objektua markatzeko erabiltzen dugun dependentzia-etiketa honek datiboan egingo du komunztadura perpauseko aditz nagusiarekin. Mendeko hitz hau ere izen edo izenordain kategoriakoa izango da.

(9) **Niri** ez zidan inork irakurtzen.

Adibide honetan, izenordain kategoriako **niri** hitza da **irakurtzen** aditzaren mende dagoena.

aditz_nagusi (- , erroa, irakurtzen)
nczobj (dat, irakurtzen, **niri**, niri, zobj)
arg_mod (- , irakurtzen, niri, zobj)
prtmod (- , irakurtzen, ez)
auxmod (- , irakurtzen, zidan)
ncsubj (erg, irakurtzen, inork, inork, subj)
arg_mod (- , irakurtzen, inork, subj)
ncobj (abs, irakurtzen, Pro, Pro, obj)
arg_mod (- , irakurtzen, hora, obj)

Nor, **nori** eta **nork** sintagma gisa gauzatzen diren hitz hauek lirateke argumentutzat joko lituzketenak Carroll *et al.*-ek (1998), eta modifikatzaitzat, berriz, aditzarekin komunztadura egiten ez duten kasu-markez osatutakoak. Tesi-lan honetan, ordea, dependentziek ez dute argumentu *vs* adjuntu erlazioa markatuko. Aldez aurretik funtzioekin markatuta datorrena bereiztera mugatuko gara; hots, subjektu, objektu eta zehar-objektuak argumentutzat jotzen direla jakinda, horiek zuzenean argumentu izango dira; besteak, berriz, adjuntuak edo zirkunstantzialak.

- ncmod

Sintagmetako gobernatzaile diren hitzen azterketarekin jarraituz, adizlagun funtzioa betetzen dutenak markatzeko erabiliko dugun etiketa da hau. Horrenbestez, aditzarekin komunztadurari ez duten kasu-markez osatutako izen eta izenordainei esleituko diegu.

Euskaltzaindiaren sailkapena jarraituz, kasu-marka horien artean ditugu, batetik, leku-denbora kasu-markak (ablatiboa, adlatiboa, norabide

zuzenezko adlatiboa, adlatibo bukatuzkoa eta inesiboa), eta bestetik, hain sailkapen garbian sartzen ez direnak (soziatiboa, instrumentalua, motibatiboa eta destinatiboa) (Euskaltzaindia, 1991).

Aditzondo edo adberbio kategoriako hitzak, halaber, dependentzia-etiketa honekin etiketatuko ditugu.

Adibidez, (10) perpausaren analisian, sintagma gobernatzairen den izenari esleitu diogun dependentzia-etiketan, inesibo kasu-markaren bittaratz egiten dela mendekoaren eta gobernatzairearen arteko erlazioa adierazten dugu; hau da **galbidean** hitzaren eta **jarri** aditzaren artekoa:

(10) Nik zintudala **galbidean** **jarri**.

aditz_nagusi (- , erroa, jarri)
 nsubj (erg, jarri, nik, nik, subj)
 arg_mod (- , jarri, nik, subj)
 auxmod (- , jarri, zintudala)
ncmod (ine, **jarri**, **galbidean**, galbidean, adlg)
 arg_mod (- , jarri, galbidean, adlg)
 ncobj (abs, jarri, Pro, Pro, obj)
 arg_mod (- , jarri, zu, obj)

Izenordain kategoriako hitzari ere esleitu dakioke etiketa hau. Adibidez,


(11) **Inon** **ikusi** al duzu kotxeko giltza?

aditz_nagusi (- , erroa, ikusi)
ncmod (ine, **ikusi**, **inon**, inon, adlg)
 arg_mod (- , ikusi, inon, adlg)
 prtmod (- , ikusi, al)
 auxmod (- , ikusi, duzu)
 ncmod (gel, giltza, kotxeko, kotxeko)
 ncobj (abs, ikusi, giltza, giltza, obj)
 arg_mod (- , ikusi, giltza, obj)
 nsubj (erg, ikusi, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (- , ikusi, zuk, subj)

Esan bezala, izen eta izenordain kategoriako hitzak ez ezik, adberbio kategoriakoak ere dependentzia-etiketa honekin markatuko ditugu. Aurrekoetan ez bezala, hauetan lehen eremua hutsik utziko dugu, ordea. Adibidez,

- (12) Ardo bat behar zuen **ezinbestean**.

Adibide honen analisi sintaktikoan (III.13 irudia), sintagmako gobernatzailen den **ezinbestean** adberbioa perpuseko aditz nagusiarren mende dagoela adierazi dugu; hau da, **behar zuen** hitz anitzeko unitate lexikalaren mende.



III.13 Irudia: **Ardo bat behar zuen ezinbestean** perpausaren dependentziazuhaitza.

Orokorrean, sintagmetako gobernatzailen diren izen eta izenordain kategoriako hitzei edota adberbio kategoriakoei esleitzen dizkiegu orain arte ikusi ditugun dependentzia-etiketa hauek. Izena eliditura dagoen kasuetan, ordea, determinatzaile edo adjektibo kategoriakoek ere har ditzakete. Adibidez, (13) adibidean, determinatzaile erakusleari esleitu diogu *ncsubj* dependentzia-etiketa.

- (13) **Honek** ez daki ezer.

Adibide honi dagokion analisian argi ikusten da erakuslearen eta perpuseko aditz nagusiarren arteko dependentzia-erlaziona; hau da, **honek** eta **daki** osagaien artekoa:

aditz_nagusi (- , erroa, daki)
ncsubj (erg, daki, **honek**, honek, subj)

arg_mod (- , daki, honek, subj)
 prtmod (- , daki, ez)
 ncobj (abs, daki, ezer, ezer, obj)
 arg_mod (- , daki, ezer, obj)

- ncpred

Predikatiboari dagokionez, loturazko aditz baten bidez perpauseko argumentuez predikatzen duten adjektiboek, izenek eta adberbioek beteko dute funtzio sintaktiko hau.

Dependentzia Gramatikaren ereduan aditzak duen garrantzia ikusita, honelakoetan ere aditza gobernatzailetzat hartzea erabaki dugu; hots, lehen urrats honetan ez ditugu izenki- eta adizki-predikatuak bereiziko.

(14) Belandiako eliza **altua** **da**.

Adibide honetan, **altua** hitzari esleituko diogu *ncpred* dependentzia-etiketa, eta bere eskuinera dagoen **da** aditzak gobernatuko du:

aditz_nagusi (- , erroa, da)
 ncmod (gel, eliza, Belandiako, Belandiako)
 ncsbj (abs, da, eliza, eliza, subj)
 arg_mod (- , da, eliza, subj)
ncpred (abs, **da**, **altua**, altua, pred)

(15) Iritzi hau naturaren behaketa zuzenaren **fruitu** **zen**.

Adibide honetan, izen kategoriako hitza dugu mendekoa: **fruitu**. Eta adibideari dagokion analisian ikus daitekeen moduan, perpauseko **zen** aditzaren mende dago:

aditz_nagusi (- , erroa, zen)
 ncsbj (abs, zen, iritzi, hau, subj)
 detmod (- , iritzi, hau)
 arg_mod (- , zen, iritzi, subj)
 ncmod (gen, behaketa, naturaren, naturaren)
 ncmod (gen, fruitu, behaketa, zuzenaren)
 ncmod (- , behaketa, zuzenaren, zuzenaren)
ncpred (abs, **zen**, **fruitu**, fruitu, pred)

- itj_out

Dependentzia-etiketa hau perpausetik kanpo dauden hizketakideei erreferentzia egiten dieten elementuak (interjekzioak, onomatopeiak eta bokatiboa) markatzeko sortu dugu.

(16) Euriak ez zaitu bustitzen, **Valentine**.

Adibide honi dagokion analisian ikusten den bezala, interjekzio gisa erabiltzen den izen kategoriako hitza (**Valentine**), bere gobernatzailea den **bustitzen** aditzaren mende dago:

```
aditz_nagusi ( - , erroa, bustitzen)
ncsubj (erg, bustitzen, euriak, euriak, subj)
arg_mod ( - , bustitzen, euriak, subj)
prtmod ( - , bustitzen, ez)
auxmod ( - , bustitzen, zaitu)
ncobj (obj, bustitzen, Pro, Pro, obj)
arg_mod ( - , bustitzen, zu, obj)
itj_out (abs, bustitzen, Valentine, Valentine)
```

Laburbilduz, sintagmetako gobernatzaileak izenpean sailkatutako sei etiketa hauek orokorrean sintagmetako gobernatzaile diren izen, izenordain, adjektibo, adberbio edota interjekzio kategoriako⁵ hitzei dagozkie. Halaber, sintagmatik kanpo dagoen perpuseko aditzaren mende daude.

Sintagmetako mendekoak


Horien artean multzokatu ditugu: determinatzaileak, adjektiboak (izenlagunak eta izenondoak), aposizioa eta maila-aditzondoak. Hauei dagozkien dependentzia-etiketak dira III.14 irudian nabarmendu ditugunak.

Dependentzia-etiketa hauek sintagmako izenaren mende dauden hitzek hartuko dituzte; aposizioaren kasuan, ordea, gobernatzailea sintagma berean aurki daiteke edota erreferentziakide den beste sintagma batean.

- detmod

Determinatzaileen azterketarekin hasita, hauen artean sailkatzen diren mugatzaileak (adibidez, **Sagar horiek ustelduta daude**), zenbatzaileak

⁵Hitz hauek guztiak kategoriatzat hartu ditugu Euskararen Datu-Base Lexikalean egin den azterketa jarraituta (Aldezabal *et al.*, 2001a).



III.14 Irudia: Sintagmetako mendekoei dagozkien dependentzia-etiketak.

(adibidez, **Hamaika arazo sortu digu horrek**) eta nolakotzaileak (adibidez, **Zein etxetan bizi zara?**) markatzeko erabiliko dugun etiketa da hau. Bertan, hiru eremutan jasoko dugu informazioa:

1. Hutsik.
2. Determinatzen edo modifikatzen duen hitza; hau da, sintagmako gobernatzalea.
3. Determinatzalea bera.

Adibidez,

(17) Zertara zetorren erretolika **hori**?

Adibide honetan, sintagma osatzen duten **erretolika** eta **hori** hitzen arteko dependentzia-erlazioa markatu dugu, **hori** erakuslea sintagmako gobernatzale den **erretolika** izenaren mende dagoela adieraziz.

aditz_nagusi (- , erroa, zetorren)
 ncmod (ala, zetorren, zertara, zertara, adlg)
 ncsbj (abs, zetorren, erretolika, hori, subj)
detmod (- , erretolika, **hori**)
 arg_mod (- , zetorren, erretolika, subj)

- ncmod

Adjektiboari eta aposizioari dagokienez, lehen aztertu dugun *ncmod* etiketa beraz baliatuko gara sintagmako gobernatzaleak modifikatzen dituzten izenlagunak eta izenondoak markatzeko. Dependentzia-etiketa honetan, ordea, lau eremutan bilduko dugu informazioa:

1. Izenondoen kasuan, hutsik agertuko da, sintagmako gobernatzalea den hitzak adieraziko baitu erlazio gramatikal hori. Izenlagunetan, aldiz, leku-genitiboari edota edutezko genitiboari dagokion kasu-marka adieraziko dugu.
2. Gobernatzalea; hau da, sintagmako gobernatzalea.
3. Mendekoa.
4. Mendekoa agertzen den sintagmaren barruan kasu-marka daraman hitza.

Adibidez,

- (18) Nola deitzen zaio zirkulazio atmosferikoari?


Adibide honetan, izenaren eskuinera agertzen den **atmosferikoari** izenondoari esleitu diogu aztergai dugun dependentzia-etiketa.

aditz_nagusi (- , erroa, deitzen)
 ncmod (- , deitzen, nola, nola)
 auxmod (- , deitzen, zaio)
 nczobj (dat, deitzen, zirkulazio, atmosferikoari, zobj)
ncmod (- , zirkulazio, **atmosferikoari**, atmosferikoari)
 arg_mod (- , deitzen, zirkulazio, zobj)

Aztergai dugun dependentzia-etiketaren irakurketa hau da: izenondoa izanik, lehen eremua hutsik agertzen da; hain zuen ere, sintagmako gobernatzale den **zirkulazio** izenak adierazten duelako datiboaren bitartez aditzarekiko mendekotasuna; bigarren eremuan modifikatzen duen eta sintagmako gobernatzale den hitza (**zirkulazio**) adierazi dugu eta hirugarrenean eta laugarrenean, mendekoa bera (**atmosferikoari**).

- (19) **Iazko festetan** ezagutu nuen.

Adibide honi dagokion III.15 irudiko dependentzia-zuhaitzean, sintagma barruan gertatzen den hitzen arteko mendekotasuna leku-genitiboaren bitartez (**gel**) adierazi dugu; hots, **iazko** izenlagunak **festetan** izenarekiko duen lotura. Izenlagun hau da, hain zuzen ere, izenak, sintagmako gobernatzailak, gobernatzeten duena.



III.15 Irudia: **iazko festetan ezagutu nuen** perpausaren dependentzia-zuhaitza.

- aponcmod

Aurreko bi adibideek erakusten duten moduan, jakina da adjektiboak lagun daraman izenaren zernolakoa adierazten duela. Baina askotan adjektiboaren zeregin hori aposizioan doan izen batek edo beste sintagma batek egiten du. Elementu horiek markatzeko erabili den dependentzia-etiketa da *aponcmod*.

Dependentzia-etiketa honen bitartez adieraziko den lotura lau eremu-tan deskribatuko dugu:

1. Hutsik.
2. Gobernatzailea.
3. Aposizio-sintagmaren gobernatzalea.

4. Aposizio-sintagma kasu-marka daraman hitza.

(20) Axularrek, gure **idazole** handiak, idatzi zuen liburu hori.

Adibide honetan, sintagma oso bat dugu aposizioan, koma artean doan tartekia, alegia.

aditz_nagusi (- , erroa, idatzi)
 ncssubj (erg, idatzi, Axularrek, Axularrek, subj)
 arg_mod (- , idatzi, Axularrek, subj)
 ncmod (gen, idazole, gure, gure)
aponcmod (- , Axularrek, **idazole**, handiak)
 ncmod (- , idazole, handiak, handiak)
 arg_mod (- , Axularre, idazole, adlg)
 auxmod (- , idatzi, zuen)
 ncobj (abs, idatzi, liburu, hori, obj)
 detmod (- , liburu, hori)
 arg_mod (- , idatzi, liburu, obj)

- gradmod


Izenondoen eta aditzondoen maila edo intentsitate neurria adierazteko erabiltzen diren maila-aditzondoak, berriz, *gradmod* etiketaren bitartez markatuko ditugu. Dependentzia-etiketa hau hiru eremuk osatuko dute:

1. Hutsik.
2. Sintagmako gobernatzalea; hau da, gobernatzalea den izenonda edo aditzonda.
3. Mendekoa, maila-aditzonda, alegia.

Adibidez,

(21) **Oso ongi** egiten du txineraz.

Adibide honi dagokion dependentzia-zuhaitzean (III.16 irudia) irudikatzen den moduan, sintagma barruko hitzen arteko dependentzian, maila-aditzonda (**oso**) beste aditzondo baten mende dago (**ongi**).



III.16 Irudia: *Oso ongi egiten du txineraz* perpausaren dependentzia-zuhaitza.

III.5.1.3 Etiketa semantikoa

Dependentzieta oinarritutako ereduak semantika aztertzeko aukera eskaintzen digunez, ezaugarri semantikoak jasoko dituen etiketa ere osatu dugu: *arg_mod*.

Etiketa honetan sintagmetako gobernatzaila, hots, aditzarekiko mende-kotasunean daudenei, dagozkien rol tematikoak (egilea, jasalea, e.a.) jasoko lirateke. Urrats honetan, ordea, funtzio sintaktikoa adieraztera mugatu gara. Rol tematikoen esleipena, etiketatzte sintaktikoaren ondotik egingo den etiketatz-lanean gauzatuko da (Agirre *et al.*, 2006).

- *arg_mod*

Etiketa honetan lau eremutan jasoko dugu informazioa:

1. Hutsik.
2. Perpulseko gobernatzalea; hau da, aditza.
3. Sintagmako gobernatzalea.
4. Rol tematikoa lizatekeena; baina esan bezala, horren ordez funtzio sintaktikoa markatuko dugu.

Adibidez,

- (22) **Aitak zulo handi bat egin zinan Timorentzat palaz.**

Adibide honetan, lau sintagmetako gobernatzaileei dagozkien etiketa semantikoak nabarmendu ditugu.

aditz_nagusi (- , erroa, egin)
 nsubj (erg, egin, aitak, aitak, subj)
arg_mod (- , egin, **aitak**, subj)
 ncobj (abs, egin, zulo, bat, obj)
 ncmod (- , zulo, handi, handi)
 detmod (- , zulo, bat)
arg_mod (- , egin, **zulo**, obj)
 auxmod (- , egin, zinan)
 ncmod (des, egin, Timorentzat, Timorentzat, adlg)
arg_mod (des, egin, **Timorentzat**, adlg)
 ncmod (ins, egin, palaz, palaz, adlg)
arg_mod (ins, egin, **palaz**, adlg)


Perpaus bakunaz aritu ondoren, perpaus bat baino gehiago dituen egitura raz jardungo dugu segidan; hau da, perpaus konposatuaz.

III.5.2 Perpaus konposatuak

Jakina da perpaus mailako kohesioa egiten denean, perpaus konposatu baten aurrean aurkitzen garela. Horien artean ditugu batetik, perpaus elkartuak, maila bereko perpausen gehitzetik sortuak, eta bestetik, mendeko perpausak, maila berean ez dauden perpausen loturatik menderagailuen bitartez sortuak.

Mota honetako egiturak markatzeko definitu ditugun dependentzia-etiketak dira III.17 irudian agertzen direnak. Irudi horretan bertan ikus daitekeen bezala, horiekin batera sailkatu dugu lokailuen bitartez egiten den testu-mailako kohesioa markatzeko dependentzia-etiketa: *lot_at*.

Jarraian, dependentzietai oinarrituta egitura hauek zein eratara aztertuko ditugun azalduko dugu. Mendeko perpausen azterketarekin hasiko gara, eta lokailuen bidez lortzen diren perpusekin jarraitu. Perpaus koordinatuen azterketa III.6 atalerako utziko dugu, egitura konplexuak izanik zein erabaki hartu dugun azalduko baitugu beste zuhaitz-bankuetan nola jokatu duten aztertu ondoren.



III.17 Irudia: Perpaus konposatuetako dependentzia-etiketak.

III.5.2.1 Mendeko perpausak

Mendeko perpausen artean, eta beti ere aipaturiko Carroll *et al.*-en (1998) etiketatze-eskema jarraituz, mendeko perpaus osagarriak eta perpaus modifikatzaileak bereizi ditugu. Mota horietako perpausak markatzeko erabili ditugun dependentzia-etiketez gain, predikazio- eta aposizio-perpausak bereizten dituzten dependentzia-etiketak sortu ditugu. Halaber, adizki jokatuzko perpausak eta adizki jokatugabekoak banatu ditugu sail bakoitzean.

Hauek guztiak adierazteko erabili ditugun adibideetan, esaldi guztien esku zko analisi sintaktiko osoa eman beharrean, mendeko perpausari dago kiona egingo dugu, aztergai dugun dependentzia-etiketa beltzago nabarmenduz. Izan ere, gainerako hitzak, perpaus nagusikoak alegia, arrestian ikusitako etiketak baliatuz markatuko ditugu. Eta gutxi batzuetan perpausaren dependentzia-zuhaitza irudikatuko dugu analisiaren irakurketa erraztearren.

Perpaus osagarriak edo konpletiboak

Perpaus osagarrien azterketan, hiru elementu dira kontuan hartu beharrekoak: gobernatzailea, perpaus osagarria eta perpaus osagarria ezaugarritzen duen menderagailua edo erlazio-marka⁶.

Adibideek erakusten duten moduan, gobernatzaileak mota sintaktiko desberdinakoak izan daitezke; hau da, aditzak ez ezik, izenak eta hitz anitzeko unitate lexikalak ere azalduko dira gobernatzaile gisa.

Bestalde, perpaus osagarriak barnean duten aditzaren arabera, perpaus jokatuak eta ezjokatuak izan daitezke. Aditz jokatua duten mendeko perpaus osagarriak markatzeko *ccomp* dependentzia-etiketa baliatuko dugu, eta aditz ezjokatua osatutakoak adierazteko, berriz, *xcomp*. Horretaz gain, perpaus osagarriek esaldi osoaren barnean zein funtzio sintaktiko betetzen duten ere adieraziko dugu etiketa sintaktikoan (III.18 irudia): subjektu direnean, *ccomp-subj* eta *xcomp-subj* etiketak baliatuko ditugu; objektu direnean, *ccomp-obj* eta *xcomp-obj*; eta zehar-objektu direnean, *xcomp-zobj*. Azken funtzio sintaktiko hau perpaus osagarri ezjokatuetara mugatuta geratzen da, datibo kasu-markaz osatutako perpaus osagarri jokaturik ez baitago.


Eta azkenik, gobernatzaileek eskatzen edo gobernatzen dituzten erlazio-markak ere jakinak dira, esaterako, **-ela**, **-enik**, **-na**, **-tzezo**, eta **-en**.

Hain zuzen ere, dependentzia-etiketa hauetan, aipatutako informazioa da lau eremutan adieraziko duguna:

1. Perpaus osagarria zein motatakoa den zehaztuko dugu: konpletiboa (**konp**) edo zehar-galdera (**zhg**).
2. Mendeko perpausa zein hitzek gobernatzen duen adieraziko dugu; hots, perpaus nagusiko gobernatzailea.
3. Mendeko perpauseko gobernatzailea.
4. Erlazio-marka daraman hitza.

Azter ditzagun banan-banan gobernatuak diren hitzen dependentzia-etiketak, adizki jokatua eta adizki jokatugabea sailkapena eginez.

⁶*Erlazio-marka* terminoa erabiliko da literaturan barrena erabili diren termino desberdinak (atzizkiak, menderagailuak, elementuak...) biltzeko.



III.18 Irudia: Mendeko perpaus osagarrien dependentzia-etiketak.

Adizki jokatuzko perpaus osagarriak

Aditz jokatua duten perpaus osagarriei dagozkien dependentzia-etiketak dira:

- ccomp_subj

Subjektu funtzioa betetzen duen perpaus osagarria. Adibidez,


(23) Garbi ageri zen gaizki-esaleak ugariagoak **zirela**.

Adibide honetan, mendeko perpuseko **zirela** aditza markatuko da etiketa honekin. Kasu honetan, aditz trinkoa dugu eta berak drama perpaus osagarriaren ezaugarri den **-ela** erlazio-marka; hori dela eta, hirugarren eta laugarren eremuan errepikaturik ageri da aditza. Hitz hau, halaber, perpaus nagusiko **ageri zen** hitz anitzeko unitate lexikalaren mende dago.

Bi hitz horien arteko dependentzia-erlazioa honela adieraziko dugu:

ccomp_subj (konp, ageri zen, **zirela**, zirela)

Eta esaldiaren analisi osoa, berriz, III.19 irudiko dependentzia-zuhaitzean errepresentatu dugu.



III.19 Irudia: **Garbi ageri zen gaizki-esaleak ugariagoak zirela** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

- **ccomp_obj**

Objektu funtzioa duen perpaus osagarria.

- (24) Lehenago aitona **egoten** zela ni egoten naizen tokian esaten dit amonak.

Adibide honetan **esaten** aditza da gobernatzalea. Aurreko adibidean ez bezala, osagarritasuna adierazten duen **-ela** erlazio-marka **zela** aditz laguntzaileak darama. Beraz, dependentzia-etiketan mendeko perpausaren gobernatzalea aditza dela adieraziko dugu eta aditz laguntzaileak daramala osagarritasunaren ezaugarria:

aditz_nagusi (- , erroa, esaten)
 ncmod (- , egoten, lehenago, lehenago, adlg)
 ncsbj (abs, egoten, aitona, aitona, subj)

arg_mod (- , egoten, aitona, subj)
ccomp_obj (konp, esaten, **egoten**, zela)
auxmod (- , egoten, zela)
ncsubj (abs, egoten, ni, ni, subj)
arg_mod (- , egoten, ni, subj)
cmod (erlt, tokian, egoten, naizen)
auxmo (- , egoten, naizen)
ncmod (ine, egoten, tokian, tokian, adlg)
arg_mod (- , egoten, tokian, adlg)

- (25) Paulinok azken asaltoa **bota** zuela uste zuen.

Gobernatzailea, **uste zuen** hitz anitzeko unitate lexikala dugu hemen. Horrelako perpausetan unitate osoa hartu dugu gobernatzailetzat eta ez izena (**uste**) soilik. Oinarriean esan bezala, erabaki honetan eragina izan du ikerketa-taldean egitura hauek izan duten tratamendu automatikoak, zeina kontuan hartzen den ondorengo urratsetan.

aditz_nagusi (- , erroa, uste zuen)
ncsubj (erg, botia, Paulinok, Paulinok, subj)
arg_mod (- , botia, Paulinok, subj)
detmod (- , asaltoa, azken)
ncobj (abs, botia, asaltoa, asaltoa, obj)
arg_mod (- , botia, asaltoa, obj)
ccomp_obj (konp, uste zuen, **bota**, zuela)

- (26) Jonek Mikel hor **dagoen galdetu** du.

Adibide honetan, mendekotasuna **-en** erlazio-markaren motakoa (**zhg**) da eta aztergai den hitza **dagoen** perpaus nagusiko **galdetu** aditzaren mende dago:

aditz_nagusi (- , erroa, galdetu)
ncsubj (abs, dagoen, Mikel, Mikel, subj)
arg_mod (- , dagoen, Mikel, subj)
ncmod (- , dagoen, hor, hor, adlg)
ccomp_obj (zhg, galdetu, **dagoen**, dagoen)

Adizki ezjokatuzko perpaus osagarriak

Perpaus hauek ezaugarritzen dituzten erlazio-markak dira **-t(z)ea**, **-t(z)erik**, **-t(z)en**, **-t(z)eko** eta **-tu**. Jokatuekin gertatzen den moduan, mendekotasuna adierazteko erabiltzen diren marka hauek ere gobernatzaile desberdinak izango dituzte: aditza, izena edota hitz anitzeko unitate lexikalak.

Hiru dira bi perpausen arteko dependentzia-erlazioa adierazteko definitu ditugun etiketak:

- **xcomp_subj**

Ergatibo, absolutibo edo partitibo kasu-marka hartzen duen mendeko perpuseko aditz-izenari dagokio etiketa hau, eta etiketak adierazten duen moduan, subjektu funtzioa betetzen du. Adibidez,

- (27) Poztuko ninduen huraxe **ikustea**.

Hemen, **ikustea** aditz ezjokatuari esleitu diogun *xcomp-subj* etiketak adierazten du hitz hau perpaus nagusiko **poztuko** aditz gobernatzailearen mende dagoela, konpletibo motakoa dela eta subjektu funtzioa betetzen duela.

aditz_nagusi (- , erroa, poztuko)
 ncobj (abs, ikustea, huraxe, huraxe, obj)
 arg_mod (- , ikustea, huraxe, obj)
xcomp_subj (konp, poztuko, **ikustea**, ikustea)

Hurrengo adibide honetan, berriz, hitz anitzeko unitate lexikala dugu gobernatzailea:

- (28) Komeni da haurrek etxean liburuak **irakurtzea**.


Esaldi honi dagokion dependentzia-zuhaitza da III.20 irudikoa.

- **xcomp_obj**

Perpaus osagarri batean, objektu funtzioa betetzen duen adizki ezjokatuzko hitzak hartuko du etiketa hau:

- (29) Begiraleek ohea **egiteko** esan dute.

Aditz-izenean oinarritzen den egitura gehi **-ko** kasu-marka erantsirik duen mendeko perpaus osagarria dugu hau. Bere gobernatzailea perpaus nagusiko **esan** aditza da.



III.20 Irudia: Komeni da haurrek etxeen liburuak irakurtzea esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

aditz_nagusi (- , erroa, esan)
 ncobj (abs, egiteko, ohea, ohea, obj)
 arg_mod (- , egiteko, ohea, obj)
xcomp_obj (konp, esan, **egiteko**, egiteko)

Agindua, eskaera adierazten duten aditzak dira mendekotasun hau eskatzen dutenak.

(30) Leihotik **sartu behar izan** dut etxera.

Partizipioa oinarri duen mendeko perpaus hau, **behar izan** aditzak osagarri modura hartu du, osagarriaren subjektua aditz honen erreferentziakide delako.

aditz_nagusi (- , erroa, behar izan)
 ncmod (abl, sartu, leihotik, leihotik, adlg)
 arg_mod (- , sartu, leihotik, adlg)
xcomp_obj (konp, behar izan, **sartu**, sartu)
 ncmod (ala, sartu, etxera, etxera, adlg)
 arg_mod (- , sartu, etxera, adlg)

(31) Ez dakit zer egin.

Aditz partizipioa den **egin** hitza dugu mendekoa eta bere gobernatzailea perpaus nagusiko **dakit** aditza da.

aditz_nagusia (- , erroa, dakit)
 ncobj (abs, egin, zer, zer, obj)
 arg_mod (- , egin, zer, obj)
xcomp_obj (zhg, dakit, egin, egin)

• xcomp_zobj

Zehar-objektu funtzioa betetzen duen aditz ezjokatuaz osatutako hitzari esleituko diogun etiketa da hau. Hitz honek, gainera, datibo kasumarka izango du:

(32) Haurrek liburuak **irakurtzeari** aberasgarria deritzot.

Perpaus nagusiko **deritzot** aditz trinkoaren mende dago datiboa doan **irakurtzeari** aditz-izena.


aditz_nagusi (- , erroa, deritzot)
 ncssubj (erg, irakurtzeari, haurrek, haurrek, subj)
 arg_mod (- , irakurtzeari, haurrek, subj)
 ncobj (abs, irakurtzeari, liburuak, liburuak, obj)
 arg_mod (- , irakurtzeari, liburuak, obj)
xcomp_zobj (dat, deritzot, **irakurtzeari**, irakurtzeari)

Behin perpaus osagarriak ikusita, mendeko perpaus modifikatzaileak nola aztertuko ditugun adieraziko dugu jarraian.

Perpaus modifikatzaileak

Perpaus modifikatzaileak ere perpaus nagusi batean txertatzen dira; baina perpaus osagarriekin alderatuta, hauek aditzak azpikategorizatzen ez dituen mendeko perpausak dira. Zenbait gramatikatan, gainera, gobernatzaila baten pean ez dauden perpaus hauei *adjuntu* deitzen zaie, osagarrietatik bereizteko, esaterako EGLUn (Euskal Gramatika Lehen Urratsak) (Euskaltzaindia, 1999).

Nahiz eta mendeko perpaus hauek mota askotakoak izan (denborazkoak, moduzkoak, kausazkoak, helburuzkoak, baldintzazkoak, kontzesiozkoak, ondoriozkoak, konparaziozkoak eta erlatibozkoak), bi dependentzia-etiketa eraobiliko ditugu jokatuak diren ala ez kontuan izanik: *cmod* eta *xmod* hurrenez hurren (III.21 irudia).



III.21 Irudia: Mendeko perpaus modifikatzaireen dependentzia-etiketak.

Perpaus osagarrien antzera, perpaus hauetan ere lau eremutan adieraziko dugu bi hitzen arteko dependentzia-erlazioa:

1. Mendeko perpaus mota: denborazkoa (**denb**), moduzkoa (**mod**), kausazkoa (**kaus**), helburuzkoa (**helb**), baldintzakoa (**bald**), kontzesiozkoa (**kont**), ondoriozkoa (**ondo**), konparaziozkoa (**konpa**) eta erlatibozkoa (**erlt**).
2. Mendeko perpausaren gobernatzalea.
3. Mendeko perpauseko gobernatzalea.
4. Erlazio-marka daraman hitza.

Adizki jokatuzko perpaus modifikatzaireak

Aditz jokatua duten mendeko perpaus desberdinak markatzeko baliatuko dugun etiketa da:

- cmod

Adizlagun zein izenlagun funtzioa betetzen duen perpaus modifikatzai-leko gobernatzailearen eta perpaus nagusiko gobernatzailearen arteko erlazioa adieraziko da honen bitartez.

Orokorrean, mendeko perpauseko aditza markatuko dugu etiketa honkin; hau da, aditz laguntzaileak eramango du perpaus modifikatzai-learen adierazgarri den erlazio-marka, baina etiketatze sintaktikoaren ondotik egingo den etiketatze semantikoa dela eta, esanahidun aditza hartuko dugu gobernatzailetzat.

(33) Kurban **agertu** zinenean lagun guztiok geunden.

Denborazko mendeko perpaus jokatu honetako **agertu** aditza, perpaus nagusiko **geunden** aditzaren mende dago, eta mendeko perpauseko **zinenean** aditz laguntzaileari atxikirik dagoen **-nean** erlazio markak adieraziko digu nagusiarekiko lotura hori denborazkoa dela.


aditz_nagusi (- , erroa, geunden)
 ncmod (ine, agertu, kurban, kurban, adlg)
 arg_mod (- , agertu, kurban, adlg)
cmod (denb, geunden, **agertu**, zinenean)
 auxmod (- , agertu, zinenean)
 ncssubj (abs, agertu, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (- , agertu, zu, subj)

Esaldi honi dagokion dependentzia-zuhaitza da III.22 irudikoa.

Moduzko perpausen adierazgarri den (34) adibidean, mota desberdinetako perpausek hartzen duten erlazio-marka bera erabili da; hau da, **-ela** erlazio-marka. Erlazio-marka honek ezaugarritzen dituen beste perpau-sak, perpaus osagarriak, denborazkoak, kausazkoak eta kontzesiozkoak dira. Hala eta guztiz ere, gobernatzen dituzten aditzen arabera bereiz daitezke batzuk besteetatik. Esaterako, (34) adibidean, perpaus nagusiko **dago** aditzak gobernatzen duen mendeko perpausa moduzkoa da.

(34) Ezer **ulertzen** ez duela dago.

Mendeko perpausaren analisia dependentzieta oinarrituta hau izango da:



III.22 Irudia: Kurban agertu zinenean lagun guztiok geunden esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

aditz_nagusi (- , erroa, dago)
ncobj (abs, ulertzen, ezer, ezer, obj)
arg_mod (- , ulertzen, Pro, obj)
cmod (mod, dago, ulertzen, duela)
prtmod (- , ulertzen, ez)
auxmod (- , ulertzen, duela)

Kausazko perpausen adierazle dugu ondokoak:

(35) Biziki poztu zen ezkontzara **gonbidatu** nuelako.

Esaldiaren amaieran ageri den kausazko perpausa dugu. Bi perpausen artean ezartzen den kausa-ondorio erlazioa honela adieraziko dugu:

aditz_nagusi (- , erroa, poztu)
ncsubj (erg, gonbidatu, Pro, Pro, subj)
arg_mod (- , gonbidatu, nik, subj)
ncobj (abs, gonbidatu, Pro, Pro, obj)
arg_mod (- , gonbidatu, hora, obj)
ncmod (ala, gonbidatu, ezkontzara, ezkontzara, adlg)
arg_mod (- , gonbidatu, ezkontzara, adlg)
cmod (kaus, poztu, **gonbidatu**, nuelako)

auxmod (- , gonbidatu, nuelako)

Hau da, perpaus nagusiko **poztu** aditzak gobernatzen du kausazko mendeko perpausa, zeinetan **gonbidatu** aditza mendekoa den eta kausazko erlazio-marka **nuelako** aditza laguntzaileak daraman.

Hurrengo adibidean, subjuntibozko aditz formarekin eratutako helburuzko perpaus jokatua dugu:

- (36) Berehala ezabatu zenuen beste inork **irakurri** ez zean.

Betiko moduan, perpaus nagusiko **ezabatu** aditzak gobernatzen duela mendeko perpauseko gobernatzalea den **irakurri** aditza adierazi dugu mendekoari esleitu diogun dependentzia-etiketan:

aditz_nagusi (- , erroa, ezabatu)
 detmod (- , inork, beste)
 ncsbj (erg, irakurri, inork, inork, subj)
 arg_mod (- , irakurri, inork, subj)
cmod (helb, ezabatu, **irakurri**, zean)
 prtmod (- , irakurri, ez)
 auxmod (- , irakurri, zean)
 ncobj (abs, irakurri, Pro, Pro, obj)
 arg_mod (- , irakurri, hora, obj)

Helburuzko perpausak ez ezik, perpaus osagarriak ere osa daitezke subjuntibozko aditz formekin. Beraz, kontuan izan behar da perpaus osagarria eskatzen duten aditz multzotik kango geratzen direnak direla helburuzko hauetako gobernatuko dituztenak.

Baldintzazko perpausen adierazle dugu ondoko hau:

- (37) Hiri maisuak egurra **emango** balik, zer egingo huke?

Adibide honetan argi ikusten den moduan, baldintzazko perpausen, perpaus nagusiko ekintza bete dadin, ezinbestekoa da mendeko perpausak ezartzen dituen baldintzak betetzea. Beraz, perpaus konposatu honetan, bi hitzen arteko dependentzia-erlazioan, **egin-go** aditza da gobernatzalea eta **emango** aditza mendekoa.

aditz_nagusi (- , erroa, egingo)
 ncobj (dat, emango, hiri, hiri, zobj)
 arg_mod (- , emango, hiri, zobj)

ncsubj (erg, emango, maisuak, maisuak, subj)
 arg_mod (- , emango, maisuak, subj)
 ncobj (abs, emango, egurra, egurra, obj)
 arg_mod (- , emango, egurra, obj)
cmod (bald, egingo, **emango**, balik)
 auxmo (- , emango, balik)

Nola ez, mendeko aditz laguntzaileak erantsirik duen **ba-** aurritzia edo erlazio-marka dugu mota honetako perpausen adierazlerik esanguratsuena.

Ondoriozko perpausari dagokion adibidea dugu beste hau:

- (38) Hainbeste aldiz entzun dugu bere harrotasun orroea metro-goldwyn-mayer filmeetan ez genukeela bere nagusitasuna sekula zalantzan **jarriko**.

Adibide honetan bi gertakizun adierazten dira, non bata bestearren ondorio den. Ondorio hori maila-hitz batekin erlazionatuta dago: **hainbeste**. Maila-hitza perpaus nagusian dugu, eta honen parean, eta erlazioan, perpaus txertatua. Horrela, bada, perpaus nagusiko entzun aditzak ondoriozko perpuseko **jarriko** aditza gobernatuko luke. Baino egitura hauetan aditz laguntzaileak daraman **-ela** erlazio-marka gramatiketan okertzat jotzen denez, azterzeke utziko dugu eta okerren artean multzokatuko dugu lehen urrats honetan.

Perpaus modifikatzaileen barruan azaldu ditugun orain arteko perpausen adizlagun funtzioa betetzen dute. Horiekin batera sailkatu ditugu izenlagunaren funtzioa duten perpaus erlatiboak. Hauek, gainerako perpaus modifikatzaileak ez bezala, izen kategoriako hitzaren mende egongo dira ordea. Adibidez,

- (39) Eta dena kasualitatez hasi zen, bus hartako kristalean **idatzi** nuen esaldiarekin.

Perpaus erlatiboa, izenlaguna denez, laguntzen dion izenaren ezkerretara joaten da normalean. Adibide honetan, hain zuzen ere, bere gobernatzailea den **esaldiarekin** izenaren ezkerretara dago. Perpaus erlatiboori dagokion **-en** erlazio-marka, berriz, mendeko perpuseko **idatzi** aditzaren mende dagoen **nuen** aditz laguntzaileak

darama. Bestalde, azpimarratu behar da erlatibozko esaldietan erreferentziakide den eta esplizitu ageri ez den hitza adieraziko dugula PROren bitartez. Ikus dezagun analisia:

```

aditz_nagusi ( - , erroa, hasi)
detmod (- , bus, hartako)
ncmod (gel, kristalean, bus, hartako)
ncmod (ine, idatzi, kristalean, kristalean, adlg)
arg_mod ( - , idatzi, kristalean, adlg)
ncsubj (erg, idatzi, Pro, Pro, subj)
arg_mod ( - , idatzi, nik, subj)
ncobj (abs, idatzi, PRO, PRO, obj)
arg_mod ( - , idatzi, esaldia, obj)
cmod (erlt, esaldiarekin, idatzi, nuen)
ncmod (soz, hasi, esaldiarekin, esaldiarekin, adlg)
arg_mod ( - , hasi, esaldiarekin, adlg)

```

Analisi honetan, gobernatzailari dagokion etiketaren bigarren eremuan, izen kategoriako **esaldiarekin** hitza agertzen da eta ez aditza. Perpausaren analisi osoaren ondorio da III.23 irudiko dependentzia-zuhaitza.

Perpaus bakuna aztertzerakoan ikusi dugun bezala, sintagmako gobernatzaila izenordain kategoriako hitza ere izan daiteke; hau da, perpaus erlatiboa izenordainaren mende egon daiteke:


(40) ..., baimenik ez **duen** norbaiti eskatzen diote kaldera jartzeko.

```

aditz_nagusi ( - , erroa, eskatzen)
ncsubj (erg, duen, PRO, PRO, subj)
arg_mod ( - , duen, norbaitek, subj)
ncobj (par, duen, baimenik, baimenik, obj)
arg_mod ( - , duen, baimenik, obj)
prtmod ( - , duen, ez)
cmod (erlt, norbaiti, duen, duen)
nczobj (dat, eskatzen, norbaiti, norbaiti, zobj)
arg_mod ( - , eskatzen, norbaiti, zobj)

```

Nolanahi ere, kontzesiozko eta konparaziozko perpausen konplexutasuna kontuan izanda, III.6 atalean azalduko dugu erabakitakoa.



III.23 Irudia: **Eta dena kasualitatez hasi zen, bus hartako kristalean idatzi nuen esaldiarekin** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

Adizki ezjokatuzko perpaus modifikatzailak

Aditz ezjokatuez osatutako mendeko perpaus modifikatzailak markatzeko etiketa hau erabiliko dugu:

- xmod

Perpaus osagarrietan ikusi dugun bezala, aditz ezjokatuez osatutako perpaus modifikatzaila gehienak, aditz-izenaz edo aditz-partizipioa eta kasu-markaz osatutakoak ditugu.

Adibidez, (41) perpausa aditz-izen baten bidez nominalizatutako per-


pausa dugu eta inesibo kasu-marka eranstean denborazko erlazio-marka sortu da:

- (41) Etxera **iristean** kontatuko dizut guztia.

Adibide honetan, denborazko erlazio-marka daraman **iristean** aditz ezjokatua, perpaus nagusiko **kontatu** aditzaren mende dago. Mendenko perpuseko hitzen arteko dependentzia-erlazioak honela adieraziko ditugu:

aditz_nagusi (- , erroa, kontatuko)
ncmod (ala, iristean, etxera, etxera, adlg)
arg_mod (- , iristean, etxera, adlg)
xmod (denb, kontatu, **iristean**, iristean)

Esaldi honen dependentzia-zuhaitza III.24 irudikoa da.



III.24 Irudia: **Etxera iristean kontatuko dizut guztia** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

Ondoko adibidea, berriz, partizipioari **-rik** atzizkia erantsiz sortu den moduzko perpausa dugu:

- (42) Ez daude zorrozk **ordenaturik**.

Mendekoari esleitu diogun dependentzia-etiketaren adierazpidean irakur daitekeen bezala, mendekoa den **ordenaturik** hitza, **daude** perpaus nagusiko aditzaren mende dago:

aditz_nagusi (- , erroa, daude)
 ncmod (- , ordenaturik, zorrozki, zorrozki)
xmod (mod, daude, **ordenaturik**, ordenaturik)

Hurrengo adibidean, aditz-izenaz gehi motibatibo kasu-markaren bitartez osatutako kausazko perpausa, bere eskuinera dagoen perpaus nagusiko **apurtu** aditzaren mende dago.

- (43) Kontuz ez **ibiltzeagatik** apurtu zaizu.

Honetan ere modu berean adieraziko da bi hitzen arteko erlazioa:

aditz_nagusia (- , erroa, apurtu)
 ncmod (- , ibiltzeagatik, kontuz, kontuz)
 prtmod (- , ibiltzeagatik, ez)
xmod (kaus, apurtu, **ibiltzeagatik**, ibiltzeagatik)

Helburuzko perpaus ezjokatua **-tzeko** formak ezaugarritzen du ondoko adibidean:

- (44) Orioko trainerua berriro lehen postuetara **eramateko** ekarri zaituzte.

Mendeko perpausaren gobernatzailea (**eramateko**) bere eskuinera dagoen perpaus nagusiko **ekarri** aditzaren mende dago, esleitu diogun dependentzia-etiketak jasotzen duen bezala:

aditz_nagusi (- , erroa, ekarri)
 ncmod (gel, trainerua, Orioko, Orioko)
 ncobj (abs, eramateko, trainerua, trainerua, obj)
 arg_mod (- , eramateko, trainerua, obj)
 ncmod (- , eramateko, berriro, berriro)
 detmod (- , postuetara, lehen)
 ncmod (ala, eramateko, postuetara, postuetara, adlg)
 arg_mod (- , eramateko, postuetara, adlg)
xmod (helb, ekarri, **eramateko**, eramateko)

Perpaus jokatuekin gertatzen den bezala, ezjokatuetan ere baditugu menderagailu askeez osatutakoak. Beraz, atal honetan azaltzeke utzi ditugun baldintzazko, kontzesiozko, ondoriozko eta konparaziozko perpausei III.6 atalean eskainiko diegu tartea, lehen esan bezala.

Azkenik, multzo berekoak ditugu aditz jokatugabeez osatutako perpaus erlatiboak. Hauen ezaugarri dira **-tako**, **-dako** eta **-riko** erlazio-markak eta partizipio burutua. Eta erlatibozko jokatuak bezala izen kategorialko hitzaren mende daude:

- (45) Txita oiloak **errundako** arrautzatik jaiotzen da.

Perpaus erlatiboa den neurrian, aditz ezjokatua (**errundako**) bere eskuinean dagoen izenaren mende dagoela adierazten da analisi honetan:


aditz_nagusi (-, erroa, jaiotzen)
ncsubj (erg, errundako, oiloak, oiloak, subj)
arg_mod (-, errundako, oiloak, subj)
ncobj (abs, errundako, **PRO**, PRO, obj)
arg_mod (-, errundako, arrautza, obj)
xmod (erlt, arrautzatik, **errundako**, errundako)

Aposizio- eta predikazio-perpausak

Aposizio- eta predikazio-perpausak perpaus osagarri eta modifikatzaile sailkapenetik kanpo utzi ditugu. Aparteko multzoan sailkatzeko eragina izan dute batetik, zenbait egitura tarteki gisa agertu izanak; hau da, komen artean ageri izana esaldi bat argitu edo osatzeko azalpen gisako beste esaldi bat. Eta bestetik, mota honetako perpausak eskatzen dituzten aditzek.

Perpaus egitura hauetan markatzeko erabiliko ditugun etiketetan ere (III.25 irudia) lau eremutan adieraziko dugu bi hitzen arteko mendekotasuna:

1. Hutsik.
2. Gobernatzaila; hots, sintagma horretako gobernatzaila.
3. Aposizioan edo predikazioan dagoen perpauseko gobernatzaila.
4. Erlazio-marka daraman hitza.



III.25 Irudia: Aposizio- eta predikazio-perpausen dependentzia-etiketak.

- apocmod

Aposizioan doan perpaus jokatua markatuko dugu etiketa honekin. Jakin da, aposizio modura erabiltzen diren perpaus modifikatzaileak aurretik aipatua izan den sintagma bati buruz zuzenduak direla.


- (46) Ikasleen, azterketa **gainditu** ez dutenen kexa neurriz kanpokoa da.

Azertu dugun laginean, izenlagunaren aposizio gisa agertzen den perpaus erlatiboko **gainditu** hitzari esleituko diogu dependentzia-etiketa hau, eta erreferentzia egiten dion perpaus nagusiko **Ikasleen** izenlagunaren mendekoa izango da:

aditz_nagusi (- , erroa, da)
 ncmod (gen, kexa, ikasleen, ikasleen)
 ncobj (abs, gainditu, azterketa, azterketa, obj)

arg_mod (- , gainditu, azterketa, obj)
apocmod (- , ikasleen, gainditu, dutenen)
 prtmod (- , gainditu, ez)
 auxmod (- , gainditu, dutenen)

Analisi hau dependentzia-zuhaitz modura irudikatu da III.26 irudian.



III.26 Irudia: **Ikasleen, azterketa gainditu ez dutenen kexa neurriz kanpokoa da** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

- apoxmod

Aposizioan doan perpaus ezjokatua:

- (47) Zuk zure ihesbideak aurkitu behar dituzu: kamioien atzean **gorde** instrukziorik ez egiteko...

aditz_nagusi (-, erroa, behar dituzu)

ncmod (ine, gorde, kamioien_atzean, kamioien_atzean, adlg)
 arg_mod (- , gorde, kamioien_atzean, adlg)
apoxmod (- , ihesbideak, **gorde**, gorde)
 ncobj (par, egiteko, instrukziorik, instrukziorik, obj)
 arg_mod (- , egiteko, instrukziorik, obj)
 prtmod (- , egiteko, ez)
 xmod (helb, gorde, egiteko, egiteko)

- xpred

Adizki jokatugabeko predikazio-perpausak markatzeko erabiliko dugu hau.

(48) Zernahi lor dezakegulako ustea hezur muinetaraino **sartua** dugu.

aditz_nagusi (- , erroa, dugu)
 ncmod (- , muinetaraino, hezur, hezur)
 ncmod (abu, sartua, muinetaraino, muinetaraino, adlg)
 arg_mod (- , sartua, muinetaraino, adlg)
xpred (- , dugu, **sartua**, sartua)

Dependentzia-etiketaren lehen eremuan erlazio balioa markatzen ez denez, perpausen artean salbuespentzat har daitezke hauek.

III.5.2.2 Testu-mailako kohesioa

Perpausez gaindi, testu mailako kohesioa lokailuen bitartez lortzen da. Nolabait perpaus batek aurrekoarekin duen lotura (esanahiari dagokion lotura, baina ez egiturazkoa) adierazteko, ondoko dependentzia-etiketa erabiliko dugu:

- lot_at

Bertan, hiru eremuetan jasoko dugu informazioa:

1. Hutsik.
2. Perpausaren abiapuntuko adabegia (*erroa*), bertatik zintzilikatuko baita osagai hau.
3. Perpausetik kanpoko lotura adierazten duen osagaia; hots, lokailua.


Adibidez,

- (49) **Beraz**, telefonora joan naiz.

Aipaturiko informazio hori honela jasoko litzateke analisi honetan:

aditz_nagusi (- , erroa, joan)
lot_at (- , erroa, **beraz**)

Ondoriozko **beraz** lokailuaren bitartez, aurreko perpausari egiten zaio erreferentzia. Etiketatze-lan honetan, puntu ezarri dugunez perpausen arteko mugatzat, lokailu hau abiapuntuko adabegitik zintzilikatu da adibideari dagokion III.27 irudiko dependentzia-zuhaitzean ikus daitekeen moduan.



III.27 Irudia: **Beraz, telefonora joan naiz** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

Tesiko atal honetan azaldu ditugun dependentzia-etiketak dira euskarazko perpausen egiturak hitzen arteko gobernatzale/mendeko erlazioaren arabera deskribatzeko definitu ditugunak. Deskripzio formal horiek corpusaren gainean aplikatzerakoan, ordea, hainbat arazo sortu dira: koordinazioa, elipsia eta elementu ezjarraituak. Horien aurrean nola jokatu dugun edo hartu ditugun erabakiak, III.6 atalean azalduko ditugu.

III.6 Erabaki praktikoak

Euskarazko egitura sintaktikoak dependentzia-ereduaren bitartez adieraztea zail gertatu zaigu zenbaitetan. Horren aurrean eta agertu zaizkigun egitura

guztiei irtenbidea emateko helburuarekin, erabaki batzuk hartu behar izan ditugu. Kontuan izan behar dugu askotan erabakia ez dugula hartu soilik ikuspegি linguistikotik, baizik eta ondoren egingo den analisi automatikoa ere aintzat hartu dugula.

1. Koordinazioa

Teorian, dependentzia-eredura okerren egokitzen den egitura da hau. Horren adierazle dugu hizkuntza desberdinetan irtenbideak berdinak ez izatea.

Hartutako irtenbideak bi dira orokorrean:

- Elkartzen diren bi elementuetako bat aukeratzen da gunetzat (*Le Monde* corpusa (Abeillé *et al.*, 2003)).
- Koordinaturiko bi elementuak biltzen dituen beste adabegi bat txertatzen da (*Prague Dependency Treebank* (Hajic, 1998); *The Penn Treebank* (Marcus *et al.*, 1993)).

Euskararen kasuan, lehen urrats honetan, juntadura bideratzen duen juntagailua hartu da adabegitzat eta honen mendeko, berriz, juntatzen diren hitzak. Era honetara, maila berekoak direla adieraztea lortu dugu. Esaterako, III.28 irudian, sintagma-mailako juntadura irudikatu dugu.


Juntadura edo koordinazioa adierazteko dependentzia-etiketa hau da:

- lot

Dependentzia-etiketa honen adierazpidean hiru eremu zehaztu ditugu:

1. Juntagailu-mota: emendiozkoa (emen), hautakaria (haut) edo aurkaritzakoa (aurk).
2. Maila bereko perpausak edo sintagmak elkartzen dituen juntagailua.
3. Elkartzen den hitzetako bat.

Ondoko adibide honetan, (50) adibidean, ikus daitekeen bezala, kasu hauetan loturazko bi dependentzia-etiketa esleituko dira; hau da, elkartzen dituen hitz bakoitzeko bat.



III.28 Irudia: Gizon polifazetiko eta inbentore handi honek linternak magikoa sortu zuen esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

(50) Horixe zen **magoak** eta **nik** genuen sekretua.

Hemen, izen eta izenordain kategoriako bi hitz elkartu ditugu emendiozko juntagailuaren bitartez: **magoak** eta **nik**. Halaber, mendeko perpauseko aditzak **eta** juntagailua gobernatuko du:

- aditz_nagusi (- , erroa, zen)
- ncsubj (abs, zen, horixe, horixe, subj)
- arg_mod (- , zen, horixe, subj)
- ncsubj** (erg, genuen, **eta**, nik, subj)
- lot** (emen, eta, **magoak**)
- lot** (emen, eta, **nik**)
- ncobj (abs, genuen, PRO, PRO, obj)
- arg_mod (- , genuen, sekretua, obj)

cmod (erlt, sekretua, genuen, genuen)
 ncpred (abs, zen, sekretua, sekretua, pred)
 arg_mod (- , zen, sekretua, pred)

Perpausen arteko juntadura gertatzen denean, berriz, juntagailua zintzilikatuko dugu *erroa* adabeginik:

- (51) Mikelek bazkaria **prestatzen** du **eta** Jonek ontziak **garbitzen** ditu.

Emendiozko juntagailuaren bitartez elkartu diren bi perpausen analisia hau da:


aditz_nagusi (- , **erroa**, **eta**)
 ncsbj (erg, prestatzen, Mikelek, Mikelek, subj)
 arg_mod (- , prestatzen, Mikelek, subj)
 ncobj (abs, prestatzen, bazkaria, bazkaria, obj)
 arg_mod (- , prestatzen, bazkaria, obj)
 auxmod (- , prestatzen, du)
lot (emen, **eta**, **prestatzen**)
lot (emen, **eta**, **garbitzen**)
 ncsbj (erg, garbitzen, Jonek, Jonek, subj)
 arg_mod (- , garbitzen, Jonek, subj)
 ncobj (abs, garbitzen, ontziak, ontziak, obj)
 arg_mod (- , garbitzen, ontziak, obj)
 auxmod (- , garbitzen, ditu)

Analisi honi dagokion III.29 irudiko dependentzia-zuhaitzean ikus-ten den moduan, bi perpausak juntatzen dituen **eta** gobernatzailea *erroa* adabeginik zintzilikatu dugu.

2. Dependentzia-etiketa lagungarriak

Analisi sintaktikoa hitzez hitzekoa denez, gramatika mailako egiturek, hots, semantikoki edota sintaktikoki unitate gisa jokatzen duten hitz anitzeko egiturek (postposizio konplexuak, entitateak, hitz anitzeko unitate lexikalak eta menderagailu konplexuak), tratamendu apartekoa behar dute unitate gisa ezagutu ahal izateko analisi-katean. Abiapuntuan tratamendu hori egina ez badago, horiek ere dependentzia-mailan bateratu behar dira.

Horrenbestez, unitatetasun hori dependentzien bidez adierazteko etiketa lagungarriak sortu ditugu: *postos*, *entios*, *haos* eta *menos*. Dependentzia-



III.29 Irudia: **Mikelek bazkaria prestatu du eta Jonek ontziak garbitu ditu** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

etiketa lagungarriak deitu ditugu ez direlako propio dependentzia-erlazioak adierazteko, hitzak lotzeko baizik.

- postos

Postposizio konplexuaren osagaia dela adierazi nahi dugu. Honi dagokion adierazpidea hau da:

1. Bi hitzen arteko lotura bideratzen duen kasu-marka.
2. Postposizio konplexuko gobernatzaila. Gobernatzailertzat eskuineko postposizio-osagaia hartuko dugu.
3. Gobernatzaille honek gobernatzen duen postposizio konplexuko mendeko hitza; hau da, ezkerreko postposizio-osagaia.

Adibidez,

(52) **Etxetik at** bidali dute.

aditz_nagusi (- , erroa, bidali)


postos (abl, at, **etxetik**)

ncmod (- , bidali, at, at)

ncsubj (erg, bidali, Pro, Pro, subj)

arg_mod (- , bidali, haiek, subj)
 ncobj (abs, bidali, Pro, Pro, obj)
 arg_mod (- , bidali, hora, obj)
 auxmod (- , bidali, dute)

Adibide honi dagokion III.30 irudian argi ikus daiteke postposizio konplexuko hitzen arteko erlazioa.



III.30 Irudia: **Etxetik at bidali dute** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

- entios

Entitatea, leku/erakunde-izena edota lege/pertsona-izena adierazten duen osagaietako bat da. Bere adierazpidea hau da:

1. Hutsik.
2. Entitateko gobernatzalea. Gobernatzailertzat eskuineko entitate osagaia hartuko dugu.
3. Gobernatzale honek gobernatzen duen entitatearen mendeko hitza; hau da, ezkerreko entitate-osagaia.

Adibidez,

- (53) **Euskal Zuzenbidearentzat** oso garrantzitsua da **Foru Zuzenbide Zibil** hori.

Adibide honetan entitate diren bi egitura ageri dira; lehena (**Euskal Zuzenbidearentzat**) unitate gisa landuta dago dependentziak pasa aurretik; baina bigarrena ez. Beraz, lehenari dagokion dependentzia-etiketan perpauseko gobernatzaileare-kiko duen dependentzia-erlazioa adieraziko da, eta bigarrenarentzat, berriz, hemen azaldu berri dugun *entios* etiketa era-biliko dugu:

aditz_nagusi (- , erroa, da)
ncmod (des, da, **Euskal Zuzenbidearentzat**, Euskal Zuzenbidearentzat, adlg)
arg_mod (- , da, Euskal Zuzenbidearentzat, adlg)
gradmod (- , garrantzitsua, oso)
ncpred (abs, da, garrantzitsua, garrantzitsua, pred)
arg_mod (- , da, garrantzitsua, pred)
entios (- , Zibil, **Foru Zuzenbide**)
ncsubj (abs, da, **Zibil**, hori, subj)
detmod (- , Zibil, hori)

Bi hitz baino gehiagoko entitatea denean, ezkerreko aldetik etiketatzan hasiko gara, beti bi hitzen arteko lotura eginez.

- haos

Hitz anitzeko unitate lexikalaren osagaia.

Honetan ere hiru eremutan jasoko dugu hitzen arteko erlazioaren deskripzioa:

1. Hutsik.
2. Hitz anitzeko unitate lexikalaren eskuineko osagaia.
3. Aztergai dugun hitz anitzeko unitate lexikalaren ezkerreko osagaia.

Beraz, kontuan izan behar dugu, hitz anitzeko unitate lexikalen analisia ezkerretik eskuinera egingo dugula, eta eskuineko azken hitza izango dela perpauseko gobernatzailearen mende egongo de-na. Adibidez,

- (54) **Halaz ere** Eusko Jaurlaritzak gai honi dagozkion konpeten-tziak bereganatu ditu.

aditz_nagusi (- , erroa, bereganatu)
haos (- , ere, **halaz**)

lot_at (- , erroa, **ere**)

ncsubj (erg, bereganatu, Eusko Jaurlaritzak, Eusko

Jaurlaritzak, subj)

arg_mod (- , bereganatu, Eusko Jaurlaritzak subj)

nczobj (dat, dagozkion, gai, honi, zobj)

detmod (- , gai, honi)

arg_mod (- , dagozkion, gai, zobj)

ncsubj (- , dagozkion, PRO, PRO, subj)

arg_mod (- , dagozkion, konpetentziak, subj)

cmod (erlt, konpetentziak, dagozkion, dagozkion)

ncobj (abs, bereganatu, konpetentziak, konpetentziak, obj)

arg_mod (- , bereganatu, konpetentziak, obj)

auxmod (- , bereganatu, ditu)

Adibide honetan, hitz anitzeko lehen osagaia (**halaz**) hitz anitzeko bigarren osagaiaren (**ere**) mende dago. Bigarren honek, halaber, lokailuaren funtzioa betetzen du.

- menos

Menderagailu konplexuen osagaia. Bertan, hiru eremutan jasoko dugu informazioa:

1. Hutsik.
2. Menderagailu konplexuko gobernatzailea.
3. Menderagailu konplexuko mendeko hitza.

Dependentzia-etiketa honen bitartez, menderagailu ez-askeez eta menderagailu hauek aurretik hartzen duten flexio-elementuez osatzen diren egiturak bateratuko ditugu. Horien artean ditugu, bestekatzea beste, aurreko atalean aztertzeke utzi ditugun kontzesiozko perpausak. Adibidez,

(55) Ondo **jokatu duten arren galdu** egin dute.

Adibide honetako menderagailu konplexua honela etiketatuko dugu:

aditz_nagusi (- , erroa, galdu)


ncmod (- , jokatu, ondo, ondo, adlg)

cmod (kont, galdu, **arren**, **arren**)

menos (- , arren, **jokatu**)

auxmod (- , jokatu, duten)

Esaldi honi dagokion III.31 irudian ikus daitekeen moduan, perpaus nagusiko **galdu** aditzaren mende menderagailu askearen osagai bat dago: **aren**. Honek, era berean, mendeko perpauseko **jokatu** aditza gobernatzen du, eta **-n** erlazio-marka daraman **duten** aditz laguntzailea mendeko perpauseko **jokatu** aditzaren mende dago.



III.31 Irudia: Ondo jokatu duten arren galdu egin dute esaldiaren dependentziazuhaitza.

Honen antzera aztertuko ditugu menderagailu askeak dituzten gainerako mendeko perpausak. Beste adibide bat ematearren, hona baldintzazko perpausari dagokiona:

- (56) Gizona behin **itzuliz gero**, Kama Jainkoa gurtuko du.
 Kontuan hartuta **-z gero** dela baldintzazko menderagailua eta **-z** erlazio-morfema esanahia duen aditzari itsatsirik agertzen dela, mendeko perpauseko **gero** aditzondoa da gobernatzailea eta perpaus nagusiko **gurtuko** aditzaren mende dagoena kontzesio-perpausekin egin dugun moduan:

aditz_nagusi (- , erroa, gurtuko)
 nesubj (abs, itzuliz, gizona, gizona, subj)
 arg_mod (- , itzuliz, gizona, subj)
 ncmod (- , itzuliz, behin, behin, adlg)
xmod (bald, gurtuko, **gero**, gero)
menos (- , gero, **itzuliz**)

3. Hitz bera egitura desberdinetan

Esaldiko hitz bat postposizio konplexuaren osagaia denean, eta era berean, hitz anitzeko unitate lexikalarena, azken honen osagaitzat hartuko dugu. Adibidez,

- (57) Antonio Izaren **alde** zegoen.

Adibide honetan, postposizio konplexua **-en alde** dugu batetik, eta bestetik **alde zegoen** hitz anitzeko unitate lexikala. Bi egitura horietan **alde** hitza dugu. Horrelakoetan, aditza unitate gisa hartuko dugu; beraz, kasu honetan esaldiaren gobernatzailea **alde zegoen** da eta genitiboan doan hitza, **Antonio Izaren** entitatea, aditz honen mendekoa:

aditz_nagusi (- , erroa, **alde zegoen**)
 ncmod (gen, alde zegoen, Antonio Izaren, Antonio Izaren)
 nesubj (abs, zegoen, Pro, Pro, subj)
 arg_mod (- , zegoen, hora, subj)

4. Konparaziozko perpausak

Oro har, konparazio perpausak izen sintagmaren, adjektibo sintagmaren edota adberbio sintagmaren barnean txertaturik agertu ohi dira. Beraz, perpaus nagusiko hitz baten osagai dira, perpaus erlatiboak perpaus nagusiko hitz batenak diren bezalaxe. Horrenbestez, konparatzten den ezaugarria perpaus nagusiko osagaitzat joko dugu, eta honen mendekoa izango da konparaziozko perpausa. Adibidez,


- (58) **Hori baino serioagoa** naiz ni.

adit_nagusi (- , erroa, naiz)
ncsubj (abs, baino, **hori**, hori, subj)
lot (konpa, serioagoa, baino)
ncpred (abs, naiz, **serioagoa**, serioagoa, pred)

arg_mod (- , naiz, serioagoa, pred)
 ncsbj (abs, naiz, ni, ni, subj)
 arg_mod (- , naiz, ni, subj)

Adibide honetan, **serioagoa** da perpaus nagusiko osagaia. Halaber, bere mendekoa da desberdintasuna adierazten duen **baino** hitza, zeini *lot* dependentzia-etiketa esleitu diogun. Etiketa honetako lehen eremuan konparaziozko perpausa dugula adierazten duen *konpa* ezaugarria ipini dugu; hots, perpausaren analisia eman diogu. Azkenik, **bainoren** mende beste konparaburua dago: **hori**.

Esaldi honi dagokion dependentzia-zuhaitza da III.32 irudikoa.



III.32 Irudia: **Hori baino serioagoa naiz ni** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

Azken batean, Euskaltzaindiak (1999) dioen moduan, perpaus hauetan konparazio morfemak nolabaiteko zibilana egiten du, batetik, bera delako sintagma konparatiboaren burua eta bestetik, perpaus nagusiko osagai baten osagai bihurtzen delako.

5. Perpaus osagarrien funtzio sintaktikoa

Perpaus osagarrieta edo konpletiboetan badira zenbait egitura zalan-tzagariak izan daitezkeenak. Kontu hori argitze aldera, Artiagoitiak (2003) dioenari jarraitu diogu deskripzioa osatzeko edo zehazteko. Ikus dezagun:

- (59) Zuen harremanak egunetik egunera hotzagoak **zirela** konturatu nintzen.

Adibide honetako perpaus osagarriaren gobernatzailea **nor** paradigmako aditza izanik (**konturatu**), pentsa daiteke mendeko perpausak subjektu funtzioa betetzen duela; baina ez da horrela. Izan ere, esaldian esplizitu ageri ez den **ni** pertsona-izenordaina da subjektua eta ez mendeko perpaus osagarri hau. Zein funtzio betetzen du orduan?

Objektu funtzioa betetzen duten perpusez ari dela, Artiagoitiak (2003) dioen moduan, badira aditz gutxi batzuk perpaus osagarri jokatuak azpikategorizatzen dituztenak, nahiz eta aditz laguntzai-lea iragangaitza izan. Eta zerrendatzen dituen aditzak dira: *konturatu, ohartu eta gogoratu*. Aztergai dugun perpausa dugu horren adibide; beraz, hori guztia kontuan izanik, horrelakoak objektutzat hartzea erabaki dugu eta modu honetara etiketatzea:

- aditz_nagusi (- , erroa, konturatu)
- ncmod (gen, harremanak, zuen, zuen)
- ncsubj (abs, zirela, harremanak, harremanak, subj)
- arg_mod (- , zirela, harremanak, subj)
- ncmod (abl, zirela, egunetik, egunetik, adlg)
- arg_mod (- , zirela, egunetik, adlg)
- ncmod (ala, zirela, egunera, egunera, adlg)
- arg_mod (- , zirela, egunera, adlg)
- ncpred (abs, zirela, hotzagoak, hotzagoak, pred)
- arg_mod (- , zirela, hotzagoak, pred)
- ccomp_obj** (konp, konturatu, **zirela**, zirela)
- auxmod (- , konturatu, nintzen)
- ncsubj (abs, konturatu, Pro, Pro, subj)
- arg_mod (- , konturatu, ni, subj)

Analisiaren irakurketa eginez, mendeko perpuseko **zirela** aditz trinkoak darama perpaus osagarri jokatuen ezaugarri den **-ela** erlazio-

marka. Hitz hau perpaus nagusiko **konturatu** aditzaren mendekoa da, eta esan bezala, objektu funtzioa du.

6. Anbiquotasuna

Hitz baten gobernatzailea esaldiko hitz bat edo beste bat izan daitekeenean gertatzen den anbiquotasunari irtenbidea ematearren, urrats honetan, egitura horren analisi bakarra egitea erabaki dugu.

- (60) Europako Batzordeak, berriz, beste modu bat aholkatu zuen **urtarrilean** herritar kopuruarekiko proportzionaltasuna lortzeko.

Adibide honetan, **urtarrilean** hitza bere ezkerrera dagoen **aholkatu** aditzaren mendekoa izan daiteke, edota bere eskuinera agertzen den **lortzeko** aditz-izenarena. Horrelakoetan etiketatzaleak erabakiko du zein analisi emango dion; baina esan bezala, bakarra aztertuko dugu.

7. Elipsia


Elipsiari dagokionez, esan bezala, aditzarekin komunztadura egiten duten eta esplizitu ageri ez diren **nor**, **nori** eta **nork** kasu-markei dagozkien hitzak eta erlatibozko perpausetako erreferentzia-izenak etiketatuko ditugu lehen urrats honetan. Gainerako kasuetan saihestu egingo dugu elipsia. Horrela, bada, (61) adibideko moduko erlatibozko perpausetan, normala da izen-ardatza isildurik izatea; hau da, izenlaguna dugunez, elipsia gerta daiteke. Kasu horietan, elipsia saihestuko dugula erabaki dugunez, ez dugu erlatibozko perpaustzat hartuko, baizik eta bukaerako azken kasuari erreparatuz, osagarritzat edo adizlaguntzat. Kasu honetan objektu funtzioa duen osagarria genuke:

- (61) Ulertzen ez duzuena galdetu beldurrik gabe.

aditz_nagusi (-, erroa, galdetu)
cmod (erlt, duzuena, ulertzen, ulertzen)
ncmod (neg, ulertzen, ez, ez)
ncobj (abs, galdetu, **duzuena**, duzuena, obj)

Bestalde, perpaus koordinatuetan, juntatzen diren perpaus edo sintagma horietako bat elidituta dagoenean, elipsiari dagokion adabegia eza batu eta juntadura markatzen duen adabegitik zintzilikatuko dugu elipsiaren mende legokeen hitza. Esaterako, III.33 irudian, **Ezkontideetako**

bat alargun geratzen denean eta seme-alaben tutoretzarekin, seme-alaben ondasunen inventarioa aurkeztu behar die hildakoaren ahaideei esaldiaren lehen zatiaren bi analisiak ageri dira: lehena (I), elipsia markatuz eta bigarrena (II), esplizitu ageri diren hitzak markatuta. Bigarren analisi horretan ikus daitekeen moduan, **eta** juntagailutik zintzilikatu dugu **tutoretzarekin** hitza.



III.33 Irudia: **Ezkontideetako bat alargun geratzen denean eta seme-alaben tutoretzarekin** esaldiaren dependentzia-zuhaitza.

III.7 Abar-Hitz zuhaitz-editorea

Corpusaren eskuzko etiketatze sintaktikoa lan nekeza izateaz gain, lortzen den emaitza ez da erabat fidagarria, etiketatze-prozesuan zenbait errore egindaitezkeelako: dependentzia-etiketa bakoitzean behar baino eremu kopuru gehiago edo gutxiago definitu, eremuetaiko balioak nahastu, e.a. Gainera, corpus handiagoak erabiltzen diren neurrian, handitu egiten da hizkuntzalariek

errorea egiteko probabilitatea edo antzeko fenomenoak modu desberdinean tratatzeko arriskua.

Horretaz jabeturik eta merkaturatu diren corpusgintza-tresna urriek euskararen prozesamendu automatikorako beharrezkoak diren tresnak eta balia-bideak integratzen ez dituztela ikusirik, euskarako corpora eskuz sintaktiko-ki etiketatzen laguntzeko tresna informatikoa diseinatzea eta implemetatzea erabaki zen: *Abar-Hitz* (Díaz de Ilarrazá *et al.*, 2004).


Tresna horiek ezin baliatu izan genituen, batetik zail gertatu zitzaigulako etiketatze-eskema hauetara egokitzea, eta bestetik, osagaietan oinarritutakoak direlako eta ez dependentzieta. Lehenengo artean ditugu *TrEd* zuhaitz-editoreoa⁷ eta @nnotate tresna (Plaehn eta Brants, 2000), txequierako *Prague Dependency Treebank*ko etiketatze sintaktikoa eta tektogramatikala gauatzeko eta alemaneko *NEGRA Corpusa* etiketatzeko erabili direnak, hurrenez hurren. Bigarrenean, berriz, *TREPIL Treebanking Interfacea* (Rosén *et al.*, 2005) dugu.

Beraz, aztertutako tresna horiek baldintza egokiak biltzen ez zituztela ikusita eraiki zen *Abar-Hitz*. Tresna honen diseinuak deskribatu berri dugun etiketatze-eskema jarraitzen du.

Abar-Hitz eta erabiltzailearen arteko komunikazioa interfazearen bitartez egiten da. *Abar-Hitz*en leihoa nagusia III.34 irudian ikusten da. Leihoa horretan ageri dira: i) etiketatu beharreko esaldiak, ii) esaldia agertzen deneko testu-zatia, iii) etiketatze-lana gauatzeko lekua, iv) dependentzia-zuhaitza ikus daitekeen lekua. Interfazeak, halaber, laguntza hauek ematen dizkio etiketatzaleari:

1. Informazio morfosintaktikoa erakusten du. Esan bezala, EPEC corporaren etiketatzea maila desberdinan gauzatu da IXA taldean (Aduriz *et al.*, 2006a). Urrats honetan, hizkuntzalariak perpausaren etiketatze sintaktikoaren aurretik gauzatu diren analisi maila desberdin horiek kontsultatzeko aukera du erabaki bat hartzeko garaian.
2. Behin esaldia aztertuta, zuhaitz modura irudikatzen da (III.35 irudia) eta etiketatzaleak aldaketak edo zuzenketak egin ditzake. Dependentzia-zuhaitza zuzena dela iruditzen zaionean, egindako aldaketa guztiak esaldiaren analisian islatuko dira.
3. Dependentzia-etiketa bakoitzean txertatu beharreko informazioa esaintzen du; hau da, eremu-kopurua eta eremu bakoitzeko informa-

⁷<http://ckl.mff.cuni.cz/pajas/tred/>




III.34 Irudia: *Abar-Hitz* tresna informatikoaren interfazea.

zioa. Hizkuntzalariak horien artean zuzena aukeratu besterik ez du egin behar.

4. Dependentzia-zuhaitza osatu gabe geratu dela ohartarazten du; hau da, perpauseko hitz guztiekin behar dute loturaren bat izan.

Horrenbestez, *Abar-Hitz* tresnaren laguntzaz eskuzko etiketatzeari askoz ere ziurragoa da, tresna honek etengabeko hobekuntza, eraginkortasuna, sendotasuna eta prozesuaren azkartasuna baitakartza berarekin.

Tresna horren bitartez, etiketatzeko definitzeko erabili dugun 50.000 hitzeko corpusa etiketatu dugu: Eus3LB. Sintaktikoki etiketatutako corpus honetan oinarrituko gara gramatika konputazioan idazteko (VI. kapitulua).



III.35 Irudia: *Abar-Hitz*en irudikatutako dependentzia-zuhaitza.

III.8 Laburbilduz

Kapitulu honetan, euskararen sintaxiaren lehen formalizazioa egin dugu Dependentzia Gramatikan oinarrituta. Dependentzia-ereduaren bidetik jotzea erabaki dugu bi arrazoi nagusirengatik: bata, egokiagoa delako hurrenkera librea duten hizkuntzentzat, eta bigarrena, erraza eta intuitiboa izateaz gain, erlazio semantikoak adierazteko bidea ematen duelako, esaterako, rol tematikoei dagozkien etiketak gehituz.

Euskararen egitura sintaktiko desberdinak aztertu ditugu gobernatzailearen eta mendekoaren arteko erlazioak esplizitu eginez. Gainera, corpusaren etiketatze sintaktikoan aurrera egin ahala sortu zaizkigun arazoei irtenbidea eman diegu, besteak beste, egitura koordinatuei eta elipsiari. *Abar-Hitz* zuhaitz-editorearen laguntzarekin, 50.000 hitzeko corpora etiketatu dugu, zeina gramatika konputacionala idazteko oinarriztat hartuko dugun.

BIGARREN PARTEA: ANALISI SINTAKTIKO AUTOMATIKOA

IV. KAPITULUA

SINTAXI KONPUTAZIONALA

Lehendabiziko kapituluan esan bezala, gure asmoa testu errealetako esaldien tratamendu automatikoa da. Kapitulu horretan, hain zuzen ere, esaldi horiek sintaktikoki prozesatzeko erabiliko dugun analizatzaile sintaktikoa aurkeztuko dugu. Analizatzaile hau Murritzaren Gramatika (MG) formalismoan cinarritzen da. Formalismo hori baliatuta, beraz, aurreko kapituluan, Dependentzia Gramatika ereduaren bidez zehaztutako analisi sintaktikoak modu automatikoan gauzatuko ditugu.

IV.1 Sarrera

Sintaxia oinarritzko moduluetako bat da sistema konputazionalean, eta historikoki gehien aztertu izan dena. Hasiera batean, hizkuntzak beren anbiguotasun eta zehaztasun ezagatik ezin zirela formalizatu uste zen. Ideia hau oso zabalduta zegoen XX. mendearren lehen erdialdean logikaren eta hizkuntza formalaren azterketetan; XX. mendearren bigarren erdialdean, ordea, baztertua izan zen ideia hori semantikari eta sintaxiari buruzko azterketa formalei esker. Besteak beste, Richard Montague logikariaren eta hizkuntzalariaren lanek ikuspegi semantikotik, eta Noam Chomsky hizkuntzalariarenak ikuspegi sintaktikotik, bidea egin zioten hizkuntzaren tratamendu formalari eta zehatzari.

Sintaxiak, beraz, asko zor dio N. Chomsky hizkuntzalariari eta honek eman zion garrantziari gramatika sortzailearen lehen ereduetan. Chomsky-

ren paradigma jarraituz, formalismo ugari garatu dira deskripzio eta analisi sintaktikoetarako.

Analisi sintaktikoaren tratamendua testuko esaldi bakoitzari egitura sintaktiko bat esleitzean datza. Esaldien egitura sintaktikoa ezaugarrizko era bat baino gehiago dago, ordea. Teoria linguistikoak irtenbide ugari eskaintzen jarraitzen du hizkuntzen egitura sintaktikoa deskribatzeko eta ez dago inolako adostasunik egitura hori erarik egokienean irudikatzeko zein irizpide erabil daitezkeen jakiteko. Hizkuntzalaritza teorikoan ematen den desberdintasun hau tratamendu konputazionalean ere islatzen da: planteatzeko modu asko dago eta askotan ez dira bateragarriak. Dena den, ez ditu ondorio hain txarrak, helburua ez delako analisi sintaktikoa bera, baizik eta funtsezko pausotzat jotzen da esaldien barruko erlazio semantikoak zehazteko. Eta helburu honetara oso bide desberdinatik irits daiteke: osagaietan oinarritutako analisi-egituretan pentsa daiteke, dependentzia-gramatiketan, funtzio-gramatiketan, etab.

Beste ikuspegiak gutxietsi gabe, II. kapituluau aurkeztu ditugun Osagai-egitura eta Dependentzia Gramatika ereduek markatu dute testuen prozesamendu linguistikoan, sintaxia ulertzeko modua. Berrogei bat urtez formalismo ugari garatu dira modu ezberdinean bi ikuspegi hauen barruan. Kapitulu honetan, IV.2 atalean, analisi sintaktikorako dauden joera nagusien ikuspegi orokorra aurkeztu ondoren, IV.3 atalean, formalismo konputazional hedatuetarikoak azalduko ditugu modu laburrean: *Lexical-Functional Grammar* (LFG), *Head-Driven Phrase Structure Grammar* (HPSG) eta Murriztapen Gramatika (MG). Jarraian, IV.4 atalean, euskararen tratamenduan erabili direnak aurkeztuko ditugu, eta bukatzeko, IV.5 atalean, erabili diren horietatik aukeratu dugun Murriztapen Gramatikan oinarritutako analizatzaile sintaktikoaz jardungo dugu.

IV.2 Teknika sintaktikoak

Testu baten edo esaldi baten analisi sintaktikoa gauzatzeko estrategia desberdinak daude. Ondoren, analisi sintaktikorako dauden joera nagusien ikuspegi orokorra aurkeztuko dugu.

Sintaxiaren prozesamenduan, hiru aukera nagusi bereizten dira ikuspegi informatikotik (Gojenola, 2000): ezagutza linguistikoan oinarritzen diren hurbilketak, teknika probabilistikoetan oinarritzen diren lanak, eta hauen bien konbinazio direnak.

IV.2.1 Ezagutza linguistikoan oinarritutako hurbilketak

Ezagutza linguistikoa, hizkuntzalariek definitutako gramatiketan kodetzen da. Linguistikoki interesgarrienak diren esaldiez arduratzen dira, testu erreala ere kontuan hartzen dira.

Gramatika horiek idazteko jarraitzen diren irizpideetako¹ bat nabarmedu nahi dugu hemen: testuingururik gabeko gramatikak *versus* egoera finituko mekanismoak. Izan ere, ondoren azalduko ditugun analizatzaileak irizpide honen arabera sailkatu dira.

IV.2.1.1 Testuingururik gabeko gramatiketan oinarritutako sistemak

Mota honetako sistema gehienek eragiketa nagusi gisa baterakuntza era-biltzen dute. Baterakuntza, egitura konplexuetako informazioa konbinatzea ahalbideratzen duen operazio logiko bat da. Hasiera batean, operazio hau programazio-lengoaietarako definitu zen eta ondoren, tratamendu linguistikoari aplikatu zaio. Izen honen pean, teoria eta formalismo linguistiko ugari multzokatu da (Shieber, 1986); horien artean ditugu: *Lexical Functional Grammar* (LFG) (Bresnan, 1982), *Head-driven Phrase Structure Grammar* (HPSG) (Pollard eta Sag, 1994), *Government and Binding* (GB) (Chomsky, 1981), *Generalized Phrase Structure Grammar* (GPSG) (Gazdar et al., 1985) eta *Word Grammar* (Hudson, 1990). Aipatutakoez gain, beste asko daude.

Hauetako gramatika batean oinarritutako analizatzaile sintaktikoak honako ezaugarriak ditu:

- a) Ezagutza linguistikoaren irudikatze- eta prozesatze-sistemaren arteko banaketa zorrozki egiten da. Ezagutza linguistikoa gramatikaren bitartez formalizatzen da.
- b) Gramatikek ezagutza linguistikoa kategoria konplexuekin irudikatzen dute.
- c) Analizatzaileek edozein motatako estrategia jarrai dezakete analisirako (goitik beherakoa, behetik gorakoa edo mistoa), nahiz eta behetik gorako analizatzaile mistoak nagusitzen joan diren.
- d) Analizatzaileek metodo zehatz bat gehitu beharra daukate kategoria konplexuen informazioa tratatu ahal izateko, *baterakuntza* deitzen de-

¹Irizpide hauek guztiak Gojenolaren tesi-lanean definituta daude (Gojenola, 2000).

nekoa. Horrek eraginda, eraginkortasun txikiagokoak dira; izan ere, informazioaren tratamendu hau motela baita.

- e) Gramatikan baino informazio gehiago koden da lexikoan; hau da, ahalik eta erregela gutxiengoa izatea eta ezagutza linguistikoa lexikoan adierazita egotea da bilatzen dena.

80ko hamarkadako analizatzaile sintaktikoekin alderatuz gero, egungoak askoz ere simpleagoak eta malguagoak dira, batez ere askoz ere erregela gutxiago dituztelako eta bertan lexikoa planteamendu orokor batzuen arabera (hizkuntza bakoitzeko hitz motei buruzko teoriatik abiatuta) eratzen delako. Honen ondorio garrantzitsu bat da planteamendu berri hauetan oinarritutako gramatikak eta prozesadore sistemak askoz ere errazago ikuska daitezkeela (eta, beraz, aldatu ere bai); hau da, gramatika hauek askoz ere errazagoak direla ulertzeko eta erabiltzeko, eta baita handitzeko edota aldatzeko ere (behar izanez gero).

Beste desberdintasun nabarmena da oso modu naturalean gehi daki okeela semantikaren tratamendua. Aurreko sistemei dagokienez, semantika (erabat analisi sintaktikoaren mende zegoena) ezaugarri laguntzailetzat hartzen zen, edo sintaxiaren ondoren zetorren analisitzat (analisi sintaktikoaren atzetik aplikatu behar zena). Baterakuntza-gramatiketan oinarritutako sistemek, ordea, informazio semantikoa sintaktikoarekin batera osatzea onartzen dute, eta honek egokiago bihurtzen ditu.

Azkenik, baterakuntzan oinarritutako gramatika hauen baliotasuna ez da konputazio mailakoa bakarrik; hizkuntzalaritza teorikoan handitzen doa interesa, beste teoria linguistiko batzuen aurrean (sortzaile-transformatzailea, esaterako) aukera berri baten modura ikusten baita.

Gaur egun, proiektu desberdin asko daude mota honetako gramatiken bidez analisi sintaktikoa gauzatzea helburu dutenak; adibidez, *ParGram*², frantsesaren LFG gramatika da, *Xerox Linguistics Environment* (XLE) plataformarekin garatua eta *Delph-in*³ proiektua, HPSGren oinarri orokorrak jarraitzen dituena.

IV.2.1.2 Egoera finituko mekanismoetan oinarritutako sistemak

Morfologia tratatzean, egoera finituko teknikek (automatak eta transduktoreak) izan zuten arrakasta ikusita, teknika berak sintaxiaren atal batzuetan

²<http://www2.parc.com/isl/groups/nltt/> (2008-01-23an irakurria).

³<http://www.delph-in.net/> (2008-01-23an irakurria).

aplikatzea zeudela egiaztatu nahi zen. Eta funtsezko helburua, berriz, testu errealkak sintaktikoki (partzialki bazen ere) tratatzeko gai izango zen analizatzako sintaktikoa sortzea zen.

Sortu zen analizatzako sintaktikorik ezagunena *Constraint Grammar* (CG) parsera (Karlsson *et al.*, 1995) dugu, guk MG izenarekin ezagutzen duguna. Analizatzako hau berraztertu egin zen eta berria, sendoagoa eta prozesua azkarrago gauzatzen duena garatu zen: *Constraint Grammar Parser CG-2* (aurrerantzean MG-2) (Tapanainen, 1996).

Mota honetako analizatzako sintaktikoa ezaugarri hauek ditu:

- a) Esaldiei ez die egitura sintagmatikoa esleitzen; informazio sintaktikoa esaldietako hitzetan markatzen da funtzio-etiketen bidez. Esaterako, **Arrazoia zuen Kurt-ek** esaldian, **arrazoia** hitzak @*Objektua* funtzio-etiketa izango luke; **zuen** hitzak, @*Aditz nagusia* funtzioa, eta **Kurt-ek** hitzari @*Subjektua* funtzio-etiketa esleituko litzaiok. (Ohar bedi irakurlea funtzio-etiketen aurretik "@" ikurra ageri dela MGn).
- b) Kodetze honek berez dependentzia-egitura bat zehazten du implizituki.
- c) Prozesatze sintaktikoaren abiapuntua morfologikoki etiketatutako esaldiak dira.
- d) Funtsezko bi urrats daude prozesatze sintaktikoan:
 1. Islapenarena: etiketa morfologiko bakoitzari (izen, adjektibo, adberbio, aditz...) dagozkiokeen funtzio-etiketa guztiak esleituko zaizkio (izenei, esaterako, ondoko funtzio-etiketa hauek esleituko zaizkie: @*Subjektu*, @*Objektu* eta @*Zehar-objektu*, gehi @*Adizlagun* eta @*Predikatiboa* zenbait kasutan). Esan behar da islapenaren urrats honetan, hurrengo urratsa errazteko helburuarekin, maiz, islatzen diren etiketen kopurua muga daitekeela.
 2. Desanbiguazioarena: hitz bati funtzio sintaktiko bat baino gehiago esleitu zaizkionean, urrats honetan egokiena zein den erabakiko da eta beste guztiak ezabatu egingo dira, ahal bada behintzat.
- e) Mendekotasun handia dago erregelekin esan daitekeen eta nola esan daitekeen ideien artean; hots, ezagutza linguistikoaren eta erabiltzen dugun prozesatze-sistemaren artean.

- f) Gramatikaren konplexutasuna oso handia da erregelen kopurua oso handia delako eta euren artean elkarreragin dezakelako.

Analizatzaile sintaktiko hauek dituzten mugen artean, nabarmenenak hauek dira:

- Egiteko konplexuak dira eta mantentzeko (edo aldatzeko) zailak.
- Ematen duten informazioa mugatua da (esaterako, kasurik gehienetan ez dute postposizio-sintagmen arteko dependentzia konpontzen) eta ez da beti erraza izaten benetako dependentzia-zuhaitza lortzea.
- Azaleko syntaxia da tratatzen dutena, eta ez dituzte ukitzen analisi sintaktikoaren oinarritzko zenbait kontu, esaterako, anafora, elipsia edota erlatibozko perpausetako erreferentzia-izenak (PRO).

Eta dituzten abantailak, berriz, hauek dira:

- Eraginkorrak eta azkarrak dira egoera finituko teknikak erabiltzen dituztelako eta konputazionalki konplexua den elementurik ez dutelako.
- Edozein motatako testua trata dezakete (zenbait motatako testuetan, literatura-testuetan esaterako, eraginkortasun orokorra txikiagoa izan daiteke, baina guztiekin funtzionatzen dute).
- Zenbait aplikaziotarako ez dira beharrezkoak analisi sintaktiko osoak; beraz, Murriztapen Gramatikaren emaitza nahikoa izaten da.

Ikuspegi konputazionala duen teknika hau Helsinkiko Unibertsitatean garatu zen lehendabizi; egun, ordea, dituzten abantailak direla eta, gero eta gehiago erabiltzen dira hizkuntzalaritza konputazionalean, eta zenbaitetan maila altuagoko prozesatze baten aurreko urrats bezala gainera.

IV.2.2 Teknika probabilistikoetan oinarritutakoak

Teknika probabilistikoetan oinarritutako sistemak (Charniak, 2000), etiketaturako corpus handietatik informazio sintaktikoa automatikoki induzitzen saiatzen dira estatistika erabiliz, gero testu errealen gainean aplikatzeko. Sistema hauek oso gutxi erabiliko dute eskuz kodeturiko ezagutza gramatikala interpretazio desberdinen artetik egokia zein den erabakitzeko orduan.

Induzitutako erregelek probabilitate bat izaten dute lotua, eta hori erabilten da aztertzen den esaldiaren analisia deduzitzean. *Parser* estatistikoek probabilitate-konbinazio asko aztertu behar dituzte eta bilaketa-estrategia bat behar dute.

Etiketatzale estatistikoen punturik ahulena da esaldi osoko ezagutza linguistikoa ez dela erabiltzen bilaketa-espazioa handiegia delako eta leherketa estatistikoa gertatzen delako.

IV.2.3 Teknika linguistikoen eta probabilistikoen konbinazioak

Ikuspuntu estatistiko hutsean oinarritutako gramatikekin lortutako analisiak linguistikoki interpretazea ez da erraza. Horren ondorioz, zaidu egiten dira ondorengo prozesuak, esaterako, interpretazio semantikoa bera.

Hizkuntzalariek idatzitako gramatiketan, aldiz, maila altuko gertaera linguistikoak deskribatu ohi dira, sintagmак zein esaldi osoak konbinatzeko; baina garrantzi txikia ematen zaio esaldi errealetan agertzen den zenbait fenomenori, adibidez, egitura jakin batzuen maiztasunari.

Hori dela eta, teknika probabilistikoak eta linguistikoak lotzeko saioak egin dira, bakoitzaren abantailak biltzeko helburuarekin.

IV.3 Formalismo gramatikalak

Sintaxiaren deskripzio orokorrerako interesgarrienak konsideratu izan diren LFG, HPSG eta MG formalismoak azalduko ditugu jarraian. Hiru horiek aukeratu ditugu euskararen tratamendurako egokitasuna aztertzeko egin den lanarekin (Gojenola, 2000) zerikusia dutelako eta Dependentzia Gramatikaren oinarrizko ideiaren aplikazio gisa hartzen direlako.

70eko hamarkadaren azken aldera eta 80koaren hasieran sortu ziren formalismo sortzaileak dira LFG eta HPSG. Garai hartan, transformazioak murritzeko azterketak ikerketa-lan garrantzitsuak bihurtu ziren; lan horien artean ditugu, besteak beste, Bresnan-en Gramatika Sortzaile Errealista (Bresnan, 1978) eta Montague-ren Gramatika (Montague, 1974). Horrenbestez, aipaturiko bi formalismo horietan, transformazioak baldin badaude ere, ez dute paper handirik jokatzen; azaleko egitura adierazteko maila bakarra proposatzen da. Hauekin kontrastean, teoria sortzaileari hurbiltzen zaion Murriztapen Gramatika dago, zeinetan transformazioak ez, baina murriztapenak garrantzi handikoak diren.

Bestalde, aplikazio konputazionaletan baliatzeko helburuarekin sortu diren formalismo konputazional hauen arteko desberdintasuna, hautatzen dituzten ezaugarriak antolatzeko moduan datza.

Azter dezagun, labur, bakoitza.

IV.3.1 Lexical-Functional Grammar (LFG)

Bresnan-ek (1982) garatu zuen teoria hau, osagai-egiturak objektu edo funtzio sintaktikoekin elkartzen direla adierazten duen teoria unibertsal baten garapenean oinarritu da.

LFG izenak berak adierazten duen bezala, bere ikerlana subjektu, objektu eta antzeko funtzio gramatikaletan oinarritzen du, hots, hizkuntzen ezaugarri sintaktiko-semantikoen deskribapena hauen bitartez egiten du. Horrela, bada, LFG funtzio gramatikaletan oinarritu eta transformaziorik ez duen teoria lexikalista da.


Horretaz gainera, bi motako egiturak definitzen dira sintaxiaren alorrean: osagai-egitura (o-egitura) eta funtzio-egitura (f-egitura).

Funtzio-egiturak, esaldiko elementuen arteko erlazioen berri ematen du (subjektu eta objektu erlazioak bezalakoak), eta funtzio gramatikal horiek primitibo bezala tratatzen dira egitura honetan. Adibidez, IV.1 irudian, *David yawned* ([Davidek aharrausi egin zuen](#)) esaldiaren f-egituraren adierazpena⁴ dugu, hiru ezaugarri dituena: adierari dagokiona (PRED), denborari dagokiona (TENSE) eta subjektuari dagokiona (SUBJ). Eta ondoren, bakoitzaren balioa dator zehazturik: 'YAWN<SUBJ>', PAST eta subjektuaren informazioa adierazten duen beste azpimatrize bat (SUBJ), hurrenez hurren. Azken honetan bi atributu daude: adierari dagokiona (PRED) eta numeroari dagokiona (NUM), eta berriz ere bakoitzaren balioen zehaztapena: 'DAVID' eta SG.

Beste hitz batzuekin esanda, esaldia osatzen duten ale lexikalen deskripzioa egiten da. Batetik, PRED balioak *yawned* ale lexikalaren adiera adierazten du eta, era berean, aditz honek subjektu baten beharra duela eta iraganean dagoela azpimarratzen du. Eta bestetik, SUBJ balioan, subjektuaren informazioa (bere adiera eta numeroa) adierazten duen azpimatriza dator.


Osagai-egituran, esaldiaren egitura sintagmatikoa zehazten da; hau da,

⁴Adierazpen hau (Dalrymple, 2001) lanetik hartu dugu. Horretaz gain, irudietako laburzapenak eta terminologia LFG teorian erabiltzen diren bezala erabili ditugu.



IV.1 Irudia: *David yawned* esaldiaren adierazpena LFGn.

ale lexikalekin sintagmak osatzeko beharrezkoan den antolaketa hierarkikoa eta lineala adierazten duen ageriko maila. Horretarako, X Marraren teorian oinarritzen dira. Beraz, IV.2 irudian ikus daitekeen bezala, egitura hau X Marran egindako zuhaitz estrukturalek osatzen dute.



IV.2 Irudia: *David yawned* esaldiaren osagai-egitura LFGn.

Orain arte, LFGren alderdi sintaktikoenei erreparatu badiagu ere, kontuan izan behar dugu teoria honek argumentu-egituraren informazioa ere lantzen duela. Are gehiago, sintaxiarekin duen harremana zehazten du rol tematikoak funtzio gramatikalekin lotuz.


IV.3.2 Head-Driven Phrase Structure Grammar (HPSG)

Guneak zuzendutako egitura sintagmatikoen gramatika (HPSG) hizkuntzen sintaxia eta semantika deskribatzeko formalismoa da (Pollard eta Sag, 1994). *Generalized Phrase Structure Grammar* (GPSG) teoria sintaktikoaren garapena da; hain zuzen ere, izena aldatu zitzaison h-guneetan (esaldiko buruak) kodetutako informazioaren garrantzia nabarmentzeko. HPSGn, LFGn

eta GPSGn bezala, ez dago transformaziorik, lexikoari ematen zaion garrantzia dela-eta.

HPSG gramatikan erabiltzen den elementurik garrantzitsuena zeinu lingüistikoa (*sign*) da. Zeinua informazio partziala duen ezaugarri-egitura da. Ezaugarri-egitura bat ezaugarri-balio bikoteez osatutako egitura da. Beraz, teoria honetan, elementu lexikalak, erregelea gramatikalak, gramatikaren prinzipio orokorrak eta semantika, denak egitura partzial horien bidez deskribatzen dira, honela uniformitate handia mantenduz teoriaren aspektu desberdinengatik deskripzioan.

Ezaugarri baten balioa atomikoa edo beste ezaugarri-egitura izan daiteke IV.3an jasotako adierazpenean⁵ ikus daitekeen bezala.



IV.3 Irudia: *she* izenordainaren adierazpena HPSGn.

Kasu honetan zeinua ale lexikal bat da (*word*), eta honek zehazten du matrize osoaren izaera, hots, hiztegi-sarrera hau ale lexikal bati dagokio, *she*

⁵ Adierazpen hau (Pollard eta Sag, 1994) lanetik hartu dugu. LFGkoan bezala, hemen ere ingeleseko terminologia eta laburtxapenak errespetatu ditugu.

izenordainari, hain zuzen ere. *Word* matrize mota hau bi ezaugarritan banatzen da: PHON eta SYNSEM. Lehenak informazio fonologikoa jasotzen du eta bigarrenak, informazio sintaktiko-semantikoa. PHON ezaugarriaren balioa <*she*> da eta SYNSEM ezaugarriarena, berriz, bere izen bera daran man beste matrize konplexu bat: *synsem*. Matrize mota honen balioa LOCAL da, eta ezaugarri honen balioa, berriz ere, matrize konplexu bat da (*local*) zeina hiru ezaugarritan banatzen den: CATEGORY, CONTENT eta CONTEXT. CATEGORY ezaugarriak hitzaren kategoria adierazteaz gain, honek eskatzen dituen argumentuak ere zehazten ditu. CONTENT eta CONTEXT ezaugarriek hitzaren interpretazio semantikoa zehazten du-te. Hauek, halaber, beste zenbait balio eta ezaugarri hartzen dituzte. Hala, CATEGORYan bi ezaugarri daude: HEAD (hitzaren kategoria adierazten du) eta SUBCAT (ale lexikalaren azpikategorizazioa zehazten da). Bestalde, CONTENT ezaugarrian ale lexikalaren irakurketa semantikoa zehazten da, batez ere erreferentziaren ikuspuntutik (INDEX). Hau da, hemen jasoko da ale lexikalak adierazten duen “egoera” esaldi osoaren osotasunetik ikusita. Eta azkenik, CONTEXT ezaugarria aurresuposizioetan oinarrizten da; esaterako, aztergai dugun adibidearen CONTEXTean aurresuposatzen da ingeleseko *she* izenordainari dagokion erreferenteak genero femeninoa duela.

Teoria sintaktiko modernoek hartu duten bidea jarraituz, lexikalizazio-maila oso altua du teoria honek, gramatikaren informazio gehiena hiztegian gordetzen delarik. Honen ondorioz, erregela sintaktikoak oso eskematikoak izango dira eta hiztegia, berriz, oso konplexua.

IV.3.3 Murriztapen Gramatika (MG)

80ko hamarkadan sorturiko formalismo hau hizkuntzarekiko independentea (hainbat hizkuntzatan aplika daiteke) eta sendoa (analisi guztiei irtenbide bat ematea du helburu eta ez esaldien gramatikaltasuna adieraztea) den tresna lortzeko diseinatu zen, testu orokorrak desanbiguatu eta analizatzeko (Karls-son *et al.*, 1995). Bere deskripzioak esaldi erreletatik hurbil daude eta analisi sintaktikoaren problema nagusiari, anbiguotasunari, ekiteko pentsatuta dau-de.

MGren sarrera testu bat da, esaterako IV.4 irudiko **Arrazoia zuen Kurt-ek** esaldia⁶. Formalismoak eskatzen duen formatuari jarraituz, testu honetako

⁶Adibide hau tesi-lan honetan baliatu dugun EPEC corpusetik harti dugu. Bertan adierazten diren laburtxapenak euskararen tratamendu automatikoan erabiltzen ditugunak

informazioa lerrotan (hitzak eta interpretazioak⁷) eta kohorteetan (hitzen analisien multzoak) antolatuta dago. Esaldi horretan, esaterako, kohortearako bat /<zuen>/ hitzean hasten da eta jarraian, kakotx artean datozen hitzaren lemek ("*edun", "ukan" eta "zuek") eta horien ondoko hamar interpretazioek osatzen dute kohorte hori. Informazio hau beste lerroetako eta kohortearako informazioa baliatzen duten testuinguruko erregelen bitartez alda daiteke. Erregela hauen muga esaldia da.

```
/<@0185910,2634,0066,07>/<ID>
/<Arrazoia>/<HAS_MAI>
  ("arra佐い" IZE ARR DEK ABS NUMS MUGM @OBJ @SUBJ @PRED)
/<zuen>/
  ("*edun" ADL B1 NR_HU NK_HU ERL MEN ERLT @+JADNAG_MP_IZLG > @+JADLAG_MP_IZLG >)
  ("*edun" ADL B1 NR_HU NK_HU ERL MEN MOS @+JADNAG_MP @+JADLAG_MP)
  ("*edun" ADL B1 NR_HU NK_HU ERL MEN ZHG @+JADNAG_MP_OBJ @+JADLAG_MP_OBJ)
  ("*edun" ADL B1 NR_HU NK_HU @+JADLAG)
  ("ukan" ADT B1 NR_HU NK_HU ERL MEN ERLT @+JADNAG_MP_IZLG > @+JADLAG_MP_IZLG >)
  ("ukan" ADT B1 NR_HU NK_HU ERL MEN MOS @+JADNAG_MP @+JADLAG_MP)
  ("ukan" ADT B1 NR_HU NK_HU ERL MEN ZHG @+JADNAG_MP_OBJ @+JADLAG_MP_OBJ)
  ("ukan" ADT B1 NR_HU NK_HU @+JADNAG)
  ("zuek" IOR PERARR DEK GEN NUMP MUGM DEK ABS MG @IZLG > @<IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("zuek" IOR PERARR DEK GEN NUMP MUGM @IZLG > @<IZLG)
/<Kurt-ek>/<HAS_MAI>
  (""/Kurt/ IZE IZB PLU- MAR DEK ERG MG @SUBJ)
  (""/Kurt/ IZE LIB PLU- MAR DEK ERG MG @SUBJ)
/<.>/<PUNT_PUNT>/
```

IV.4 Irudia: MGren sarrera **Arrazoia zuen Kurt-ek** esaldiaren analisian.

IV.5 irudian bi erregela agertzen dira, formalismoak desaniguaziorako erabiltzen dituen bi formak erakusteko. Lehenengo interpretazio zuzena aukeratzen saiatzen da, aditz laguntzailearen interpretazioa (ADL) hartuz (SELECT), aztergai den forma aditz laguntzaile eta trinko duen anbigutasun multzokoa besterik ez bada (0C ADL/ADT) eta forma horren ezkerretara PERIFRASTIKOAK multzoko elementuren bat baldin badago soilik. Bigarren erregela motak aditzaren irakurketa (ADI) ezabatuko du (REMOVE), baldin eta aztergai den forma adjektiboa (ADJ) ere bada eta ezkerretara, bi hitzetara, ez badu determinatzailerik (DET); ezkerretara hitz batera morfema gabeko elementurik badu (ZERO) eta eskuinetara, posizio batera, determinatzailerik (DET) badu.

dira; beren esanahia A eranskinean dago adierazita.

⁷Hitz-forma baten analisi morfologiko posible bakoitzari *interpretazio* deitzen zaio.

```

SELECT (ADL) IF (OC ADL/ADT)
(-1C PERIFRASTIKOAK);

# Adibidea: Mikel estropadetatik eterri DA.

REMOVE (ADI) IF (0 ADJ)
(NOT -2 DET)
(-1 ZERO)
(1 DET);

# Adibidea: Bizi toki JAKIN bat ez zutela...

```

IV.5 Irudia: Euskararen murriztapen-gramatikaren bi erregela.

Gramatikaren oinarria murriztapen-erregelek osatzen dute, baina ezaugarrí probabilistikoa duten elementuak ere erabiltzen dira, erregelek irtenbide egoki bat ez dutenean gramatikari sendotasuna emanez.

IV.4 Euskararen sintaxiaren tratamendu automatikoa

Badira urte batzuk euskal sintaxiaren tratamendu automatikoari ekin genioila IXA ikerketa-taldean. Sintaxia eremu zabala izanik, bere tratamenduaren aspektu batzuk dira aztertu ditugunak; hasierako helburuetako bat, besteak beste, sintaxirako tresna erabilgarriak lortzea zen, hots, testu errealen analisi sintaktikoa gauzatuko zutenak. Asmo horrekin eta sintaxiaren tratamendurako aukera desberdinak aztertu ondoren, euskararen sintaxia lantzeko ezagutza linguistikoan oinarritutako testuingururik gabeko gramatikak eta egoera finituko mekanismoak erabil daitezkeela ondorioztatu zuten Gojenolak (2000) eta Adurizek (2000) beren tesi-lanetan.

Euskararen sintaxiaren deskripziorako interesgarrienak izan zitezkeen formalismoen azterketan, hizkuntzaren ezaugarri bereizgarrienetako batzuk hartu zitzuten kontuan, hala nola i) esaldi mailako osagai sintagmatikoen ordena librea, ii) aditzaren azpikategorizazioa eta iii) aditzaren komunzadura subjektuarekin, objektu zuzenarekin eta zehar-objektuarekin.

Horrekin batera, analisiaren helburuak ere definitu zitzuten: egitura ezkonfigurazionala eta laua izan behar zuen, osagaien ordena librea bermatuko zuena. Horretaz gain, testu errealkat tratatzeko gai izan beharko zuen eta printzipio linguistikoak modu erosoa batean aplikatzeko gauza.

Hau guztia, analisi sintaktikoaren lehen urratsak definitzen ari zirela pentsatuz egin zuten.

IV.4.1 Testuingururik gabeko gramatiketan oinarritutako euskaren analizatzaileak

Baterakuntza ezaugarria oinarri duten formalismo hauek, esan bezala, fenomeno linguistikoen deskripzioari garrantzi handiagoa ematen diote, horretarako erabiliko den prozedura informatikoari baino.

Ahalmen deskriptiboa kontuan izanik, Abaituak (1988) *Lexical Functional Grammar* (LFG) formalismoa garatu zuen euskararen sintaxiaren formalizaziorako.

Lan horretan gauzatu zen gramatika konputazional konplexuaren aurrean, IXA taldean PATR (Shieber, 1986) formalismoa aukeratu genuen sintaxiari ekiteko. Formalismo hau baterakuntzan oinarritzen da eta ez dago teoria sintaktikoei lotua. Gurean, PATR-IXA izenarekin ezagutzen da.

PATR-IXA baliatuta garatu dugun gramatika honen bitartez testu errealetako ia izen-sintagma eta adizlagun guztiak analiza daitezke, eta baliagarri izan da aditzaren azpikategorizazio-patroiak erauzteko (Aldezabal *et al.*, 2001b, 2003). Gramatika honen deskribapenaren azalpen osoa (Gojenola, 2000) tesi-lanean egiten da.

PATR-IXAren malgutasuna eta sinpletasuna nahikoak izan dira, beraz, euskararen lehen tratamendua egiteko, helburutzat maizen gertatzen diren osagai sintaktikoak ezagutzea izan dugulako eta ez analisi osoa lortzea.

Horregatik, analizatzaile hau *chunker* izeneko sistemetan (Abney, 1997; Basili *et al.*, 1998) deskribatu den tarteko mailan kokatuko litzateke; hau da, hitz-maila baino gorago, baina esaldi osoaren analisira iritsi gabe dagoen bitarteko pauso bezala.

Hurrengo urratsari ekiterakoan, esaldien analisi osoa aztertzerakoan, alegia, bi arazo hauek agertu zaizkigu: eraginkortasunik eza (denbora eta lekua) eta anbiquotasuna (esaldi bat analisi bat baino gehiagorekin). Arazo horiek eraginda analizatzailez aldatzea erabaki dugu, analizatzailea handitzeko aukera alde batera utziz. Horren ondorioz, PATR-IXAkо gramatika sintaktiko hau analizatzaile batetik bestera migratzea erabaki dugu (Aduriz *et al.*, 2006c).

Migrazioa baterakuntzan oinarritutako PATR eta RASP (*Robust Accuracy*

te Statistical Parsing⁸ (Briscoe eta Carroll, 2002)) formalismoen artean gertatuko da. RASP sistemaren abiapuntua GPSG (*Generalized Phrase Structure Grammar*, Gazdar *et al.* (1985)) formalismoa izan zen. Lehen bertsio honek zenbait aldaketa izan ditu, beti ere eraginkortasuna gehitzeari eta funtzionaltasun berriak eransteari begira.

Nahiz eta bi formalismo hauek antzeko ezaugarriak eduki, sistemen arteko desberdintasunak nabarmenak dira: PATRn ez bezala, hemen hitza izango da aztergai-unitatea eta gramatika deskribatzeko erregelean kopurua handiagoa bada ere, erregeela hauek irakurterrazagaoak eta zehatzagoak dira. Gainera, RASPeK oso emaitza onak lortu ditu beste *parserekin* alderatuta (Briscoe eta Carroll, 2006).

IV.4.2 Euskararen egoera finituko sintaxi-tresnak

Euskararen sintaxiaren tratamenduari begira, egoera finituko mekanismoeitan oinarritutako bi formalismo ere aztertu ditugu: Murritzapen Gramatika (MG) eta *Xerox Finite State Tool* (XFST) formalismoa.

IV.4.2.1 Murritzapen Gramatika (MG)

Azken urteotan, Murritzapen Gramatika azaleko sintaxia eta desaniguazioa lortzeko egindako sistemetatik arrakastatsuenetarikoa bihurtu da, oso ezaugarri desberdinak hizkuntzetan aplikatu delako. Hori kontuan izanik, euskararen azterketarako ere baliatu dugu.

Esaldi bateko hitz-forma bakoitzak izan ditzakeen interpretazioetatik bakkarrarekin geratzea da MGren helburua. Horretarako lehen aipatu ditugun debekuen moduko edo interpretazio zuzena aukeratzeko murritzapen-erregelek aplikatzen dira. Aplikazio honen emaitzan, hitz bakoitza morfosintaktikoki desaniguatuta egongo da. Formalismo hau aplikatzeko prozedura IV.5 atalean zehaztuko dugu.

Horretaz gain, gramatika honek aurrera egiteko aukerak ere eskaintzen dituela ikusi ahal izan dugu bi tesi-lanetan: batean, desaniguazioa ez ezik funtzio sintaktikoen esleipena ere egiten da (Aduriz, 2000) eta bestean, kate sintaktikoen bereizketa (Arriola, 2000).

⁸<http://www.cogs.susx.ac.uk/lab/nlp/rasp>

IV.4.2.2 Egoera finituko sintaxia (XFST)

Murritzapen Gramatikak egiten duen aukera-baztertzeaz aparte, egoera finituko mekanismoek beste eragiketa-multzo aberatsagoa dakarte beraiekin (Karttunen *et al.*, 1997). Dena den, hemen, XFST izeneko tresna euskaren aplikaziorako erabili dugula besterik ez dugu adieraziko. Honen inguruko xehetasunak (Gojenola, 2000) tesi-lanean aurkitzen dira.

IV.5 Erabilitako analizatzailea

Aurreko ataletan azaldutakoaren ondotik, hiru eredu desberdin landu ditugu euskararen sintaxiaren tratamendurako: baterakuntzan oinarritutako gramatika, Murritzapen Gramatika eta egoera finituko mekanismoetan oinarritutako formalismoak. Guztiak dituzte beren alde on eta txarrak eta nola ez bakoitza erabiltzearen aldeko eta kontrako arrazoiak.

Gure kasuan, sintaxian urratutako bideari jarraitzeko orduan, indarra banatzea baino egokiago ikusi dugu horietako batean murgiltzea, Murritzapen Gramatikan, hain zuen ere. Testu errealetan esaldiak analizatzeko hartu dugun hurbilketa honek hizkuntzaren prozesamenduan arazo den anbiguotasunari aurre egiteaz gain, analisi sintaktiko partziala egiteko aukera eskaintzen du, automaten bidez implementatuta egoteak eraginkortasun handia ematen dio eta Dependentzia Gramatikaren oinarriekin bat dator.

Euskararen Murritzapen Gramatika aplikatzeko MG-2 *parsera* edo analizatzaile sintaktikoa erabili dugu (ikus IV.2.1.2). Testuan oinarritzen den analizatzailea da; hau da, testu gordin baten gainean lan egiten du informazioa gehituz edo ezabatuz.

Analisi-prozesua bost urratsetan egiten da. Urratsetan banatze hau, deskripzio sintaktikoaren konplexutasunari aurre egiteko modu simpleago bat hartu nahiak dakar, arazoa zatika aztertzean tratagarriago gertatzen delako.

Analisi-urrats bakoitzean aurreko moduluaren informazioa hartzen da aintzat, eta ondorengoan informazio hori aberastu egiten da. Modulazio honek datu linguistikoak mantentzen laguntzen du eta sistema berrerabilgarria egiten du.

Sintaxiaren tratamenduarekin jarraitzeko, egindako azken urratsa hartuko dugu abiapuntutzat, kate sintaktikoak bereizten dituen urratsa, alegia. Analisi horretatik erauz daitekeen informazioak, batetik, testu errealetan esaldien analisi sintaktiko osoa egiten lagunduko digu, eta bestetik, informa-

zio horrekin aberastu den testuak, prozesu hori zehaztasun handiagoarekin egiteko aukera emango digu.

Testu baten analisi-prozesua nola egiten den azaltzeko, aztergai dugun **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldia hartuko dugu adibide modura. Azalpen honek, halaber, orain arte egindako lana zein den edota sintaxiaren azterketarekin jarraitzeko nondik abiatuko garen erakutsiko du.

Bost urratsak hauek dira:

1. Aurreprozesua edo tokenizazioa: sarrerako testua jaso eta analizatuko diren *tokenetan* edo *itemetan* banatzen da; hau da, analisi morfologiakoan sarrera gisa erabiliko diren unitateak bereizten dira (Ezeiza, 1997). Unitate horiek, esate baterako, hitzak eta puntuazio-markak ere izan daitezke.

Banaketa hori *token* edo *item* ezagutzailearen bitartez egiten da.

2. Analisi morfologikoa (morfosintaktikoa euskararen kasuan): hitz-forma bakoitzari dagozkion interpretazio posible guztiak esleitzen zaizkio MOR-PHEUS analizatzaile morfologikoaren⁹ bitartez (Alegria, 1995). IV.6 irudian aztergai dugun esaldiaren oraingo analisia dugu. *Token* bakoitzak dagokion informazioa du: hitz-forma, eta interpretazio bakoitzeko lema, informazio morfologikoa eta dagokionean funtzio sintaktikoak.

Baina testuen azterketa ezin da hitz-mailan geratu, elkarren mendeko diren hitz-konbinazio edo hitz anitzeko unitate lexikal (HAUL) asko da-guelako. Zenbait hitz-konbinazio elkarrekin lematizatu eta etiketatzea komeni da. Esate baterako, testuan **hala eta guztiz ere** aurkitzean, ezin ditugu hitzak independenteki interpretatu, elkarren ondoan daudenean beren funtzioa aldatzen baita.

Hitz anitzeko unitate lexikalak identifikatzeko eta dagokien informazioaz hornitzeko HABIL (HAULen BILaketarako tresna) erabiltzen da (Ezeiza, 2003), eta entitateen izenak (pertsona, tokia, erakundeak eta bestelakoak) mugatzeko eta sailkatzeko, berriz, EIHERA (Alegria *et al.*, 2003).

⁹Analizatzaile morfologikoaren muina den lexikoa datu-base batean antolatuta dago, Euskararen Datu-Base Lexikalean (EDBL) (Aldezabal *et al.*, 2001a).

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>
  ("zinema" IZE ARR DEK BNK MG @ADLG)
  ("zinema" IZE ARR DEK DESK DEK ABS MG @IZLG &IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("zinema" IZE ARR DEK DESK @IZLG &IZLG)
  ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL DEK ABS MG @IZLG &IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG &IZLG)
/<cowboy>/
  ("cowboy" IZE ARR DEK ABS MG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("cowboy" IZE ARR)
/<hark>/
  ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ)
/<bere>/
  ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN DEK ABS MG @IZLG &IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG &IZLG)
  ("beretu" ADI SIN AMM ADOIN)
/<etxe>/
  ("etxe" IZE ARR DEK ABS MG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("etxe" IZE ARR)
/<handian>/
  ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
/<errezipitu>
  ("errezipitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU)
  ("errezipitu" ADI SIN AMM PART DEK ABS MG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("errezipitu" ADI SIN AMM PART @-JADNAG_MP_IZLG)
/<zituen>/
  ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU ERL MEN ERLT @+JADNAG_MP_IZLG &+JADLAG_MP_IZLG)
  ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU ERL MEN MOS @+JADNAG_MP @+JADLAG_MP)
  ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU ERL MEN ZHG @+JADNAG_MP_OBJ &+JADLAG_MP_OBJ)
  ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU)
  ("ukan" ADT B1 NR_HK NK_HU ERL MEN ERLT @+JADNAG_MP_IZLG &+JADLAG_MP_IZLG)
  ("ukan" ADT B1 NR_HK NK_HU ERL MEN MOS @+JADNAG_MP @+JADLAG_MP)
  ("ukan" ADT B1 NR_HK NK_HU ERL MEN ZHG @+JADNAG_MP_OBJ @+JADLAG_MP_OBJ)
  ("ukan" ADT B1 NR_HK NK_HU)
  ("zitu" IZE ARR RARE+ DEK GEN NUMP MUGM DEK ABS MG @IZLG &IZLG @OBJ @SUBJ @PRED)
  ("zitu" IZE ARR RARE+ DEK GEN NUMP MUGM @IZLG &IZLG)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

IV.6 Irudia: MORPHEUSen irteeraren adibidea.

3. Desaniguazio morfologikoa: murritzapen-erregelak baliatuta anbiguotasuna murrizten da; hau da, hitzen analisi aukeretatik interpretazio-lerro bakarra uzten da hitz bakoitzeko (IV.7 irudia)(Alegria *et al.*, 1996).
4. Funtzio sintaktikoen osaketa: EDBLko informazioan oinarrituta, funtzio sintaktikorik esleitu ez zaion interpretazio morfologiko bakoitzari

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>/
    ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG> @<IZLG>
/<cowboy>/
    ("cowboy" IZE ARR)
/<hark>/
    ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ)
/<bere>/
    ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG> @<IZLG>
/<etxe>/
    ("etxe" IZE ARR)
/<handian>/
    ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
/<errezipitu>/
    ("errezipitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU)
/<zituen>/
    ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

IV.7 Irudia: Desaniguazio morfologikoaren emaitza.

funtzio sintaktiko bat esleitzten zaio islapen-erregelen¹⁰ bitartez. Izan ere, MGn oinarritutako analizatzaileak esaldia osatzen duen hitz orok funtzio sintaktikoa izatea eskatzen du, ondorengo prozesuen oinarri izango baitira elementu hauek. Hori dela eta, askotan funtzio sintaktiko klasikoak izango dira, baina beste askotan, funtzio sintaktiko tradizionaletan aurkitzen ez diren etiketetara jo behar izan dugu, etiketa funtzionaletara, alegia. Horietako batzuk dira, esaterako, IV.8 irudiko esaldiaren analisian, **errezipitu** aditz nagusiari, **zituen** aditz laguntzaileari eta **cowboy** eta **etxe** izenei esleitu zaizkien funtzio-etiketak, @ ikurra-rekin markatuta datozenak: @-JADNAG (aditz nagusi jokatugabea), @+JADLAG (aditz laguntzailea) eta @KM> (kasu-markadunaren modifikatzailea), hurrenez hurren.

5. Desaniguazio sintaktikoa: anbiguoak diren eta lerro berean agertzen diren etiketa sintaktikoen desaniguazioa gauzatzen da erregela sintaktikoen bitartez (Aduriz eta Díaz de Ilarraz, 2003). Lortzen den emaitza da IV.9 irudiko esaldiaren analisia.

Analizatzaile sintaktikoaren sarrera, beraz, morfologikoki aztertuta da-

¹⁰Islapen-erregelen funtzioa informazioa gehitzea da. Dena den, islapen-erregela zer den zehazki, B eranskinean adierazi dugu.

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>/
    ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG> @<IZLG>
/<cowboy>/
    ("cowboy" IZE ARR @KM>)
/<hark>/
    ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ)
/<bere>/
    ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG> @<IZLG>
/<etxe>/
    ("etxe" IZE ARR @KM>)
/<handian>/
    ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
/<errebitu>/
    ("errebitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU @-JADNAG)
/<zituen>/
    ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU @+JADLAG)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

IV.8 Irudia: Funtzio sintaktikoen osaketa.

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>/
    ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG>)
/<cowboy>/
    ("cowboy" IZE ARR @KM>)
/<hark>/
    ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ)
/<bere>/
    ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG>)
/<etxe>/
    ("etxe" IZE ARR @KM>)
/<handian>/
    ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG)
/<errebitu>/
    ("errebitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU @-JADNAG)
/<zituen>/
    ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU @+JADLAG)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

IV.9 Irudia: Funtzio sintaktikoak desanbiguatuta.

goen testu erreal bat eta gramatikak (desanbiguaziorako eta funtzio sintaktikoen esleipenerako definitutako murriztapenak eta islapenak) dira; hau da, analizatzairela testutik abiatzen da eta gramatikan bilatzen ditu esaldian edo testuan agertzen diren egiturak gauzatzea ahalbideratzen duten erregelak.

Behin analisia gauzatuta, irteera, morfologikoki eta sintaktikoki (azaleko funtzio sintaktikoak esleitura) aztertutako eta desanbiguatutako testua da.

Hemendik aurrerako azterketetan, analisiaren irteera hori beti hartu ahal izango da abiapuntutzat eta laguntzatzat.

MGren oinarrian dependentziara zuzenduriko sintaxia dago. Hau da, analisi sintaktikoa dependentzia-analisia da, soilik hitzen arteko erlazioak kontuan hartzen diren zentzuan. Hitzak ez dira esplizituki beren gobernatzai-lekin lotzen, baina etiketa sintaktikoek modu esanguratsuan murrizten du-te analisi bateragarrien multzoa, eta ikus daitezke analisien anbiguotasun-klaseen errepresentazio gisa. Halaber, MGren bidez loturiko analisi sintaktikoa azalekoa da (*shallow syntax* gisa ere ezaguna da).

Analisi-kate horretan, murriztapen-erregelen aplikazioaren ondotik geratzen diren etiketetan oinarrituta eta hitzaren edo zuriunetik zuriunerako karaktere-segidaren muga gaindituz, beste unitate sintaktiko handiago batzuk ezagutzen dira:

- Postposizio konplexuak: deklinabideko kasu-markak eta elementu bergainak osatzen dituzten egiturak ezagutzen dira MG formalismoan oinarritutako gramatikaren bitartez (Lersundi, 2004). Adibidez, **Lanez kanpoko harremanak dituzte** esaldian, **lanez kanpoko** postposizio konplexua, **lanez** hitzean hasten dela eta **kanpoko** hitzean bukatzen dela zehazten da.
- Kate sintaktikoak: formalismo bera jarraituz, esaldi bateko sintagmaka eta aditz-kateak bereizten dira (Arriola, 2000). Horrela, bada, aurreko adibide berean, **lanez** eta **kanpoko harremanak** sintagmaka eta **dituzte** aditz-katea bereiziko lirateke.

Horrenbestez, esan bezala, kate sintaktikoak bereizten diren urratsetik abiatuko gara esaldien analisi sintaktiko osoa gauzatzeko. Hori baino lehen, kate sintaktikoak ezagutzeko gramatikak zuzendu eta osatuko ditugu (V. kapitulua). Gramatikak zuzendu diogu, kate sintaktikoak identifikatzerakoan, sintagma bereizitan ezartzen dituelako postposizio konplexua osatzen duten hitzak, **Lanez kanpoko harremanak dituzte** esaldiaren bi analisi horiek erakus-ten duten moduan. Eta osatu, berriz, kontuan izan behar dugulako orain artean, kateak ezagutzeko hastapeneko urratsak egin direla.

IV.6 Laburbilduz

Kapitulu honetan, testu errealetako esaldiak sintaktikoki aztertzeko hartu dugun MG formalismoa aurkeztu aurretik, analisi sintaktikorako joera nagusiak deskribatu ditugu formalismo hau kokatzearen.

Egoera finituko sintaxiaren bidetik, Murriztapen Gramatika formalismoa erabili izan da, abantaila nabarmenak (eraginkortasuna, anbiguotasunaren ebazpena...) dituelako erreferentziatu ditugun lanek erakusten duten moduan. Beraz, hori guztia kontuan hartuta eta Dependentzia Gramatikaren oinarriekin ere bat datorrela ikusita, bide beretik jarraituko dugu esaldien analisi sintaktiko osoa gauzatzeko.

V. KAPITULUA

ANALISI SINTAKTIKO PARTZIALAREN ABANTAILAK

Kapitulu honetan aurkezten dugun lanaren oinarrizko helburua, linguistikoki zuzena eta konputazionalki sendoa den analisi sintaktiko partziala gauzatzea da MG formalismoa jarraituz. Zehatzago esanda, sarrera modura analisi eta desaniguazio morfosintaktikoaren emaitza hartuta, esaldietako kate sintaktikoak ezagutzeko osatu ditugun gramatikak aurkeztuko ditugu hizkuntzalariaren ikuspegitik.

V.1 Sarrera

Analizatzaile sintaktikoek sorturiko analisien xehetasun edota sakontasun maila, hizkuntzaren prozesamenduaren helburuaren mende dago. Izan ere, analisi sintaktiko hori bi eratakoa izan daiteke: osoa eta partziala.

Analisi sintaktiko osoa egiten denean, esaldien egitura sintaktikoak oso osorik eta ahalik eta zehaztasun handienarekin eman nahi dira. Horrelakoeitan, hainbat analisiren artetik analisi sintaktiko bakarra aukeratzea arazo nagusi bihurtzen da. Arazo horren arrazoi nabarmenena hizkuntzaren maila orotan agertzen den anbiquotasuna da. Ordea, Rodríguez-ek (2000) dioen moduan, hizkuntzaren prozesamenduko aplikazio guztiak ez dute analisi sintaktiko osorik behar. Hori dela eta, azken urte hauetan ikerketa-lan ugari egin da analizatzaile sintaktiko sendoak garatzeko helburuarekin. Horien artean dugu analizatzaile sintaktiko partziala, *shallow* edo *partial parsing* (Ait-Motkhtar

et al., 2002) izenarekin ere ezagutzen dena. Izenak berak adierazten duen moduan, mota honetako analizatzaileek informazioaren zati bat, ez guztia, aztertuko dute; beraz, analisi partziala esaldiaren analisi osoari kontrajarria ulertu behar da.

Analisi sintaktiko osoak ematen duen informazio zehatza galdu arren, analisi partzialak eraginkortasunez eta fidagarritasunez egiten dio aurre edozein testu erreala analizatzeko erronkari. Ideia nagusia, informazio morfosintaktikoa abiapuntutzat hartuta, testuak kateetan zatitzea, kateak zehaztea edota esaldi-mugak identifikatzea da, analisi osoa, ondoren etorriko den urratserako utziz. Esaldiak kateetara muriztuz, gutxiago dira elkarrekin lotu beharreko unitateak, eta ondorioz anbiguotasuna gutxitu egiten da. Horrezaz gainera, analizatzaile partzialek ematen duten informazio sintaktikoa baliagarri da hizkuntzaren prozesamenduko hainbat aplikaziotarako. Adibide batzuk aipatzearren, telefonoaren diskurtso zerbitzariak, nahikoa du hitz gakoak ezagutzearekin. Hemen, hizketa ezagutzen duen moduluak hitz esanguratsuenak hartzen ditu eta alde batera uzten du beste guztia. Beste aplikazio batzuk, hitz-kateak, sintagma modukoak, ezagutzera mugatzen dira. Hauetan, nahiz eta esaldia guztiz aztertuta ez egon, hitz-kateak ezagutzea nahikoa da erabili ahal izateko. Aplikazio hauen artean ditugu informazioaren berreskurapena eta galde-erantzun sistemak, besteak beste. *Verbmobil*¹ izeneko proiektuan ere, *parser* partzialak baliatu ziren itzulpen-sistema sendotzeko.

Kate sintaktikoa, hortaz, oso erabilgarria den tarteko errepresentazioa da. Segidan, V.2 atalean, testua kateetan zatitzea zertan datzan azalduko dugu. V.3an, kate horiek atzemateko analizatzaile sintaktikoak baliatuko dituen gramatikak deskribatuko ditugu, zein motatako egitura sintaktikoak ezagutzen dituen adieraziz. Jarraian, V.4 atalean, kate sintaktikoak ezagutzeko lanean egin ditugun ekarpenak adieraziko ditugu eta V.5 atalean, berriz, gramatika hauen ebaluazioa egingo dugu. Bukatzeko kapitulu honen laburpena egingo dugu.

V.2 Testuko kate sintaktikoak

Katearen edo *chunk* terminoaren lehen hurbilpena Abney-ri (1991) zor zaio. Honen hitzez baliatuz, kateak sintagma ez-errekurtsiboak dira; hau da, beren barruan beste sintagmarik edo katerik izan ezin dutenak dira. Hala, testua

¹<http://www.dfki.de/pas/f2w.cgi?iuic/verbmobil-e>. (2006-02-22an irakurria).

kateetan zatitzea gainjartzen ez diren eta elkarrekin sintaktikoki erlazionaturik dauden hitz multzoak atzematean datza.

Hain zuzen ere, analisi-katearen urrats honetan, esaldia osatzen duten eta funtzio sintaktikoen bitartez implizituki adierazita dauden hitzen arteko dependentzia-erlazioak azaleratuko ditugu kate sintaktikoak adieraziz.

Adibidez, V.1 irudiko **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldian, hitz bakoitzak daukan funtzio-etiketa, @ ikurraz markatua geratzen da eta katea osatzen duten hitzen arteko dependentziak < eta > ikurren bitartez adierazten dira; ikur hauek, halaber, modifikatzen duten gobernatzalea zein norabidetan dagoen adierazten dute. Horrela, bada, sintagmek esaldian betetzen dituzten funtzio sintaktiko nagusiak kasu-marka dramaten hitzei esleitu zaizkie, zehazki, **hark** erakusleari, subjektu (@SUBJ) funtzioa esleitu zaio eta **handian** adjektiboari, adizlagunarena (@ADLG). Eta bi sintagma horiek osatzen dituzten gainerako hitzei, berriz, beren gobernatzaleak eskuinetara agertzen direla adierazten dituzten funtzio-etiketak, aipaturiko ikurrak eta guzti; hots, lehen sintagmako **zinemako** eta **cowboy** hitzei izenlagun (@IZLG>) eta kasu-markadunaren modifikatzaile (@KM>) funtzio-etiketak esleitu zaizkie, eta bigarren sintagmako **bere** eta **etxe** hitzei ere etiketa berak esleitu zaizkie. Informazio horretan oinarrituta, beraz, V.1 irudian kako zuzenen artean adierazi diren motako kateak zehaztuko ditugu.



V.1 Irudia: Implizituki adierazitako kate sintaktikoen egitura.

Dena den, kateak definitzea edo mugatzea ez da hain erraza izan literaturan zehar; hau da, etiketatze sintaktikoaren maila honetan, testuko kate bat esleitu beharreko etiketa zein den zehazteaz gain, aukera askoren artean katetzat zer hartuko den erabaki behar da, eta katetzat jotzen diren egiturak ez dira berak hizkuntza guztiengandik.

Oro har, adostasuna badago etiketatze sintaktikoan ezagutu behar diren kate sintaktikoak zein diren adierazteko garaian; esaterako, izen-sintagma eta postposizio-sintagma. Ezadostasun handiagoa dago, ordea, beste zenbait zatirekin: aditz-sintagma eta mendeko perpausak. Bat ez etortze hau are na-barmenagoa da kateak zehazteko garaian ondoko anekdotak erakusten duen

moduan (Sampson, 1995). Urtean behin egiten den *Association of Computational Linguistics* hitzaldian, 1991koan hain zuen ere, bederatzi erakundetako hizkuntzaren prozesamenduko ikertzaileei zenbait esaldi eman eta bertako kateak zehazteko eskatu zitzaien. Adibide horietatik batean baino ez ziren ados jarri, (1) adibidean, hain zuen ere.

- (1) He said this constituted a [very serious] misuse [of the [Criminal Court processes] (**Hark esan zuen honek Krimen-Gortearen prozesuen erabilera okerra duela**).

Horien ustez, esaldi horretako kateak ziren i) *very serious* adjektibo-sintagma, ii) *of the Criminal Court processes* preposizio-sintagma, eta iii) *Criminal Court* izen-sintagma.

Ikus daitekeen moduan, katea sintaktikoki erlazionaturiko hitzez osatuta dago. Katearen barneko egitura aztertuz gero, gobernatzalea eta bere men-dekoak bereiziko genituzke. Gure proposamenean, katetzat sintagmaki (tradicionalki izena ardatz duten sintagmaki) eta aditz-kateak (aditz nagusiaz, aditz laguntzaileaz eta zenbait partikulaz osaturikoa) hartuko ditugu. Esaterako, (1) adibide osoan bost kate bereiziko genituzke: i) *He* (**Hark**) sintagma, ii) *said* (**esan zuen**) aditz-katea, iii) *this* (**honek**) sintagma, iv) *constituted* (**duela**) aditz-katea, eta v) *a very serious misuse of the Criminal Court processes* (**Krimen-Gortearen prozesuen erabilera okerra**) sintagma.

V.3 Kate sintaktikoen gramatika

Kate-sintaktikoak automatikoki lortzeko prozesuan, beharrezkoa da gramatikaren, analisi-teknikaren eta analizatzairearen arteko bereizketa egitea. Gramatika hizkuntzan onartuta dauden egituren espezifikazio formala da; analisi-teknika perpaus bat analizatzeko metodoa da, perpausaren egitura erabili den gramatikarekin bat datorren zehaztuko duena, eta analizatzalea, berriz, teknika zehatza aplikatuz eta gramatikaren laguntzarekin analisi sintaktikoa gauzatuko duen programa da. Guk, atal honetan, gramatika izango dugu aztergai.

Esaldi bateko sintagmaki eta aditz-kateak bereizteko definitu ditugun gramatikak ezagutza linguistikoan oinarritzen dira. IV. kapituluan esan bezala, kate sintaktikoko ezagutzeko hastapeneko urratsak Arriolarenean (2000) tesi-lanean egin dira. Gure zereginan, gramatika horiek osatzea, eta Arriolarenean la-

naren ondotik idatzi den postposizio konplexuen gramatika (Lersundi, 2004) kontuan hartuta zenbait erregela moldatzea izan da.

Gramatika horiek, MG formalismoa jarraituta idatzi diren 560 errege-lek osatzen dituzte. Horietatik 479 sintagmei dagozkie eta beste 81ak aditz-kateei. Erregela horiek guztiak C eranskinean jaso dira. Atal honetan erregela horien bitartez ezagutzen diren kate sintaktikoak deskribatuko ditugu.

Horrenbestez, jarraian aurkeztuko ditugun gramatika hauen helburua, batetik, irakurlea kateak adierazteko erabiltzen diren ikur eta laburtzapenekin ohitza da, eta bestetik, adibideak baliatuta kate horietan islatzen diren egituren berri ematea, egindako hobekuntzak barne. Egitura horiek ilustratzeko erabili ditugun adibideetan², azpimarratuta dauden hitzek hartuko dituzte etiketa horiek.

V.3.1 Aditz-kateen gramatika

Aditzen funtzioko- etiketetan eta aditz-kateko partetzat hartu ditugun egia baliorekin eta ziurtasun neurriarekin zerikusia duten partikuletan oinarrituta, aditz-kate jarraituak eta gehienez ere hiru hitz dituzten aditz-kate ezjarrai-tuak ezagutuko ditugu.

1. Hitz bat baino gehiagoko aditz-kate jarraituak markatzeko erabiltzen diren etiketen esanahia eta etiketak berak, hauek dira:
 - (a) Aditz-katearen hasiera: aditz-kate jarraitu bateko lehenengo hitzari esleituko zaion etiketa %ADIKATHAS da. Etiketa hau hartuko dute:
 - i. Adizki jokatuetan aditz laguntzailea behar duten aditz konposatuetako lehen hitzak, adibidez: Etorri da. Jakin izan banu, etorriko nintzatekeen. Bere inozotasuna aurpegiratu zion.
 - ii. Adizki jokatuetan (konposatu nahiz trinko) zein jokatugabeetan aditzaren inguruan agertzen diren partikulek (ziurtasuna eta egiatasuna adierazten dutenak) ere hartuko dute etiketa hau. Adibidez, Mikel ez dator. Ba al daukazu dirurik hau eros-teko? Ez etorri!

²Adibide hauek *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II* (Euskaltzaindia, 1987) eta (Aduriz *et al.*, 2006b) lanetatik hartuak izan dira.

- iii. Izen/adjektibo + izan/ukan aditz-elkartuak (**behar izan, nahi izan, bizi izan, balio izan, maite izan, komeni izan, merezi izan...**). Aditz-lokuzioak kate bezala hartzeko, horietako osagai izan daitezkeen multzoa zehaztu dugu. Hona hemen bildu ditugun aditz-elkartuetako hitzeturriko batzuk: **ageri, aiher, balio, behar, bizi, falta....** Izen, adjektibo kategoriako hitz horiek dira etiketa hau jasoko dutenak. Adibidez, **nahi dut**. Hala ere, esan beharra dago *lo egin, negar egin...* modukoak ez dituguna aditz-kate gisa ezagutzen. Homelakoetan, aurreko osagaiari absolutibo mugagabe analisia eman diogu; adibidez, **lo** izen absolutibo mugagabe legez analizatuko dugu **lo egin** moduko aditz konposatueta azaltzen zaigunean.
 - iv. Perifras multzoak: **Garaiz joan nahi zuten etxera. Etxera garaiz joan behar dugu....**
- (b) Aditz-katearen bukaera: aditz-kate jarraitu bateko azken hitzari %ADIKATBU esleituko zaio. Aurreko adibide berak baliatuta, hemen ere azpimarratutako hitzak dira etiketa honekin markatuko direnak:
- i. Adizki jokatuetan, aditz konposatueta aditz laguntzaileak hartuko du marka hau. Adibidez: **Etorri da. Jakin izan banu, etorriko nintzatekeen. Bere inozotasuna aurpegiratu zion.**
 - ii. Adizki jokatuetan (konposatu nahiz trinko) zein jokatugabeeetan aditzaren inguruan agertzen diren partikulaz (ziurtasuna eta egiatasuna adierazten dutenak) osaturiko aditz-kateetako azken hitzek hartuko dute etiketa hau. Adibidez, **Mikel ez dator. Ba al daukazu dirurik hau erosteko? Ez etorri!**
 - iii. Izen/adjektibo + izan/ukan aditz-elkarreka (**behar izan, nahi izan, bizi izan, balio izan, maite izan, komeni izan, merezi izan...**). Aditz-katearen hasiera markatzeko aipatu ditugun aditz-lokuzioetako azken hitzak edo hitz horiekin datozen aditzak dira etiketa hau hartuko dutenak. Adibidez, **nahi dut**.
 - iv. Perifras multzoak: **Garaiz joan nahi zuten etxera. Etxera garaiz joan behar dugu....**
2. Hitz bateko aditz-kateak.
- (a) Aditz-kate soila: hitz batez osatutako aditz-katea %ADIKAT etiketarekin markatuko da. Beraz, etiketa hau hartuko dute:

- i. Adizki jokatuetako aditz trinkoak; adizkia soilik agertzen deean; hau da, ahal, ez, omen, ba... moduko partikularik gabe. Adibidez, Mirenek badaki. Egiazko tresora lan segituan datzala.
- ii. Adizki ez jokatuetako perpaus lokabeetan agertzen diren aditzoinak edota partizipioak:
 - aginduak ematean: Urrikal jauna! Etorri berehala!
 - galdera erretoriko edo harridurazkoetan: Nork hari eskua eman?
 - errefrau edo itxura bereko esapideetan, kontakizunetan: Lehenik zernahi esan, gero zernahi egin eta azkenean zernahi ikus. Sar eskuinetik... ama besarka....
- iii. Gauza bera perpaus txertatuetan ere:
 - errefrauetan: Otsoa non aipa, han gerta.
 - zehar galderetan: Ez dakit nondik sar.
 - hautuzko perpausetan: Zuk aitor ala hark sala, eni berdin zait.
 - zenbait postposiziorekin: Bazkal ostean...
 - zenbait esapidetan: Ikus ahala urrun.
Kasu horietan guztieta askotan partizipioa ere erabiltzen da.
- iv. Adjektiboa ageri den testuinguru berberetan ager dakigukeen partizipioa ere horrela markatuko da: Ama hila dugu aspaldion. Sagarrak amari emanak dizkiot.
- v. Jokatugabeko zenbait mendeko perpausen aditza ere horrela markatuko da: Goizean etorri gizona.
- vi. Aditz-izena bera ere bai: Hori irakurtzeak buruko mina ematen dit. Izerditzea ona dela osasunerako.

Orain arteko etiketak aditz-kate jarraituetan erabiltzen dira. Ondoren aditz-kate ezjarraituetan erabiltzen direnak azalduko ditugu.

3. Aditz-kate ezjarraituak.

Oro har, hiru hitzez osatutako aditz-kate ezjarraituak ezagutuko dira. Horiek markatzeko erabiliko diren etiketak hauek dira:

- (a) Aditz-kate ezjarraituako lehen hitzari %ADIKATETENHAS esleituko zaio. Adibidez: Ezin zuen ogirik erosi.

- (b) Aditz-kate ezjarraituetako bigarren hitza, %ADIKATETEN etikarekin markatuko da. Adibidez: Ezin zuen ogirik erosi.
- (c) Aditz-kate ezjarraituetako azken hitzari %ADIKATETENBU etiketa egokituko zaio. Adibidez: Ezin zuen ogirik erosi.

Gutxi badira ere, **Ez gaur etorri!** motako adibideak agertu zaizkigu lagi-nean. Horrelakoak aditz-kate ezjarraitutzat hartuko ditugu, baina aurreko hiru etiketak erabili ordez, bi izango dira erabiliko ditugunak, aditz-kateko lehen hitzari dagokion %ADIKATETENHAS eta aditz-kateko azken hitzari dagokion %ADIKATETENBU. Horren arabera, adibide horretako **Ez** hitza %ADIKATETENHAS izango da eta **etorri** hitza, berriz, %ADIKATETENBU.

V.3.2 Sintagmen gramatika

Sintagma-etiketa hauek aditz-funtzioa ez duten gainontzeko funtzio sintaktikodun hitzei esleituko zaizkie. Funtzio sintaktikoetan egin den funtzio nagusi (@ etiketa dutenak) eta modifikatzaile (> edo < ikurra dutenak) bereizketari esker atzemango ditugu sintagma-hasierak eta sintagma-bukaerak, eta baita hitz bakarreko sintagmata ere. Sintagmata ezagutu ahal izateko, aditz-kateekin egin dugun bezalaxe, ondoko etiketak definitu ditugu:

1. Hitz bat baino gehiagoko sintagmata.
 - (a) Hitz bat baino gehiagoko sintagmetan, hasierako hitza %SIH etikarekin markatuko da:
 - i. Izen kategoriako hitzak: Gezur galanta esan du.
 - ii. Izenaren ezkerrera ager daitezkeen izenlagun eta zenbatzaileek: Bi aldiz; bere emaztearekin
 - iii. Postposizio konplexuaz osatutakoa: Borroka harrigarri baten ondoren
 - iv. Sintagma koordinatu batzuetako lehen hitza: Haren lehengo aurpegi argi eta ederra. Ogi eta ardoa
 - (b) Hitz bat baino gehiagoko sintagmetan, azkenari %SIB esleituko zaio. Aurreko adibide edo egiturak baliatuz:
 - i. Izen kategoriako hitzak, izena izenlagun eta zenbatzaileek laguntzen dutenean: Bi aldiz; bere emaztearekin

- ii. Izenaren eskuinera ager daitezkeen adjektiboek eta zenbatzai-leek: **Gezur galanta; emakume zahar bat; bere ahaleginaren ondorio gaiztoak...**
 - iii. Postposizio konplexuaz osatutakoa: **Borroka harrigarri baten ondoren**
 - iv. Sintagma koordinatu batzuetako azken hitza: **Haren lehengo aurpegi argi eta ederra. Ogi eta ardoa**
2. Hitz bateko sintagmak.
- (a) Hitz bakarreko sintagmei %SINT etiketa esleituko zaie:
 - i. Izen kategoriako hitzak: **Pellok egin du. Amak esan dio.**
 - ii. Izenordainak: **Nik zalantza egin dut.**
 - iii. Aditzondoak: **Atzo ez zen lanera etorri.**
Eta izena elidituta dagoenean, sintagma osa dezaketen gainerako kategoriak bakarrik agertzen direnean:
 - iv. Erakusleak: **Honekin ezin da urrutira joan.**
 - v. Adjektiboak: **Gazteek dakite ongien hori.**

Deskribatu berri ditugun adibideei dagozkien erregelak aplikatuta, V.2 irudiko analisia da analizatzairearen irteera. Analisi horrek erakusten duen moduan, hiru kate sintaktiko dira esplizitu egin direnak **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldian: lehena, **Zinemako cowboy hark** sintagma; bigarrena, **bere etxe handian** sintagma eta hirugarrena, **errezipitu zituen** aditz-katea. Lehen bi kateetan, %SIH eta %SIB etiketen bitartez adierazi da bakoitza non hasi eta non bukatzen den. Eta hirugarrena, aditz-katea, %ADIKATHAS eta %ADIKATBU etiketen bitartez etiketatu da.

V.4 Egindako ekarpenak

Sintagmen eta aditz-kateen gramatikak deskribatu ahala, Arriolak (2000) bere lanean erakusten dituen zenbait egitura atzemateko erregelak zehaztu eta beste berri batzuk definitu ditugu.

Lan hau gauzatzeko erabili dugun lagina ez da bera izan, ordea. Lehenak hiztegi-corpusa erabili duen bitartean, guk EPEC corpuseko 24.000 hitzeko lagina baliatu dugu.

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>
    ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG> %SIH)
/<cowboy>/
    ("cowboy" IZE ARR @KM>)
/<hark>/
    ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ %SIB)
/<bere>/
    ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG> %SIH)
/<etxe>/
    ("etxe" IZE ARR @KM>)
/<handian>/
    ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG %SIB)
/<errezibitu>/
    ("errezibitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU @-JADNAG %ADIKATHAS)
/<zituen>/
    ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU @+JADLAG %ADIKATBU)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

V.2 Irudia: Kate sintaktikoen bereizketa MGren irteeran.

Definitu ditugun erregela berriez gain, aurreko lanarekin alderatuta egin ditugun hobekuntzak dira:

1. Postposizio konplexuak kate sintaktikoetan txertatu ditugu.

Postposizio konplexuen gramatika kate sintaktikoak ezagutzeko gramatikaren ondotik definitu izanak, kateen bereizketa oker egitea dakin berarekin. Adibidez, (1) esaldian **ortzean zehar** postposizio konplexua bi hitzez osatutako sintagma dela adierazi beharrean, hitz bakarreko bi sintagmatzat (**ortzean** eta **zehar**) hartzen dira sintagmen gramatikan.

- (1) Era honetan, eguzkia ez zen haientzat [ortzean zehar] zebilen bideratzti anonimoa, egunsentiro beren arimetan lehertzen zen zerbaiz baizik.

Arazo horri irtenbidea ematearren, bat ez datozen egitura horiek zein diren aztertu ondoren, egokitzapen hauek egin ditugu:

- (a) Postposizio konplexuaren hasiera ez daiteke inoiz hitz bakarreko sintagma izan (V.3 irudia). Horrenbenbestez, (1) adibideko esaldian, **ortzean** hitza sintagmaren hasiera izango da (V.4 irudia), eta ez hitz bakarreko sintagma.

Sintagmak
(...) [haiantzat] %SINT [ortzean] %SINT [zehar] %SINT [zebilen] %ADIKAT [bidazti anonimoa,] %SIH-%SIB
Postposizio konplexuak
(...) haientzat [ortzean zehar] POS_HAS-POS_PUK zebilen bidazti anonimoa

V.3 Irudia: **ortzean zehar** postposizio konplexuaren lehengo analisia.

Sintagmak eta postposizio konplexuak
(...) [haiantzat] %SINT [ortzean zehar] %SIH-%SIB [zebilen] %ADIKAT [bidazti anonimoa,] %SIH-%SIB

V.4 Irudia: **ortzean zehar** postposizio konplexuaren oraingo analisia.

- (b) Postposizio konplexuaren bukaera ez daiteke inoiz hitz bakarreko sintagma izan. Beraz, (1) esaldiko **zehar** hitzari esleitu zaion %SINT etiketa %SIB etiketarekin ordezkatu behar da.
- (c) Postposizio konplexuaren hasiera ez daiteke inoiz sintagmaren bukaera izan (V.5 irudia). Adibidez, (2) esaldian, **15etik** hitzarekin amaitu beharrean sintagma, bere eskuinera dagoen **aurrera** hitzarekin amaituko da (V.6 irudia).
 - (2) Ordutik aurrera, [1874ko apirilaren 15etik] aurrera...
- (d) Postposizio konplexuaren bukaera ez daiteke inoiz sintagmaren hasiera izan (V.7 irudia). Hortaz, (3) adibideko esaldian, **buruzko** hitza da zuzendu behar dena (V.8 irudia).
 - (3) Henriette Airek [olerki unibertsalari buruzko] bere gogoetak plazaratu ditu.
- (e) Postposizio konplexuak eta sintagmak neurri berekoak izan daitzke, bietan bat etorriz hasierak eta bukaerak. Horrela, bada, (4) esaldian, lehen bi hitzek (**asteburuaren aurrean**) osatzen dituzte aztergai ditugun bi egitura hauek (V.9 irudia).

138 ANALISI SINTAKTIKO PARTZIALAREN ABANTAILAK

Sintagmak
[1874ko apirilaren 15etik] %SIH-%SIB [urrera] %SINT
Postposizio konplexuak
1874ko apirilaren [15etik aurrera] POS_HAS-POSBUK

V.5 Irudia: **1874ko apirilaren 15etik aurrera** postposizio konplexuaren oraingo analisia.

Sintagmak eta postposizio konplexuak
[1874ko apirilaren 15etik aurrera] %SIH-%SIB

V.6 Irudia: **1874ko apirilaren 15etik aurrera** postposizio konplexuaren oraingo analisia.

Sintagmak
[Henriette Airek] %SIH-%SIB [olerki unibertsalari] %SIH-%SIB [buruzko bere gogoetak] %SIH-%SIB [plazaratu ditu] %ADIKATHAS-%ADIKATBU
Postposizio konplexuak
Henriette Airek olerki [unibertsalari buruzko] POS_HAS-POS_PUK bere gogoetak plazaratu ditu

V.7 Irudia: **olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak** sintagmaren lehengo analisia.

(4) [Asteburuaren aurrean] beldur zen.

- (f) Postposizio konplexuak eta sintagmak neurri desberdinakoak direnean, postposizio konplexua sintagma baino unitate txikiagoa izango da beti. Esaterako, (5) adibideko **Nire izu-ikara zentzuga-bearen aurrean** sintagmak bere barnean hartu du **zentzugabearen**

Sintagmak eta postposizio konplexuak
[Henriette Airek] %SIH-%SIB [olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak] %SIH-%SIB [plazaratu ditu] %ADIKATHAS-%ADIKATBU

V.8 Irudia: **olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak** sintagmaren oraingo analisia.

Sintagmak
[Asteburuaren aurrean] %SIH-%SIB [beldur] %SINT [zen] %ADIKAT
Postposizio konplexuak
[Asteburuaren aurrean] POS_HAS-POS_PUK beldur zen

V.9 Irudia: **Asteburuaren aurrean** sintagmaren oraingo analisia.

aurrean postposizio konplexua.

(5) [Nire izu-ikara zentzugabearen aurrean]...

Egokitzapen hauekin guztiekin programa informatiko bat osatu da. Programa hau kate sintaktikoen emaitzaren ondoren exekutatzen da eta postposizio-konplexuak sintagma-kateen tamainakoak edo sintagma-kate barruko egiturak izatea lortzen da.

2. Aditz-kate ezjarraituak zehaztu ditugu.

Aditz-katee dagokienez, aditz-kate jarraituak gainbegiratu ditugu eta aditz-kate ezjarraituen azterketa zehatzagoa egin dugu. Azterketa horren ondorioz, beste etiketa bat sortu dugu: %ADIKATEHENAS.

Aurreko atalean azaldu den bezala, etiketa hau aditz-kate ezjarraituetako lehen hitzari esleitzen zaio. Esaterako, (6) esaldian, **ez zuen egiten** aditz-kate ezjarraituko **ez** hitzari esleituko zaio.

(6) So nuen hora ere, baina [ez zuen [ezagutu-itxurarik] egiten].

Horrela, aditz-kate jarraituak eta ezjarraituak ebaluatu ahal izan ditugu biak nahasteko beldurrik gabe, kontuan izan behar baitugu lehen aditz-katearen hasiera adierazten duen etiketa bera (%ADIKATHAS) erabiltzen zela bietarako.

3. Egitura koordinatuen azterketa mugatu dugu.

Egitura koordinatuen konplexutasuna ikusita, koordinazioa analisi prozesu honetatik kanpo aztertu behar dela ondorioztatu dugu. Alde batetara utzi dira, esaterako, *koma* puntuazio-markaren bitartez loturiko egiturak (adibidez, **Zuk ordaintzen dituzu afariak, ohea eta dena**); aditz-kateko osagairen bat elidituta duten egiturak (adibidez, **Zigarroa piztu eta aldizka nire ezpainetan jartzen zuen**); perpausen arteko lotura bera (adibidez, **Orduan ez dik inork aurkituko, eta inork ez dik barre egingo**) edota kategoria desberdinak juntatzen direnko egiturak (adibidez, **Pixa-ka bat zimel eta higatuagoa zegoen**). Hau da, horrelako egituretan ez dira sintagma eta aditz-kateak ezagutuko.

Erabaki hau hartzeko garaian, hizkuntzalariek egitura koordinatuak etiketatzekoan izan dituzten zailtasunak edota antzeko egituretan irizpide berak jarraitu ez izanak ere lagundu du. Horrenbestez, eta koordinazioaren tratamendua erabat ez baztertzearren, sintagmen gramatikan, (7) adibideko **Udaberrian** eta **udazkenean** bezalako egiturak aztertu ditugu, deklinabideko kasu-marka bera daramaten eta hitz bakar batez osatutako sintagmen arteko loturak, alegia. Horrelakoak, kate bakartzat hartuko ditugu; beraz, (7) adibidean, **Udaberrian eta udazkenean** katea izango da, eta bertan, **Udaberrian** hitza sintagma-hasiera eta **udazkenean** sintagma-bukaera dela adieraziko dugu.

- (7) [Udaberrian eta udazkenean] txoriak alde batetik bestera igarotzen dira.

Laburbilduz, bi gramatika horietan definitu ditugun erregelean bitartez kate sintaktikoak ezagutu ditugu; hau da, hizkuntzalaritzan definitzen den sintagma moduko kateak zehaztu nahi izan ditugu. Hori posible izan ez denean, lortu diren egiturak osatugabeak dira; baina zuzenak, ahalik eta estaldura handiena lortzeko helburuarekin.

V.5 Ebaluazioa

Hirugarren atalean deskribatu ditugun gramatikak ebaluatzeko 24.000 hitzez osatutako beste ligin bat hartu dugu EPEC corpusetik. Ligin hau, morfosintaktikoki desanbiguatuta dago; hau da, analizatzaileak baliatuko dituen kateen gramatika hauek analisi bakarra eta zuzenaren gainean egingo dute lan.

Analizatzaile sintaktikoak aztertutako ligin hau eskuz markatu den ligin berarekin alderatu dugu *Xiraba* izeneko ebaluazio-tresnaren bitartez, V.1 taulan ikusten den moduan.

	Analisi automatikoa		Eskuzko analisia
27569	“<ifarraldetik>”	27569	“<ifarraldetik>”
	<Correct!> “iparralde” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABL @ADLG S:2154 %SINT		<Correct!> “iparralde” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABL @ADLG %SINT
27570	“<hegoalderantz>”	27570	“<hegoalderantz>”
	<Correct!> “hegoalde” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABZ @ADLG S:1939 %SINT		<Correct!> “hegoalde” IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK ABZ @ADLG %SINT

V.1 Taula: Alderatutako perpaus-zatia.

Ebaluazio hau bi ezaugarriri erreparatuz egin dugu:

1. Doitasuna: analizatzaile sintaktikoak esleituriko sintagma nahiz aditz-kate etiketak ongi esleituta dauden neurten da.
2. Estaldura: sintagma eta aditz-kate diren guztietatik zenbat markatu dituen analizatzaileak da neurten dena.

Oro har emaitza onak lortu ditugu ebaluatu ditugun kate sintaktikoetan. Adibidez, V.2 taulan sintagmen ebaluazioaren emaitzak ageri dira.

142 ANALISI SINTAKTIKO PARTZIALAREN ABANTAILAK

	Doitasuna	Estaldura
%SINT	% 94,7	% 80,3
%SIH %SIB	% 84	% 91,1

V.2 Taula: Sintagmen ebaluazioaren emaitzak.

Osagai bat baino gehiagoko sintagmetan, sintagma koordinatuak dira arazo-iturri. Batetik, zenbait koordinazio-egitura ez dira harrapatzen, eta, bestetik, harrapatzen diren batzuk oker daude. Horietaz gain, tartekiek edo puntuazio-markek (marra edo gidoi luzeak, parentesiak eta kakotxak) sortzen dituzten etenek ere eragina dute emaitza hauetan. Adibidez, ... **ninduzun itsasoan txalupa koxkor -niretzat, intxaur azal txikitxo- batean** perpusean **txalupa** hitzari sintagma-hasiera (%SIH) etiketa esleitu zaio eta **batean** hitzari sintagma bakarreko hitzari dagokion %SINT etiketa. Halaber, beste zenbait egitura modu berean markatu ez izanak ere badu zerikusirik portzentaje horietan; esaterako, **elizdorrerik altuena** bi hitzez osatutako sintagmatzat hartu da eskuzko analisian eta automatikoan, aldiz, hitz bakarreko bi sintagmatzat.

Aditz-kateei dagokienez, V.3 taulan hitz bat baino gehiagoz osatutako aditz-kate jarraituen ebaluazioaren emaitzak ageri dira.

	Doitasuna	Estaldura
%ADIKATHAS %ADIKATBU	% 84,1	% 86,5

V.3 Taula: Aditz-kate jarraituen ebaluazioaren emaitzak.

Aditzen kasuan ere aipatu beharra dugu perpaus-mailan gertatzen den juntadura arazo-iturri modura.

Aurrera begira, kontuan hartzekoa da, besteak beste, aditz-kate ezjarraituetan, okerra esaldi nagusiko aditz-katean mendeko perpausari dagokion aditz-katea tartekatzen denean gertatzen dela. Horren adierazle dugu **Eta ezin da ondorio honetara ailegatzen ez den doktrina erlijiosorik bururatu** adibidea. Adibide honetan **ezin da bururatu** aditz-kate ezjarraitu modura etiketatu beharrean, **ezin da** aditz-kate jarraitu eta **bururatu** hitz bakarreko aditzkatetzat hartu ditu analizatzaire sintaktikoak.

Horrenbestez, kate sintaktiko horiek zuzentze aldera egitura horiek ezaugzeko erregelek etorkizunean aztertu beharko ditugu.

V.6 Laburbilduz

Analisi sintaktikoan aurrera egiteko ezinbestekoa dugu kate sintaktikoen berizketa zuzen egitea. Helburu horrekin definitu ditugun gramatikak aplikatuta ezagutzen diren egiturak zein diren azaldu ditugu kapitulu honetan, aurretik zeuden zenbait akats ere konpondu direlarik.

Gramatika horiek ebaluatu eta lortu diren emaitzek analisi sintaktiko partzialaren fidagarritasuna eta sendotasuna bermatu dute.

Mota honetako prozesuen abantaila, batetik, errore kopurua txikia izatean datza, hori dela eta analisi partziala, irtenbide modura azaltzen da analisi osoaren aurrean; eta bestetik, lortzen diren kate sintaktikoek ondorengo urratsetako analisi sintaktikoak erraztu ez ezik, aplikaziorako interesgarriak diren sistemak garatzeko bidea zabaltzen dute.

VI. KAPITULUA

DEPENDENTZIA GRAMATIKA KONPUTAZIONALAK


Kapitulu honetan, analisi sintaktiko partzialetik osorako jauzia egingo dugu. Horretarako, dependentzia-gramatika konputazionalak definituko ditugu analisi-katearen aurreko emaitzan oinarrituta, kate sintaktikoetan, alegia. Gramatika horiek analizatzaire sintaktikoaren bitartez aplikatu ondoren, corpuseko esaldien analisi sintaktiko osoak lortuko ditugu.

VI.1 Sarrera

Tradizionalki, gramatika-ereduak aplikazio konputazionalak kontuan hartzen ez zitzuten hizkuntzalariek sortu ohi zitzuten; edota, konputazio arloko iker-tzaileek. Azken hauek, esaterako, lehendabizi analisi sintaktikoa gauzatzeko eredu matematikoa aukeratzen zuten eta ondoren deskripzio linguistikoa aukeratutako eredura behartzen zuten. Ondorioz, lortzen zen emaitza hizkuntzalari batek desiratuko lukenetik urrun samar geratzen zen.

Gure hurbilketa bi mutur hauen artean geratzen da. Gramatikak ikuspegi linguistikotik definitu ahala, corpusean aplikatuz joan gara. Orokorean, gramatikek motibazio praktikoa izan dute. Izan ere, gure helburu nagusiene-tako bat esaldien analisi sintaktikoa automatikoki burutzea da dependentzia-erlazioak erabiliz. Hala, analisi sintaktiko partzialetik analisi sintaktiko osora pasako gara, kate sintaktikoa osatzen duten elementuen arteko lotura ez ezik, kate horien artekoa ere gauzatuko baita. Honen guztiaren emaitza, III. kapi-

tuluan ikusi ditugun bezalako dependentzia-zuhaitzak izango dira; hau da, VI.1 irudikoaren modukoak.



VI.1 Irudia: **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldia-ren dependentzia-zuhaitza.

Adibide horretan, VI.1 irudiko dependentzia-zuhaitzean, esaldia osatzen duten elementuen arteko gobernatzaile/mendeko erlazioak irudikatu ditugu dependentzia-etiketen bitartez. Horrela, bada, sintagmetako gobernatzaile diren **cowboy** eta **etxe** izenak **errezipitu** aditzaren mendekoak dira. Era berean, sintagmetako gobernatzaile horiek beren mende dituzte beste hitz hauek: **zinemako** eta **hark** batetik, eta **bere** eta **handian**, bestetik. Eta bukatzeko, **errezipitu** aditzaren mende dugu aditz laguntzailea bera, **zituen** hitza, alegia. Lotura hauetan agertzen diren dependentzia-etiketek, mendekoek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak adierazten dituzte.

Horrelako dependentzia-zuhaitzak lortzeko garatu dugun analizatzaile sintaktikoak nola egiten duen lan azalduko dugu VI.2 atalean; VI.3n, analisi sintaktiko automatikoa gauzatzeko jarraitu dugun metodologia zehaztuko dugu. Analizatzaile horrek baliatzeko formalizatu ditugun gramatikak, berriz, VI.4 atalean deskribatuko ditugu. Ondoren, VI.5ean, gramatika horiek ebaluatu eta atera ditugun emaitzak emango ditugu ezagutzera. VI.6an, lan honetako ateratako ondorioak adieraziko ditugu, eta azkenik, VI.7 atalean, egin duguna laburbilduko dugu.

VI.2 Aurrekariak

Analisi sintaktikoaren urrats honetan, esaldi osoaren analisiari ekingo diogu aurreko emaitza abiapuntu hartuta. MGren aldetik muga bat ikusten dugu, formalismoa desanbiguaziorako bideratuta baitago hein handi batean.

Horren aurrean, formalismoaren sortzaileek dependentzietan oinarritutako egoera finituko beste analizatzaile sintaktiko bat garatu zuten ingeleserako: *Functional Dependency Grammar* (FDG) (Järvinen, 2003).

MG abiapuntutzat harturik garatu zuten analizatzaile sintaktiko horren bitartez, testu errealetako errepresentazio sintaktikoak esplizitu egiteaz gain, lehen ezin ziren egitura batzuk aztertzea lortu zuten: dependentzia ezjarraituak, egitura ez-proiektiboak, eta eliditutako egiturak, besteak beste.

Hauen etiketatzeko lanak Tesnièrek (1959) sartutako eta geroago Melčuk eta Pertsov-ek (1987) defendatutako dependentzia-teoria klasikoaren eredu jarraitzen du. Hona hemen, Järvinen eta Tapanainen-en (1997) aipatu lanean azaltzen diren ezaugarri nagusiak:

- Oinarritzko elementu sintaktikoa ez da hitza, gunea baizik.
- Elementu bakoitzak gune bakar bat du.
- Emaitza zuhaitz bat izango da.
- Dependentzia funtzionalak *linken* bidez, hots, loturen bidez adierazten dira.
- Modifikatzaileak ez dira derrigorrezkoak.
- Edozein *input* analizatuko da, nahiz eta zuzena ez izan.
- Deskribapena laua da, maila sintaktiko bakarra izango da.

Alderdi konputacionaletik begiratuta, formalismo honi hurbiltzeko arrazoiak bi ditugu: oinarrian MGren bidetik jarraitzen duela, eta MG landu dutenek bide honetatik jo dutela sintaxian aurrera egin ahala. Dena den, FDG analizatzailea hizkuntza diferenteetan erabil badaiteke ere, euskararako orain arte baliatutako analizatzailea garatzea erabaki dugu, dependentziak esplizitu egingo dituen beste programa bat erantsiz: *Burubil* programa. Erabaki honek gure tresnak berrerabiltzeko printzipioarekin du zerikusia.


Esaldiak osatzen dituzten elementuen arteko dependentzia-erlazioak esplizitu egiteko helburuarekin, analisi sintaktikoa bi urratsetan gauzatuko dugu. Lehen urratsean, corpuseko esaldiak osatzen dituzten elementuei dependentzia-etiketa bana esleituko diegu Euskararako Dependentzia Gramatika Konputazionalean (EDGK-I) definitutako erregelen bitartez. Bigarren urratsean, gobernatzaire/mendeko erlazioan dauden hitzak zein diren zehaztuko dugu horretarako idatzi dugun EDGK-II gramatika baliatuta. Honen guztien emaitza, binakako dependentzia-erlazioak markatuz esaldi bakoitzeko sortzen den dependentzia-zuhaitza dugu. Esaterako, VI.1 taulan, lau zutabean adierazi dugun **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** esaldiaren analisiak, analizatzaile sintaktikoaren irteera irudikatu nahi du; horrela bada, lehen zutabeen, esaldia osatzen duten hitzak daude, esaldian duten hurrenkera lineala adieraziz zenbakien bitartez; bigarrenean, hitz bakoitzaren kategoria zehaztu dugu (izena (IZE), determinatzailea (DET), adjektiboa (ADJ), aditza (ADI) eta aditz laguntzailea (ADL)); hirugarrenean, lehen zutabeko hitz bakoitzaren gobernatzairea adierazi dugu esaldian duen hurrenkera markatuz, eta laugarrenean, hitz bakoitzari esleitu zaion dependentzia-etiketa idatzi dugu.

Mendekoa	Kategoria	Gobernatzailea	Dependentzia-etiketa
1 Zinemako	IZE	2 cowboy	ncmod>
2 cowboy	IZE	7 errezipitu	ncsubj>
3 hark	DET	2 cowboy	<detmod
4 bere	DET	5 etxe	ncmod>
5 etxe	IZE	7 errezipitu	ncmod>
6 handian	ADJ	5 etxe	<ncmod
7 errezipitu	ADI	erroa	aditz_nagusi
8 zituen	ADL	7 errezipitu	<auxmod

VI.1 Taula: **Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen** adibideko dependentzia-etiketak.

VI.3 Jarraitutako metodologia

Corpusaren etiketatzeko sintaktikoa, dependentzia-mailan, automatikoki nola gauzatzen den ikus daiteke VI.2 irudian.



VI.2 Irudia: Analisi sintaktiko automatikoaren prozesua dependentzia-mailan.

Prozesu hori aurrera eramateko, kate sintaktikoak markatuta dituen EPEC corpusaren zati bat, hots, zuhaitz-bankua eraikitzeko erabili dugun bera hartu dugu abiapuntutzat.

Hala, corpusaren zati horren analisian eta zuhaitz-bankua eraikitzeko definitu dugun etiketatze-eskeman oinarrituta eta MG formalismoa jarraituz, dependentzia-erregelak idatzi ditugu: EDGK-I gramatika. Erregela horien funtzionaltasuna ikusteko, aipatutako corpus-zatian aplikatu ditugu. Ondoren, datu edo analisi okerrak zuzendu ditu hizkuntzalari batek. Zuzenketa horien atzetik, erregelak birfindu eta berriak osatu ditugu orain arteko prozesu bera errepikatzu.

Behin dependentzia-etiketak esleituta, dependentzia-erlazio horiek esplizitu egiteko baliatu dugun gramatika idatzi dugu: EDGK-II. Gramatika hau

aztergai dugun corpusari aplikatu diogu *Burubil* programaren bitartez. Segidan, datuak edo analisiak zuzenak diren egiaztatu dugu eta gramatika gainbegiratu dugu egin beharreko zuzenketak txertatuz.

Zenbat eta sendoagoa izan analisi linguistikoaren deskripzioa oinarrian, orduan eta erabilgarriagoak izango dira praktikan analisi hori baliatzen dituzten analisi-tresnak.

VI.4 Euskarako Dependentzia Gramatika Konputazionalak (EDGK)

Atal honetan, analizataile sintaktikoa garatzeko definitu ditugun Euskarako Dependentzia Gramatika Konputazionalak deskribatuko ditugu. Deskripzio horretan, aztertuko diren esaldi-egituren zehaztapenean eta gramatika konputazionalean kontuan hartzen diren ezaugarriean jarri dugu arreta.

VI.4.1 EDGK gramatiken oinarriak

Analisi sintaktiko partzialaren ondotik aplikatzen den lehendabiziko gramatika (EDGK-I) idazteko, analisi horren emaitza (kate sintaktikoen bereizketa) eta zuhaitz-bankua eraikitzeko oinarriak hartu ditugu kontuan; zehatzago esateko, puntu hauei erreparatu diegu:

1. Testuingurua; hau da, dependentzia-erlazioan dauden bi elementuak (gobernatzailea eta mendekoa) zein testuingurutan agertzen diren. Testuinguru honen bitartez erregela aplikatu ahal izateko zein ezaugarri bete behar dituen bakoitzak deskribatzen da: hitzaren kategoria, funtzio sintaktikoa eta kate sintaktikoen zein osagai den, besteak beste.
2. Hurrenkera edota posizioa; alegia, zein den bakoitzaren kokalekua esaldian.
3. Printzipioa; hots, dependentzia-etiketak esleitzeko bete behar diren bal-dintzak.

Puntu horietan oinarrituta, printzipio linguistikoak ondorioztatu eta erre-gela gisa formalki adierazi ditugu MG formalismoaren eredu jarraituz.

Bigarren urratsean aplikatzen den gramatika (EDGK-II) osatzeko, berriz, beste puntu hauek hartu ditugu oinarritzat:

1. Aipatu berri ditugun printzipio linguistiko horiek.
2. Etiketatze-eskema; hau da, esaldiko hitzei esleitzen zaizkien dependentzia-etiketak (III. kapitulua).
3. Kategoria sintaktikoak; hots, analisi automatikorako EDBLn zehaztu diren kategoriak (Aldezabal *et al.*, 2001a).

VI.4.2 EDGK gramatikak ikuspuntu linguistikotik

VI.4.2.1 EDGK-I

EDGK-I 505 islapen-erregelek¹ osatzen dute. VI.2 taulan jasotzen da sailkapen bakoitzeko erregela-kopurua.

P. bakuna	Perpaus konposatura	Etik. lagungarriak
	Mendeko p. P. elkartuak	
327	121	3
		54

VI.2 Taula: EDGK.I gramatikako islapen-erregelen kopurua.

Erregela-kopuru hau, ordea, behin behinekoa da, ez baita bukatutzat eman gramatikaren idazketa. Horrenbestez, gramatika honetan, III. kapituluan definitutako dependentzia-etiketei dagozkien islapen-erregelak zehaztu ditugu oinarrietai definitu ditugun egiturak aztertuz.

Egitura sintaktiko horien guztien dependentzia-zuhaitza lortzeko deskribatu ditugun islapen-erregelak banan-banan formulatu ordez, horiek deskribatzerakoan baliatu dugun informazioa zein izan den adieraziko dugu hemen. Horretarako, jarraian azalduko ditugun VI.3 eta VI.13 bitarteko tauletan bildu ditugun adibideetan oinarrituko gara. Adibide horiek EPEC corpusetik hartu ditugu lehen esan bezala.

Adibideak aipaturiko taula horietan banatzerakoan, III. kapituluko III.5 atalean egindako sailkapenari eutsi diogu: perpaus bakunak eta perpaus konposatuak (mendeko perpausak, testu-mailako loturak eta perpaus koordinatuak). Gogora dezagun, sailkapen horretan adierazten diren sintagma eta

¹EDGK-I osatzen duten erregela guztiak lan honen bukaeran ageri dira, Euskarako Dependentzia Gramatika Konputazionala-I izeneko D eranskinean.

aditz-kate terminoak antzeko ezaugarriak dituzten dependentzia-etiketak multzokatzeko erabiliko ditugula eta hitzen arteko dependentzia-erlazioak direla deskribatuko ditugunak.

Taula bakoitza bi zutabetan banatu dugu: lehen zutabeen, adibidearen zenbakia eta adibidea daude adierazita, eta bigarrenean, aztergai izango den mendeko hitzari dagokion dependentzia-etiketa. Era berean, adibide horietan beltzago markaturik dago mendekoa, eta azpimarraturik gobernatzailea, VI.3 taulako adibideetan izan ezik. Hauetan, mendekoa nabarmendu dugu, baina mendeko hori zintzilikatu den *erroa* abiapuntua ez da azpimarratu ez baita adierazi taulako adibide horietan.

Azter dezagun multzo bakoitza.

VI.4.2.1.1 Perpaus bakunak

Perpaus bakunak osatzen dituzten hitzen artean, lehenik, aditz-katea osatzen dituztenak izango ditugu aztergai eta ondoren, sintagmetakoak. Aditz-kateari dagokionez, aditz kategoriako hitzkin hasiko gara (VI.3 taula) eta kate hori osatzen duten beste kategoriako hitzkin (aditz laguntzailea, partikulak...) jarraituko dugu (VI.4 taula). Halaber, sintagmetan, sintagmetako gobernatzaileak diren eta perpuseko aditzaren mende dauden hitzak izango ditugu batetik (VI.5 taula), eta bestetik, sintagmetako mendekoak (VI.6 taula).

Aditz-katea

Oinarriean esan bezala, esaldi baten dependentzia-zuhaitzean, abiapuntu den *erroa* adabegiaren ondotik, **aditza** da gorena dagoen hitza. Aditz hori, ordea, era askotakoa da VI.3 taulako adibideek erakusten duten moduan.

Adibidea	Dependentzia
1. Lanean ikusi zaitut. 2. Bakarrik al zabiltza hizketan? 3. Ez irten , arren! 4. Zer nahi zenuen berarengandik?	aditz_nagusi

VI.3 Taula: *aditz_nagusi* dependentzia-etiketaren adibideak.

Adibide horietan oinarriturik, hauek dira kontuan hartu ditugun printzipio linguistikoak islapen-erregelak zehazteko:

1. Aditzaren forma

Taulako adibideei erreparatuz gero, aditzaren barruan forma jokatuak eta ezjokatuak ager daitezke. Dena den, perpaus bakunetan adizki jokatua duten (1) eta (2) bezalako adibideak dira nagusi. Adizki ezjokatua duen (3) adibidea bezalakoak, aditz-oina edo partizipioa dutenak, atal honetan aztertu baditugu ere, gainerako forma ezjokatuak (adibidez, **Ez dakit nondik sar**) perpaus konposatuuen atalean aztertu ditugu.

2. Adizki jokatuak: aditz konposatuak eta aditz trinkoak

Adizki trinkoak eta konposatuak bereizteko kontuan izan dugun irizpide bakarra formala da: adizki batek laguntzailea behar baldin badu, konposatua izango da; esaterako (1) perpausa. Bestela, trinkoa; adibidez, (2) perpausa.

3. Aditz-elkartuak

Euskaltzaindiak (1987) egiten duen sailkapenari jarraituz, aditz-elkartuak ere ager daitezke perpuseko gobernatzaile gisa.

Besteak beste, horien artean ditugu mota hauetako egiturak:

- (a) Izena+izan/ukan: balio izan/ukan, ezagun izan/ukan, uste izan/ukan, nahi izan/ukan
- (b) Izena+egin/eman/hartu: negar egin, min eman, kontu hartu
- (c) Izena+izan: lotsa izan, beldur izan
- (d) Adjektiboa+izan: maite izan/ukan, ageri izan

Esaterako, (4) adibidean, **nahi zenuen** egitura dugu perpausaren gobernatzailea.

Aditz-katearekin jarraituz, VI.4 taulako adibideetan ikus daitekeenez, aditz-kategoriako hitzak beste partikula batzuk hartzen ditu aldamenean, **aditz-katearen parte diren partikulak**, hain zuzen ere: **ez, al, omen**, e.a.

Partikula horiek, ordea, sintaxi aldetik duten jokabidea edo perpausaren barnean betetzen duten zereginak kontuan izanik, ez dira denak sail berekoak. Beraz, sortu ditugun islapen-erregelak ere sailkapen desberdin horietan oinarritu dira:

Adibidea	Dependentzia
1. Oso ongi egiten du txineraz.	auxmod
2. Besteetan, gure etxera etorri izan da .	
3. Gure adiskidantza lizundu egin zen.	galdemod
4. Bakarrik al zabiltza hizketan?	
5. Bihar ez gara etorriko .	
6. Ez irten , arren!	prtmod
7. Berak ez omen zizkien bizikletako gurpilak zulatu .	
8. Zuk ba al dakizu?	

VI.4 Taula: *auxmod*, *galdemod* eta *prtmod* dependentzia-etiketen adibideak.

1. Aditz laguntzailearen bereizketa

Ohartu behar dugu aditz laguntzaileen artean batetik, pertsona eta denbora ezaugarriak adierazten dituztenak ditugula, eta bestetik, aspektu ezaugarria adierazten dutenak. Lehenaren adierazgarri dira (1) eta (2) adibideetako **du** eta **da** aditz laguntzaileak. Eta bigarrenarena, berriz, (2) adibideko **izan** hitza.

2. Aditz nagusiaren eta aditz laguntzailearen hurrenkera

Aditz laguntzailea, orokorrean, aditz nagusiaren eskuinera, urrats batera agertzen da: (1) eta (2) adibideak. Ezezko perpausetan, ordea, ezkerrera agertzen da sarri askotan: (5) eta (7) adibideak.

Esan beharra dago, dena den, zenbaitetan bestelako ordena ere izaten duela ezezko perpausak; esaterako, **Horma urtu ez balitz, Jutta gurekin izango zen** mendeko baldintzazko perpusean, aditz nagusiaren ondotik eman da laguntzailea. Horrelakoetan, jakina, perpausaren beste elementurik ez da adizkien artean sartzen.

Horretaz gain, dependentzia-erlazioan dauden aditz nagusia eta aditz laguntzailea elkarrengandik urrats bat baino gehiagotara daude bien artean egiatasuna edota modalitatea ((7) adibidean **omen** partikula), indartzailea ((3) adibideko **egin** aditza) edo aspektu-ezaugarria ((2) adibideko **izan** hitza) adierazteko partikularen bat txertatzen denean.

3. Aditz nagusiarekin eta egia balioarekin zerikusia duten hitzak

Egia balioarekin zerikusia duten partikulak (**ba-**, **ez**) ondoan duten adizkia baieztu edo ukatu egiten dute. Horregatik, (5) adibidean ikus daite-

keen moduan, orokorrean, adizki jokatuaren aurrean dute lekua; zenbaitetan, ordea, partikula hauen eta adizki jokatuaren tartean aditz-kateko beste partikula batzuk sar daitezke: (7) eta (8) adibideetan **omen** eta **al** txertatu dira.

Horrela bada, erregela idazterakoan kontuan izan dugu partikula horien gobernatzailea, aditz nagusia, alegia, urrats bat baino gehiagotara egoten dela oro har. Gobernatzailea urrats batera aurkituko da perpaus ezjokatuetan, esaterako, (6) adibidea.

4. Ziurtasun neurriarekin elkartzen diren hitzak

Aditz-katean ager daitezkeen hitz hauek ere aurretik eransten zaizkio adizki jokatuari. Horren adierazle dugu (4) perpauseko **al** partikula. Adibide bera baliatuz, gobernatzailea urrats batera aurkituko dela ondoriozta daiteke, baldin eta aditza trinkoa bada. Ezezko perpausetan ere antzekoa gerta daiteke aditz trinkoak ditugunean. Aditz konposuetan, ordea, zertxobait aldatzen da kontua; adibidez, (7) perpausen, aditz laguntzailearen aurre-aurrean ageri da **omen** partikula; baina **omen** partikularen eta gobernatzailea den **zulatu** aditzaren artean hitz bat baino gehiago ageri dira.

Bestalde, bigarren puntuaz aztertutako partikulek hirugarren puntu honetakoei uzten diete adizki jokatuaren aurre-aurreko lekua: (7) adibidea.

Sintagmak

Sintagma-egitura desberdinei dagozkienei VI.5 eta VI.6 tauletako adibideetan oinarrituta, jarraian azalduko ditugun printzipio linguistikoak hartu ditugu kontuan islapen-erregelak osatzerakoan.

Adibide horietan, kako zuzenen bitartez analisi sintaktiko partzialean eza-gutzen diren sintagmак adierazi ditugu. Bertan, beltzago dauden hitzak men-dekoak dira, eskuineko zutabeen adierazten diren etiketekin markatuko direnak. Eta horien guztien gobernatzaileak, berriz, azpimarratuta ageri direnak dira.

Bestalde, printzipio batean adibide bat baino gehiago isla badaitezke ere, ez ditugu kasuan kasuko guztiak aipatuko.

Sintagmetako gobernatzaileei dagokienez, perpauseko aditz nagusiarren mende daude VI.5 taulako adibideetan ikus daitekeen bezala.

Adibidea	Dependentzia
1. [Orduan] Francine [gizonaren begie] <u>arduratu</u> zen. 2. [Hala] <u>etorri</u> ziren [golak] . 3. Baino, [nor] <u>zara</u> <u>zu</u> ? 4. [Nekez] <u>ahaztuko</u> dituzte [askok] [egun haiek]. 5. [Bere bolegoa] [ordenaren eredua] <u>zen</u> . 6. [Hemen] <u>amaitzen</u> dira [emakume baten animu egoeraren azterketak]. 7. [Gure familiako inor] ez zegonan [etxean]. 8. [Azken biak] [oso itsusiak] <u>dira</u> . 9. [Henriette Airek] [olerki unibertsalari buruzko bere gogoetak] <u>azalduko</u> ditu [gaur]. 10. [Astelehenean] [nekazari manifestaldi bat] <u>izan</u> zen.	ncsubj
11. [Horri guztiari] ez diot [zentzurik] <u>aurkitzen</u> . 12. [Horixe] <u>dugu</u> [abantaila]. 13. [Arrisku larrian] <u>jarri</u> dute [laborantzako sektore oso bat]. 14. [Itxura dotorea] <u>zuen</u> .	ncobj
15. [Astero] [astero] <u>esan</u> zaie bertaratu diren [talde guzti-guztiei].	nczobj
16. [Noraezean] <u>abiatu</u> nintzen [kale-zirkuluetatik] . 17. [Seminariora] <u>zihoan</u> [berriro] . 18. [ABCra] <u>bidaltzen</u> ditut [nire artikuluak]. 19. ... [hortik] [konposatu kimiko bat] <u>sortuko</u> da. 20. [Bere desirak] [harenetara] egokituko dira. 21. [Zalantza horiek] [ezusteko bidetik] <u>lortu</u> zuten [argia]. 22. [Poeta baldarrak] [haurtzaroaren ganbarara] <u>itzultzen</u> gara. 23. [Edari hau] [santutzat] jotzen da [seksu indarrerako]. 24. [Leihoko kartelen artetik] <u>begiratzten</u> du. 25. [Zuk] [galdua] <u>zenion</u> [beldurra] [itsasoari] [txiki-txikitatik] . 26. [Izaki bizidunak] [antzerako beste batzuetatik] jaiotzen dira.	ncmod
27. [Belandiako eliza] [altua] <u>da</u> . 28. [Iritzi hau] [naturaren behaketa zuzenaren fruitu] <u>zen</u> . 29. Ez <u>naiz</u> [puto zikin bat]! 30. [Ordurako] [orduak] [minutu] <u>bihurtzen</u> baitzitzainaizidan [zurenkin] nengoerenan. 31. [Honek] [oraindik] [arinago] <u>bihurtu</u> zuen [giroa].	ncpred
32. [- Oi], ez naute [ni] [geroko infernuek] <u>izutzen!</u> 33. Beraz, [arren] , <u>eroan</u> [gugandik] [zama itzel hori]. 34. [Euriak] ez zaitu <u>bustitzen</u> , [Valentine] . 35. [“ Puuh ”], [Dirkek] [airea] <u>kamporatzen</u> du.	itj_out

VI.5 Taula: Sintagmetako gobernatzailleei dagozkien dependentzia-etiketen adibideak.

Azpimarra ditzagun, bada, adibide horietako sintagma-egitura desberdinak ezaugarriak:

1. Hitz bakarreko edo hitz bat baino gehiagoko sintagma

Kako zuzenen bidez adierazi diren sintagmen azterketari ekinez gero, zenbait atal berezi aurkituko ditugu:

- (a) **golak**²: (1) adibidea.
- (b) **Bere + bulegoa**: (5) adibidea.
- (c) **konposatu + kimiko + bat**: (19) adibidea.
- (d) **nekazari + manifestaldi + bat**: (10) adibidea.
- (e) **laborantzako + sektore + oso + bat**: (13) adibidea.
- (f) **Emakume + baten + animu + egoeraren + azterketak**: (6) adibidea.

Bereziak dira osaeraren aldetik: elementuen kopurua, bakoitzaren kategoria... Horrenbestez, sintagmetako gobernatzaire horiei dagozkien islapen-erregela egokiek atal desberdin horiek jaso beharko dituzte.

2. Sintagmako gobernatzairearen kategoria sintaktikoa

Oro har, izen kategoriakoa da hitz hau, eta izena berezia (1) edo arrunta (2) izan daiteke. Izenaz gain, izenordaina ere ager daiteke, adibidez, (3) adibidea. Eta (18) adibidean ikus daitekeenez, siglak ere bai.

Sintagma modifikatzaileen kasuan, adberbio kategoriako hitza ere bada gobernatzairea: (16) eta (17) adibideetako **noraizean** eta **berriro** adberbioak.

Sintagma horietan guztieta, izena elidituta dagoenean, determinatzai-le (4) edota adjektibo kategoriakoak (25) dira gobernatzaireak.

Izena ez baizik beste kategorietako hitz bat baino gehiagoz osatutako sintagmetan, kasu-marka daramana hartuko dugu gobernatzairetza eta besteak mendekotzat. Esaterako, (26) adibidean, **batzuetatik** determinatzairea da gobernatzairea eta **beste** determinatzairea, berriz, mendekoa.

²Gogoratu hitzean oinarritzen dela gure azterketa. Hori dela eta, horrelakoetan ez da **gol** izenaren eta **ak** mugatzairearen arteko bereizketarik egindo.

Predikatiboetan, berriz, zuhaitz-bankua eraikitzean ikusi bezala, ize-nondoa (27), izena (28, 29 eta 30) edo aditzondoa (31) izan daiteke gobernatzailea.

Azkenik, interjekzioei dagokienez, sintagmako gobernatzaile gisa interjekzioa bera (32 eta 33), izen berezia (34) edota onomatopeia (35) ager daitezke.

3. Deklinabideko kasu-marka

Bi hitzen arteko dependentzia-erlazioa zein kasu-markaren bitartez egi-ten den kontuan hartu dugu, horren arabera mendekoari esleitu beharreko dependentzia-etiketa era batekoa edo bestekoa izango baita VI.5 taulan ikus daitekeen moduan.

Aditzarekin komunztadura egiten duten sintagmen kasuan, absolutibo, partitibo, ergatibo eta datibo kasu-marken bitartez gauzatzen da erlazio hori; horren adierazle ditugu VI.5 taulako lehen hamabost perpausak. Horretaz gain, aditz-paradigma ere zehaztu da erregeletan; hau da NOR, NOR-NORI, NOR-NORK ala NOR-NORI-NORK motakoa den.

Sintagma modifikatzaillek, berriz, gramatikalak ez diren gainerako kasu-marken bitartez adierazten dituzte gramatika-erlazioak: ablatiboa, adlatiboa eta prolatiboa kasuak ditugu, esaterako taulako 16tik 26ra bitarteko perpausetan. Nahiz eta taula horretan sintagma modifikatzai-leei dagozkien kasu-marka guztiak (hurbiltze-adlatiboa, muga-adlatiboa, inesiboa, destinatiboa, instrumentala, motibatiboa eta soziatiboa) ez ditugun jaso, guztiak hartu ditugu kontuan islapen-erregelak deskribatzerakoan.

Predikatiboetan, adjektibo eta izen kategoriako hitzetan, absolutiboa izango da nagusi (27tik 30era bitarteko adibideak); (31) adibidean, aditzondoa dugu gobernatzailea. Interjekzioetan, berriz, deklinabideko kasu-markei dagokienez, absolutiboa da agertzen dena analizatzailaren analisietan; esaterako (34) adibidea.

4. Sintagma ixten duen hitza

Hitz bat baino gehiagoko sintagmetan, sintagmaren azken hitzak ixten du sintagma; beraz, hitz honek hartuko du gobernatzailearekiko lotura

adierazten duen kasu-marka. Kasu-marka hauek, ordea, hitz desberdinak har ditzakete adibide horiei erreparatuz gero: sintagmako gobernatzaila, (5) adibidea; gobernatzaila modifikatzen duen adjektiboak, (14) adibidea edota determinatzaila, (10), (13), (15) eta (29) adibideak.

Hitz bakarreko sintagmetan, berriz, hitzak berak darama beste gobernatzailarekiko lotura adierazten duen kasu-marka; horren adierazle ditugu, esaterako, (19), (25), (27) eta (34) adibideak.

5. Mendekoaren eta gobernatzailaren posizioa

Sintagmako gobernatzaila perpuseko aditzaren mende dago aztergai ditugun adibideek erakusten duten moduan. Sintagma predikatiboen kasuan gainera, aditz hauek aditz kopulatibo eta predikatiboak dira: (27) eta (31) bitarteko adibideak.

Kokalekuari dagokionez, perpausaren hasieran, erdiko aldean edota bukaeran ager daitezke. Horretaz gain, erregela idazterakoan, kontuan hartu dugu batetik, gobernatzaila mendekoaren eskuinera ala ezkerre-ra agertzen den, eta bestetik, zenbat urratsetara aurkitzen den. Esaterako, gobernatzaila den aditz hau mendekoaren eskuinera urrats batera agertzen da (3, 11 eta 17) adibideetan, eta urrats bat baino gehiagotara (1, 5, 7 eta 14)-koetan. Eta ezkerreko noranzkoan, berriz, urrats batera agertzen da (17 eta 34) adibideetan eta urrats bat baino gehiagotara (2, 4, 6, eta 13) perpausetan.

6. Puntuazio-markak

Orokorrean, puntuazio-markak hitz baten testuingurua mugatzeko era-biltzen dira. Normalean, azken-muga puntu da; baina bestelako markak ere erabili ditugu, esaterako, interjekzioei dagozkien adibideetan, (32) eta (35) bitarteko adibideetan, komak hartu ditugu kontuan.

Sintagmetako mendekoak diren hitzei dagokienez, VI.6 taula, ondoko ezaugarri hauek hartu ditugu kontuan islapen-erregelek definitzerakoan:

1. Hitzen kategoria sintaktikoa

Sintagmako gobernatzaila laguntzen ageri diren hitz hauek izan daitezke: adjektiboak (1), izenak (2tik 5era bitarteko adibideak), determinatzaila (6tik 14ra bitartekoak) edota graduatzaila (15 eta 16).

Halaber, Euskaltzaindiak (1993) egiten duen sailkapenari jarraituz, determinatzaileen artean, mugatzaileak (6), zenbatzaile zehaztuak (7, 8 eta 9), zenbatzaile zehaztugabeak (10 eta 11), zenbatzaile orokorrak (12 eta 13) eta determinatzaile zehaztugabeak (14) ditugu.

2. Mendekoaren posizioa bere gobernatzairearekiko

Hitz hauetako sintagma gobernatzairearen mendekoak dira; hau da, sintagma barruan gertatzen da bi hitzen arteko dependentzia-erlazioa. Mendekoaren kategoriaren arabera, bere gobernatzalea den hitzaren eskuinera edo ezkerrera ager daiteke.

Hala, izenondoak oro har, gobernatzairearen eskuinera urrats batera agertzen dira (1) adibideak erakusten duen moduan. Izenlagunak, berriz, normalean izenaren ezkerrean azaldu ohi dira, eta genitibo edutezkoaren edo leku-genitiboaren bidez lotzen zaizkio izenari (2) eta (3) adibideetan adierazten den bezala.

Determinatzaileei dagokienez, mugatzaileak, oro har, sintagmaren bukaeran ageri dira, gobernatzairearen eskuinean, esaterako, (6) adibidea. Zenbatzaile zehaztuak, aldiz, sintagmaren ezkerraldean (7); salbuespen bakarra **bat** da (8), eta zenbait euskalkitan **bi**, eskuineko partean agertzen direlarik. Sail honetakoak dira ordinalak (9), eta hauetako ere izenaren ezkerrera ageri dira. Bestalde, zenbatzaile zehaztugabeak, zenbatzailearen arabera, izenaren eskuinean (10) edo ezkerrean (11) ager dakizkigu. Zenbatzaileekin bukatzean, zenbatzaile orokorrak ere izenaren eskuinera ageri dira (12) eta (13) adibideetan. Eta azkenik, determinatzaile zehaztugabeak izenaren ezkerrera agertzen dira (14).

Orain artekoek izenaren mendekoak izan badira ere, graduatzaireak beren eskuinera agertzen den adberbioaren edo adjektiboaren mende dade: (15) eta (16) adibideak, hurrenez hurren.

Dependentzia-erlazio hauetako guztiak sintagmaren barruan gertatzen dira esan arren, bada salbuespen bat: aposizioa. Sintagma osoa bada aposizioan dagoena, adibidez (4) perpausa, aposizio-sintagmako gobernatzalea da beste sintagmako gobernatzairearen mende dagoena; hau da, dependentzia-erlazioa ez da gertatzen sintagma osatzen duten hitzen artean, baizik eta bi sintagmetako gobernatzaireen artean. Adibidez, aipatu berri dugun (4) adibidean, **idazole** hitza da **Axularrek** hitzaren mende dagoena.

Adibidea	Dependentzia
1. [Nola] deitzen zaio <u>zirkulazio atmosferikoari?</u> 2. [Gizakiak] ezin du <u>biziaren esentzia</u> ezagutu. 3. Eta <u>atzeko parrilean</u> jarri zinen.	ncmod
4. <u>Axularrek</u> , [gure idazle handiak], idatzi zuen [liburu hori]. 5. <u>Don Kandidok</u> [geografi klase bat] esplikazten ziharduen.	aponcmod
6. [Zertara] zetorren <u>erretolika hori</u> ? 7. [Ondorengo hamar <u>segundotan</u>] [dena] [oso azkar] gertatu zen. 8. [Zurezko gurutze bat] dauka aurrean. 9. [Paulinok] <u>azken asaltoa</u> bota zuen. 10. Ostera <u>kasu batzuetan</u> [koazerbatua] trinkotu egiten da. 11. <u>Zenbait lekutan</u> [hiru musu] emateko [ohitura] daukate. 12. [Besteentzat] izango ziren [zure <u>dohain guztiak</u>]. 13. [Ataritik] [[kale] osoia] menperatzen da. 14. Ez dut ulertzten <u>zein zoramenek</u> eragini...	detmod
15. <u>Oso ongi</u> egiten du [txineraz]. 16. [Azken biak] <u>oso itsusiak</u> dira.	gradmod

VI.6 Taula: Sintagmetako mendekoei dagozkien dependentzia-etiketen adibideak.

Errespetuzko tratamendua adierazteko erabiltzen den **Don** hitza ere bere eskuinera agertzen den izen bereziaren mende dago: (5) adibidea.

Perpaus bakunaren azpiatal honetan azaldu dugun informazioarekin 381 islapen-erregela osatu ditugu. Horietako 54, dependentzia-etiketa lagunarriei dagozkie, zehazki entitateak eta postposizio-konplexuak unitate modura ezagutzeko erregelak dira.

VI.4.2.1.2 Perpaus konposatuak

III. kapituluan egindako sailkapenari jarraituz, lehendabizi mendeko perpausak aztertuko ditugu, ondoren, testu-mailako loturak eta azkenik, perpaus koordinatuak.

Mendeko perpausak

Mendeko perpausen islapen-erregelak osatzeko kontuan hartu ditugun egituren adierazgarri dira VI.7tik VI.11ra bitarteko tauletako adibideak. Taula bakoitzean mendeko perpaus mota desberdinak bildu ditugu. Orain arte egin

dugun moduan, adibide horietan ere beltzago adierazita dago dependentzia-etiketa hartuko duen mendekoa eta azpimarratuta, berriz, haren gobernatzailea.

Egitura bakoitzeko islapen-erregelak banaka azaldu ordez, guztietan erre-pikatzen diren ezaugarriak adieraziko ditugu, tauletako adibide zehatzak erreferentziatuz.

1. Mendeko perpausak nagusiaren barruan betetzen duen zeregina

Ezaugarri honen arabera, mendeko perpausen artean ditugu: perpaus konpletiboak (VI.7 taula), izen-sintagma batek perpaus bakunean betetzen duen leku bera betetzen dutenak perpaus konposatuaren barruan; perpaus modifikatzaileak, zeintzuetan bereizi ditugun batetik, perpaus adberbialak (VI.8 eta VI.9 taulak), adberbioek edo postposizio-sintagmek perpaus bakunean betetzen duten leku bera hartzen dutenak, eta bestetik, perpaus erlatiboak (VI.10 taula), izenlagun batek betetzen duen zeregina eta lekua hartzen dutenak. Halaber, perpaus modifikatzileen artean sailkatu ditugu konparaziozko perpausak eta aposizio- eta predikazio-perpausak (VI.11).

2. Perpaus jokatua edo jokatugabea

Adizki jokatuaz osatzen diren perpausak dira batzuk, eta beste batzuk, berriz, jokatugabeaz. Hori dela eta esleitzen zaien dependentzia-etiketa ere mota bateko edo bestekoa izango da: *ccomp*, *cmod* edo *apocmod* jokatuentzat eta *xcomp*, *xmod*, *xpred* edo *apoxmod* jokatugabeentzat.

3. Erlazio-marka desberdinak

Jakina da perpaus mota bakoitza erlazio-marka desberdinek ezaugarritzen dituztela. Beraz, erlazio-marka horiek zein diren zehaztu ditugu islapen-erregeletan.

Dena den, kontuan izan behar dugu, zenbaitetan antzekotasunak gertatzen direla. Esaterako, **-ela** erlazio-marka mota askotako perpausek hartzen dute: konpletiboak, VI.7 taulako (1) adibidean ikus daitekeen bezala; moduzkoak, VI.8 taulako (9) adibidea, eta denborazkoak, bestek beste.

Mota honetako antzekotasunak gertatzen diren kasuetan, semantikak erabaki beharko du zein motatakoak diren forma bera duten perpaus horiek. Tesi-lan honek ez du semantika aztergai, baina zein etiketarekin

markatu jakiteko bereizi behar dira. Beraz, horrelakoetan, bereizketa hori egiten lagunduko duten gobernatzaileak multzokatu³ ditugu bate-tik, eta bestetik, analizatzaileak eskaintzen digun analisiari erreparatu diogu, honetan adierazita baitago erlazioa zein motatakoa den.

Horrenbestez, hiru **-ela** horiek bereizteko helburuarekin, perpaus konpletiboa eskatzen duten aditzen multzoa osatu dugu; hau da, gobernatzailea multzo horretan zerrendatutako aditza bada, mendeko perpausa konpletiboa dela esango dugu. Aditz horiek⁴ guztiak ADIKONP izena duen multzoan zerrendatu ditugu eta honako hauek dira: **adierazi, ahaztu, aipatu, aitortu, argudiatu, azaldu, bururatu, eman (demagun), entzun, erakutsi, erantsi, erantzun, esan, ezagutu, frogatu, igarri, ikusi, imajinatu, *io, iragarri, iruditu, jakin, konturatu, ohartu, onartu, oroitu, oroitarazi, otu, pentsatu, predikatu, salatu, sinetsi, sinestarazi, susmatu eta ulertu.**

Erlazio-marka bera duten beste bi perpaus motak, berriz, adberbia-lak dira, elementu gobernatzailerik ez dutenak perpaus konpletiboezin alderatuta. Horrelakoetan, formari dagokionez, bien arteko desberdin-tasuna egiteko analizatzaile sintaktikoak ematen digun informazioa baliatu dugu. Informazio horretan denborazkoa (DENB) edo moduzkoa (MOD) den zehazten da.

Konparazio perpusei dagokienez, konparazio morfemak zein diren zehaztu dugu: **baino, bezain...**

4. Erlazio-marka atxikiak ala askeak

Mendeko perpausak ezaugarritzen dituzten erlazioak mendekoa den hitzari itsatsirik agertzen diren (VI.7 taulako (1) adibidea), askeak diren (VI.8 taulako (17) adibidea), ez-askeak (VI.8 taulako (7) adibidea) edota urruneko mendekotasuna duten menderagailuak diren ere kontuan hartu dugu.

III. kapituluan adierazi den bezala, *menos* (menderagailu osagaia) dependentzia-etiketa lagungarria erabiliko dugu menderagailu konplexu horiek markatzeko; hau da, menderagailu konplexu desberdinatan azken hitzek mendeko perpaus motei dagozkien etiketak hartuko dituzte eta gainerakoek dependentzia-etiketa lagungarriari dagokiona.

³EDGK-I gramatikaren *ezaugarri-multzoa* izeneko atalean (D eranskina).

⁴Aditzen zerrenda hau Aldezarbalek (2004) bere tesi-lanean aztertutakoekin osatu dugu eta Euskaltzaindiak (1999) ematen dituenen artean ere aurki ditzakegu.

5. Erlazio-marka eransten zaion hitza

Adizki jokatuen kasuan, mendekoaren erlazio-marka aditz laguntzaileak (VI.7 taulako (5) adibidea) ala aditz trinkoak hartzen duen adierazi dugu (VI.7 taulako (7) adibidea). Ezjokatuetan, berriz, kontuan izan dugu aditz-izena den (VI.9 taulako (1) adibidea) ala ez (VI.9 taulako (12) adibidea).

6. Mendeko perpausen gobernatzailea

Jakina da mendeko perpaus hauek, jokatuak zein jokatugabeak, perpaus nagusi batean txertatzen direla; beraz, gobernatzailea perpaus nagusiko hitz bat da: aditz kategoriakoa oro har, edota sintagmako hitzen bat:

(a) Aditza

Gobernatzailea adizki trinkoa nahiz laguntzailea daraman aditza izan daiteke.

Perpaus osagarrietan, gainera, aditzak multzokatu egin ditugu eskatzen duten perpaus osagarri motaren arabera; hau da, **-ela** erlazio-marka daramaten perpausak gobernatzen dituzten aditzak; subjuntiboko perpaus osagarriak eskatzen dituztenak, hauetan, halaber, zeintzuek eskatzen duten **-ela** eta zeintzuek **-en** zehaztu dugu; **-ena** erlazio-marka eskatzen dutenak ere aditz eta predikatu jakinak dira; zehargaldera eskatzen dutenak.

Jakintza-aditza motako gobernatzailea dugu **-tzen** mendekotasuna eskatzen duena VI.7 taulako (23) adibidean, esaterako.

Jakintza-aditzez (**ikasi, irakatsi, erakutsi, jakin, ahaztu**) gain, gobernatzaileak izan daitezke beste mota hauetakoak ere: erdi-laguntzai-letzat kontsideratzen diren aditzez osatutako egitura perifrastikoak (**ari izan, egon, ibili**); aspektu-aditzak (**hasi, bukatu, amaitu, jardun, jarraitu, segitu, ohitu**); zentzumenezko aditzak (**aurkitu, harrapatu, ikusi, entzun, ipini, jarri, utzi**); **saiatu** aditz-klaseak; mugimendu-aditzak eta adjektibozko egitura konplexuak.

Aipatzekoak dira ere datiboan doazen aditz-izenek aukeratzen dituzten aditzak: **iritzi, ekin, bota, lotu, ohartu, zor izan**.

Subjuntiberan joatea eskatzen duten aditz berberek gobernatzen dituzte aditz jokatugabeaz osatutako perpaus osagarri hauetan. Orokortasun honetan salbuespen dira *command/order* aditzak: ***Hau-**

rrari kalera bakarrik joatea ... eskatu/erregutu/agindu/esan diote. Beste zenbaitetan, nominalizatutako perpaus hauek subjuntibera eskatzen ez duten beste aditz hauen osagarri dira: **salatu, egotzi, bururatu, aztertu, kontuan hartu, sartu, ekarri**.

Aditzak multzokatzeak edo gobernatzailea ahalik eta zehatzen adierazteak duen garrantziaz ohartzeko, errepara diezaiogun ondoko adibideari: **Hortik datorkio beraz guk ipinitako ezizena**. Erlatibozko perpausa den adibide honetan, **ezizena** hitza bere ezkerrera dagoen bigarren aditzaren mende dago; hots, **datorkio** aditzaren mende eta ez bere ezkerrera urrats batera dagoen **ipinitako** aditzaren mende.

(b) Aditz elkartua

Perpaus osagarria gobernatzen duten aditzekin egin dugun moduan, hauekin ere beste multzo bat osatu dugu: PREDKONP; hau da, mendeko perpaus osagarria eskatuko dute multzo horretan sartu ditugun predikatu konplexuek: **uste izan, ziur egon, beldur izan...**

Nola ez, adibideak atera ahala multzo hau zehazten joan gara; esaterako, aparteko multzo batean kokatu dugu **-ena** erlazio markadun perpausa eskatzen duen **ez dago dudarik** predikatu konplexua (VI.7 taulako (3) adibidea).

(c) Sintagmako gobernatzailea

Aditzek eta aditz elkartuek ez ezik, beste kategorietako hitzek (izena, adjektiboa, adberbioa...) ere gobernatzen dituzte mendeko perpaus hauek.

Esaterako, VI.7 taulako (14) adibidean izena da gobernatzailea. Adibide horrek erakusten duen moduan, izenlagunak sortzen dituen **-ko** kasu-marka perpaus osagarriko menderagailuari itsatsita dago.

Euskaltzaindiaren 116. arauan⁵ jasotzen den moduan, ondo bereizi behar dira perpaus osagarri horiek eta perpaus erlatiboak, biak direlako izenaren lagun, baina ez modu berean. Erlatiboeitan, izen-ardatzaren erreferentzia bera duen izena izaten da isilpean. Osagarrietan, ordea, ez dago horrelakorik: izen gobernatzailea perpaus nagusian baizik ez dago. Hori dela eta perpaus osagarri

⁵[http://www.euskaltzaindia.net/arauak/\(07-03-12an irakurria\).](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/(07-03-12an irakurria).)

izenlagunak zein izenek gobernatzen dituzten ere zerrrendatu dugu IZEKONP izenaren pean. Zerrenda hori arau horretako izenekin osatu dugu: **aitzakia, albiste, beldur, berri, damu, esperantza, frogua, hipotesia, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurru...**

Halaber, perpaus erlatiboa bere ondoan agertzen den izenaren mendekoa da (VI.10 taulako adibideak). Hau da, perpaus erlatiboko aditz kategoriako hitza perpaus nagusiko izenaren mendekoa izango da, eta horretarako nahitaezkoa izango da perpaus txertatuko adizkiak **-en** menderagailua izatea (VI.10 taulako lehen hiru adibideak). Erlatibozko perpaus jokatugabeetan menderagailua **-tako** (VI.10 taulako (7) adibidea) edo **-dako** (taula bereko (8) adibidea), **-riko** eta partizipio burutua (VI.10 taulako (9) adibidea) ditugu eta mendeko perpuseko aditz jokatugabeari eransten zaizkio.

Bestalde, erlatibozko perpausetan normala da izen-ardatza isildurik izatea; hau da, izenlaguna dugunez, elipsia gerta daiteke. Beraz, erlatiboaren ondoren, mugatzailea eta deklinabide-kasua agertuko dira berriro (VI.10 taulako (5) eta (6) adibideak). Elipsia gertatzen den kasu hauetan, kontuan izanik prozesu automatikoaari begira elipsia saihestuko dela lehen urrats honetan, ez ditugu erlatibozko perpaustzat hartuko, osagarritzat edo adizlaguntzat baizik, III. kapituluan azaldu bezala. Aipaturiko bi adibide horietan objektu funtzioa duten hitzak genituzke.

Konparaziozko perpausetan, VI.11 taulako adibideek erakusten duten moduan, izen, adjektibo edo adberbio kategoriako hitzak dira gobernatzaile.

(d) **Eskerrak** predikatua

Perpaus osagarriei dagokienez, aditz nagusiaz gain **eskerrak** bezalako predikatua ere izan daiteke elementu gobernatzailea (VI.7 taulako (16) adibidea); beraz, interjekzio honetatik zintzilikatuko da mendeko perpuseko aditza, menderagailu konpletiboa daraman aditz laguntzailearekin batera doana, alegia. Eta hala gertatzen ez denetan, *itj_out* dependentzia-etiketa hartuko du, interjekzioa dela adierazteko.

7. Gobernatzailaren eta mendekoaren posizioa

Gobernatzailaren eta mendekoaren kokalekuari dagokionez, oro har, perpaus erlatiboa bere gobernatzaila den izen kategoriako hitzaren ezkerrera txertatzen da (VI.10 taulako (1) adibidea). Zenbaitetan, ordea, bien artean sintagma osatzen duten beste zenbait hitz tarteka daitezke, hala nola beste izen bat, izenlaguna edota zenbatzailea (taula bereko (3) adibidea). Horietan guztietan, izen kategoriako hitza, baina izenlagun funtziorik ez duena hartu dugu gobernatzailertzat.

Perpausaren ondokoa izen kategoriako hitza da; baina beste kategoria batekoa ere izan daiteke, esaterako VI.10 taulako (2) adibidean, izenor-dainaren mende dago perpaus erlatiboa.

Gainerako mendeko perpausetan, adizki jokatuaz zein jokatugabeaz osatutakoetan, kasurik gehienetan beren eskuinera edo ezkerrera puntuera bitarte edozein urratsetara ager daitezkeen aditzek gobernaturuko dituzte.

Beti eskuinean kokatzen dira **eskerrak** eta horrelako predikatuen osagariak.

Aparteko aipamena merezi duten perpaus konparatiboetan, hauen gobernatzaila eskuinera agertu da kasu guztietan. Mendekoaren eta gobernatzailaren arteko distantzia oso motza da; gobernatzaila gehienetan mendekoaren urrats batera aurkitzen da.

8. Baiezko edo ezezko perpausa

Erregela definitzerakoan komeni da kontuan izatea baiezko edo ezezko perpausa den. Izan ere, horren arabera perpauseko hitzen hurrenkera alda baitaiteke. Ezezkoetan gainera orokorrean hitzak trukatzeko joera badago ere, zenbaitetan ez da hala gertatzen, esaterako VI.10 taulako (3) perpaus erlatiboa.

Mendeko perpausak markatzeko aintzat hartu ditugun irizpideak azaldu ondoren, testu-mailan gertatzen den lotura nola adierazi dugun azalduko dugu jarraian.

Adibidea	Dependentzia
<p>1. Gaur egun bertara hurbilduz gero, barne-estrutura hutsik da-goela ikusten da.</p> <p>2. Hala ere <u>pentsatzen</u> da heldu den urte berriko hastapenean abiatuko direla lehen froga egiteak.</p> <p>3. Ez <u>dago dudarik</u> guztiak antzeko erreakzioen bidez eratu zirena.</p> <p>4. <u>Ziur nengoen</u> zure ondoan ez ninduela ezerk minduko.</p> <p>5. <u>Eskerrak</u> zuhaitz baten adarretik zintzilik geratu zela.</p>	ccomp_subj
<p>6. Egia diot komisario jauna: <u>ez dakit</u> zer gertatzen den.</p> <p>7. <u>Ezagutzen</u> dut nolako ospea duzun Nigerian.</p> <p>8. Nik ez nuen <u>sumatu</u> gau haietakoren bat beilan pasatu zenuenik.</p> <p>9. Paulinok azken asaltoa bota zuela <u>uste zuen</u>.</p> <p>10. <u>Espero dezagun</u> txilio egiteari utziko diola.</p> <p>11. Etxekoei ez zaie <u>gustatzen</u> imajinatzen ibil nadin.</p> <p>12. Gobernuak Bruselasetik gizenaren ekoizpenaren babesak ardiets dezan <u>eskatu</u> dute.</p> <p>13. <u>Beharrezkoa da</u> norbait zuzendari izenda dezagun.</p> <p>14. Aprobatuko dudalako <u>esperantza</u> daukat oraindik ere.</p> <p>15. Kurt haiei begira geratu zen, bere gorputzera noiz zuzenduak izango ziren <u>beldur</u>.</p> <p>16. <u>Eskerrak</u> zuhaitz baten adarretik zintzilik geratu zela.</p>	ccomp_obj
<p>17. ... eta ez zen bizitza hura salbatzerik izan.</p> <p>18. Bainak haren kontra ez <u>zegonan</u> ezer egiterik.</p> <p>19. Saharako Desertua esatea hitza errepikatzea <u>da</u>.</p> <p>20. Beti irabaztea ezinezkoa da.</p> <p>21. Hala ere pentsatzen da heldu den urte berriko hastapenean abiatuko direla lehen froga egiteak.</p>	xcomp_subj
<p>22. Ez <u>dakit</u> zer egin.</p> <p>23. Francine-k <u>ikusi</u> zuen gizona sartzen.</p> <p>24. Ez zuen bera erregulatzen <u>ikasi</u>.</p> <p>25. Izan ere, beldur nintzen, etxeratzeko <u>beldur</u>, asteburuaren aurrean beldur.</p> <p>26. Oriora bueltatzea <u>erabaki</u> du Ortaikakoak.</p> <p>27. Edateari eman nion.</p>	xcomp_obj
	xcomp_zobj

VI.7 Taula: Mendeko perpaus konpletiboak, jokatuak zein jokatugabeak.

Adibidea	Dependentzia
1. Kurban agertu zinenean lagun guztiok <u>geunden</u> 2. ... <u>lortu</u> zuten argia, kanpora ematen zuen atetik sartzen ikusi zuelean. 3. Oparirik eman ez diotenean, triste jarri <u>da</u> . 4. Eguraldi ona egiten duenerako <u>erosi</u> ditut arropa hauek. 5. Euria den artean ezin <u>mugi</u> gaitezke inora. 6. Berandu jaikitzen denez geroztik , ez da sekula ordurako <u>iristen</u> . 7. Zuk harriko egiten duzun bitartean , nik kafea <u>egingo</u> dut. 8. Ezer esan baino lehenago <u>ziur</u> egon nahi dut.	cmod
9. Ezer ulertzen ez duela dago. 10. Nagusiak beti txukun <u>zuen</u> hau, dokumentu guztiak bere to-kian gordeta zituela . 11. Nik zuk esan duzun bezala <u>egin</u> dut. 12. Eskabidea zelan idazten den, hortxe <u>dago</u> gakoa.	
13. Biziki <u>poztu</u> zen ezkontzara gonbidatu nuelako. 14. Merkea zelako erosи zuela esan zidan. 15. Biziki <u>poztu</u> zen, ezkontzara gonbidatu bainuen. 16. Hemen zaudenez gero , galdera bat <u>egingo</u> dizut. 17. Etxean geratu da, buruko mina zeukan eta .	
18. Berehala <u>ezabatu</u> zenuen beste inork irakurri ez zezan. 19. Hiri maisuak egurra emango balik, zer <u>egingo</u> huke?. 20. Lurraldekoa den edozer gauza <u>edan</u> , gozoa, atsegina eta garbia bada . 21. Garaiz ibili izan balitz ez zitzaiokeen horrelakorik <u>gertatuko</u> . 22. Eta norbaitek perbertitu baldin bazintuen, ni <u>izan</u> nintzela hori!. 23. Desberdinak izan arren , bizidun guztiekin <u>ulertzen</u> zuten elkarren beharra.	

VI.8 Taula: Mendeko perpaus modifikatzaile jokatuak.

170 DEPENDENTZIA GRAMATIKA KONPUTAZIONALAK

Adibidea	Dependentzia
<p>1. Gasaren banaketa egiterakoan, Naturgas enpresak tarifa ez-berdinak <u>eskaintzen</u> ditu.</p> <p>2. Gasa etxe komunitate batek erosi ondoren, etxeetara bantzean, komunitateak gasa berriz <u>saldu</u> egiten du.</p> <p>3. Ez <u>daude</u> zorrozki ordenaturik.</p> <p>4. Hantze <u>utzi</u> nituen nire bi lagunak, gari-itsasoan ezkutaturik.</p> <p>5. D1 tarifa <u>aplikatuko</u> zaie, termiako 5,3 pta. ordainduz.</p> <p>6. Zuk galdua <u>zenion</u> beldurra itsasoari txiki-txikitatik.</p> <p>7. Gezurrak esateagatik <u>gertatu</u> zaizu.</p> <p>8. ... <u>ezkutatu</u> zen, komisarioaren begirada zorrotzetik ihes egiteko.</p> <p>9. Buelta bat ematera noa.</p> <p>10. Ez nintzen norbaiti opariren bat egitearren dendaz denda ibiltzen.</p> <p>11. Gizona behin itzuliz gero, Kama Jainkoa <u>gurtuko</u> du.</p> <p>12. Kontuz ibili ezean, <u>erori</u> egingo zara.</p>	xmod

VI.9 Taula: Mendeko perpaus modifikatzaile jokatugabeak.

Adibidea	Dependentzia
<p>1. Eta dena kasualitatez hasi zen, bus hartako kristalean idatzi nuen <u>esaldiarekin</u>.</p> <p>2. Baimenik ez duen <u>norbaiti</u> eskatzen diote kaldera jartzeko.</p> <p>3. Aspaldi irakurri ez nituen euskarazko hiru <u>liburu</u> hartu nituen.</p> <p>4. Ez zait ahaztuko bost urte bete nitueneko <u>jaialdia</u>.</p>	cmod
<p>5. Ulertzen ez duzuena <u>galdetu</u> beldurrik gabe.</p> <p>6. Edonola ere, zeure buruarentzat nahi zenuena, <u>debekatu</u> egiten zenion hari.</p>	ncobj
<p>7. Hortik datorkio beraz guk ipinitako <u>ezizena</u>.</p> <p>8. Txita oiloak errundako <u>arrautzatik</u> jaiotzen da.</p> <p>9. Alabaina, aipatu <u>ordena</u> norabide mugatu bati jarraikitzen zaio.</p>	xmod

VI.10 Taula: Mendeko perpaus erlatiboak, jokatuak zein jokatugabeak.

Adibidea	Dependentzia
1. Hori baino serioagoa naiz ni. 2. Zarata bestea bezain arriskutsua da. 3. Delinkuentzia indizeak gero eta gorago <u>igotzen</u> ari dira. 4. Jutta ahalik eta polikien ahalegintzen da atea <u>ixten</u> . 5. Kontua da haratuzteak gero eta jende gehiagok ospatzentzu dituela.	lot
6. Iritzi honek, duela 30 urte zientziaren eremuan <u>gailendu</u> zelarik, eragozpen handiak ezarri zizkino.	apoxmod
7. Edanda omen <u>zeunden</u> .	xpred

VI.11 Taula: Konparaziozko perpausak eta aposizio- eta predikazio-perpausak.

Testu-mailako kohesioa

Testu-mailako lotura egiten duten lokailuak automatikoki markatzeko islapenerregela gutxi batzuk definitu ditugu. Horretarako, kontuan hartu dugu:

1. Lokailuaren posizioa perpusean

Perpausaren hasieran (VI.12n, 1 eta 2 adibideak), koordinatutako perpausen artean (VI.12ko 3 adibidea) ala perpausaren bukaeran agertzen den.

2. Gobernatzailea

Oro har, dependentzia-zuhaitzaren abiapuntuko adabegitik zintzilikatuko da; hau da *erroa* adabegitik (VI.12 taulako 1 eta 2 adibideak). Dena den, zenbaitetan, lokailuak juntagailuekin nahiz beste lokailuekin batera ager daitezke perpaus berean; horrenbestez, lokailu horiek osagai horien mende egongo dira eta ez *erroa* adabegitik. Honen adierazle dugu taula bereko (3) adibidea.

Adibidea	Dependentzia
1. Beraz , telefonora joan naiz	lot_at
2. Halaz ere , bukatu zuen noizbait klasea eta atera ginen kalera.	
3. Mikel etorri da <u>eta</u> , beraz , ikusi dut.	lot

VI.12 Taula: Lokailuei dagozkien adibideak.

Perpaus koordinatuak

Etiketatze automatikoan areagotu egiten da perpasu koordinatuak markatzeko zaitasuna. Saio batzuk egin ondoren, egitura hauek prozesu honetatik kanpo aztertu beharra ikusi dugu, kate koordinatuetan adierazi bezala. Dena den, lehen urrats honetan, etiketatze sintaktikoaren oinarrieta eman den irtenbidea eta VI.13 taulako adibideak hartu ditugu kontuan erregela gutxi batzuk osatzerakoan:

1. Gobernatzalea

Juntadura gertatzen den egituretan, gobernatzalea, oro har, perpauseko edo sintagmetako hitzen arteko lotura gauzatzen duen juntagailua da (VI.13 taulako adibide guztiak, (3) izan ezik); adibide bakar batzuetan komak ere betetzen du paper hori (3 adibidea). Halaber, gobernatzale hau, juntagailua, alegia, elkartzen diren egituren arabera adabegi desberdinatik zintzilikatzen da. Hala, perpauseko aditzaren mende dago sintagmetako gobernatzaleak elkartzen direnean, esaterako (1) perpausa; sintagmako gobernatzalearen mende dago sintagmako mendekoak elkartzen direnean, (2) perpausa, adibidez; eta perpausak edo perpau-setako aditzak elkartzen direnean abiapuntua den *erroa* adabeginetik zintzilikatzen da (3) perpusean ikus daitekeen bezala, edota (4) eta (5) adibideetan adierazten den moduan, perpaus nagusiko aditzetik.

2. Mendekoaren kategoria

Aurreko puntuarekin lotuta, elkartzen diren mendeko hitzen kategoria (izena, aditza...) ere kontuan hartu dugu. Horretaz gain, sintagmetako hitzen arteko loturan, kasu-marka bera daramaten elkartzen diren hitzek ala bietako batek daraman ere erreparatu dugu. Eta aditz-kateko hitzen artean, berriz, ea aspektu bera dutenak diren.

3. Kokalelua

Gobernatzalea eta mendekoak elkarrengandik eta puntuazio-marka bittarte ezkerreira eta eskuinera zenbat urratsetara dauden zehaztu dugu islapen-erregela hauetan.

Perpaus konposatuari buruzko informazio honekin guztiarekin 124 islapen-erregela osatu ditugu, menderagailu konplexuak markatzeko erabili dugun *menos* dependentzia-etiketa lagungarriari dagozkionak barne.

Adibidea	Dependentzia
<p>1. Horixe zen magoak eta nik genuen sekretua.</p> <p>2. Noiz da laneko segurtasunaren eta osasunaren nazioarteko eguna?</p> <p>3. Jadanik ez nau maite, ziudadetik beste andere bat ekarri du.</p> <p>4. Mostradorera hurbildu eta zerbait hotz eskatzen ikusi zuen.</p> <p>5. Ez nintzen norbaiti loreak bidali edo opariren bat egitearren dendaz denda ibiltzen.</p>	lot

VI.13 Taula: Koordinazioari dagozkion adibideak.

Printzipioak formalizatu ahala, aztergai izan dugun EPEC corpuseko zatiari aplikatu zaizkio, zehazki, islapen-erregelak idazteko erabili dugun automatikoki aztertutako testu-zatiari, eta hutsuneak osatuz joan gara.

VI.4.2.2 EDGK-II

Esaldia osatzen duten elementuen arteko dependentzia sintaktikoak esplizitu egiteko osatu dugun EDGK-II gramatika, VI.14 eta VI.15 tauletan jaso dena da. Taula horietako lehen zutabean, mendeko hitzei dagozkien dependentzia-etiketak eta dependentzia-etiketa horiek zein kategoriatako hitzei esleituko zaizkien zehaztu dugu; bigarrenean, mendeko horren gobernatzailea zein kategoriatakoa den adierazi dugu, eta hirugarrenean, dependentzia-erlazioak bereizi behar direnean bete beharreko murritzapenak formulatu ditugu.

Hiru zutabe hauetan agertzen diren laburzapenen esanahia hau da: ADB (adberbioa); ADI (aditza); ADIZE (aditz-izena); ADJ (adjektiboa); ADL (aditz laguntzailea); ADLG (adizlaguna); ADT (aditz trinkoa); ASP (aspektua); BST (bestelakoa); DET (determinatzalea); ERLT (erlatibozkoa); GEL (leku-genitiboa); GEN (edutezko genitiboa); HAUL (hitz anitzeko unitate lexikala); IOR (izenordaina); ITJ (interjekzioa); IZE (izena); PART (partizipioa); PRT (partikula); PUNT_ESKL (harridura-marka) eta koma (PUNT_KOMA).

Ezaugarri horiekin batera agertzen diren ikurrak, gramatika hau aplikatzeko sortu den programak erabiltzen dituen berberak dira:

- a) “edo” esan nahi duen ikurra: |
- b) “eta” adierazteko erabiltzen dena: &

- c) “ez” esan nahi duena: !
- d) “lehentasuna” markatzeko erabiltzen dena: >

Adibidez, VI.14 taulako *auxmod* dependentzia-etiketa, oro har, ADL kategoriako hitzari esleituko zaio eta bera gobernatzen duen ADI kategoriako hitza ASP ezaugarria duena izan behar du. Aditz laguntzailea ez ezik, ADI kategoriako osagaiari ere eslei dakioka dependentzia-etiketa hau; kasu honetan, bera gobernatzen duen aditzak (ADI) ez du aspektu (ASP) ezaugarririk izango.

VI.4.3 EDGK gramatikak ikuspuntu konputazionaletik

VI.4.3.1 EDGK-I

Behin islapen-erregelak nola osatu diren adierazita, erregela horien bitartez analizatzaile sintaktikoak ematen duen analisia da (VI.3) irudikoa. Analisi horretan ikus daitekeen moduan, modulu honetan, & ikurrarekin hasten diren dependentzia-etiketak dira hitzei esleitzen zaizkienak baldin eta islapen-erregeletan deskribatutako baldintzak betetzen dituzten. Halaber, dependentzia-etiketarekin batera ageri diren > edo < ikurren bitartez, men-dekoaren gobernatzailea bere eskuinera edo ezkerrera ageri den adierazten da.

Zinemako cowboy hark bere etxe handian errezipitu zituen esaldiaren dependentzia bidezko analisia gauzatzeko erabili diren islapen-erregelak hauek dira:

1. Izenaren modifikatzailea zehazteko islapen-erregela

Islapen-erregela honen bitartez, sintagma barnean dauden bi hitzen arteko dependentzia-erlazioa adierazi da, **zinemako** eta **cowboy** hitzen artekoa, hain zuen ere.

Erregela hori honela parafraseatzen da: esleitu (MAP) &ncmod> etiketa izenlagun funtzio sintaktikoa (@IZLG>) duen izenari (IZE), baldin eta (IF) izen hori leku-genitiboan (GEL) dagoen eta sintagma-koko lehen hitza (%SIH) den. Halaber, sintagma horren bukaera bitarte (BARRIER %SIB) bere eskuinera edozein urratsetara (*1) izen kategoriako beste hitz bat egotea eskatzen da.

Mendekoa	Gobernatzailea	Murriztapenak
aditz_nagusi ADI ADT	erroa	
auxmod ADL>ADI	ADI	- Mendekoa ADL denean, gobernatzailea den aditz nagusiak ASP ezaugarria du. - Mendekoa ADI denean, gobernatzailea den aditz nagusiak ez du ASP ezaugarririk.
galdemod ADI	ADI	- Gobernatzailea den aditz nagusiak ez du ASP ezaugarririk.
prtmod PRT BST	ADI ADT	- Mendekoaren funtziointzako sintaktikoa @PRT edo @BST da.
ncsubj IZE IOR>ADJ>DET	ADI ADT	
ncobj IZE IOR>ADJ>DET	ADI ADT	
nczobj IZE IOR>ADJ>DET	ADI ADT	
ncmod IZE IOR ADB>ADJ>DET (GEN GEL)	ADI ADT	- Mendekoa ADB kategoriakoa denean, @ADLG funtziointzako izango du.
ncpred IZE ADJ ADB	ADI ADT	
itj_out ITJ ESKERRAK>IZE	ADI ADT	- Mendekoa IZE kategoriakoa denean, PUNT_KOMA eta PUNT_ESKL motako puntuazio-marken artean joango da.
ncmod IZE IOR(&GEN GEL) ADJ	IZE>ADJ	
aponcmmod IZE IOR>ADJ	IZE	
detmod DET	IZE>ADJ>DET	
gradmod ADJ ADB	ADJ ADB	

VI.14 Taula: EDGK-II: perpaus bakunak.

176 DEPENDENTZIA GRAMATIKA KONPUTAZIONALAK

Mendekoa	Gobernatzailea	Muriztapenak
ccomp_obj ADI ADT	ADI ADT HAUL Eskerrak IZE	- Perpaus osagarria eskatzen duen aditz multzokoa da gobernatzalea.
ccomp_subj ADI ADT	ADI ADT HAUL Eskerrak IZE	- Perpaus osagarria eskatzen duen aditz multzokoa da gobernatzalea.
xcomp_obj ADI(ADIZE PART & ASP)	ADI ADT HAUL	
xcomp_subj ADI(ADIZE PART & ASP)	ADI ADT HAUL	
xcomp_zobj ADI(ADIZE PART & ASP)	ADI ADT HAUL	
apocmod ADI ADT	ADI ADT	
cmod ADI ADT ADI ADT	ADI ADT IZE>ADJ>DET	- Mendeko aditz-katean, (ADL& ERLT) (ADT& ERLT) izango da. - Mendeko aditz-katean, (ADL& ERLT) (ADT& ERLT) izango da.
apoxmod ADI ADT	ADI ADT	
xmod ADI(ADIZE PART & ASP) ADI(ADIZE PART & ASP)	ADI ADT IZE>ADJ>DET	- Mendeko aditz-katean, ADI& GEL - Mendeko aditz-katean, ADI& GEL
xpred ADI	ADI ADT	
lot	ADI IZE erroa	
lot_at	erroa ADI	
entios	IZE	
haos	ADI IZE ADJ ADB	
menos	ADI ADT	
postos	IZE ADB	

VI.15 Taula: EDGK-II: perpaus konposatuak eta etiketa lagungarriak.

```

/<@0186557,2639,0061,08>/<ID>/
/<Zinemako>/<HAS_MAI>/
    ("zinema" IZE ARR DEK NUMS MUGM DEK GEL @IZLG &%SIH &%NCMOD)
/<cowboy>/
    ("cowboy" IZE ARR @KM &%NCSUBJ)
/<hark>/
    ("hura" DET ERKARR NUMS DEK ERG NUMS MUGM @SUBJ %SIB &%DETMOD)
/<bere>/
    ("bera" DET ERKIND NUMS DEK GEN @IZLG &%SIH &%NCMOD)
/<etxe>/
    ("etxe" IZE ARR @KM &%NCMOD)
/<handian>/
    ("handi" ADJ IZO DEK NUMS MUGM DEK INE @ADLG %SIB &%NCMOD)
/<errezipitu>/
    ("errezipitu" ADI SIN AMM PART ASP BURU @-JADNAG %ADIKATHAS &%ADITZ_NAGUSI)
/<zituen>/
    ("*edun" ADL B1 NR_HK NK_HU @+JADLAG %ADIKATBU &%AUXMOD)
/<.>/<PUNT_PUNT>/

```

VI.3 Irudia: Analizatzaile sintaktikoaren emaitza EDGK-I baliatuta.

```

MAP (&%NCMOD) TARGET (@IZLG)
    IF (O (IZE) + (GEL) + (%SIH)
        )
        (*1 (IZE) BARRIER (%SIB)
    );

```

VI.4 Irudia: Izenaren modifikatzaila zehazteko islapen-erregela.

2. Aditzaren mendekoa den izena zehazteko islapen-erregela

Honetan sintagmako gobernatzaila den **cowboy** hitzari esleitu zaio *&nsubj>* dependentzia-etiketa.

Sintagmako gobernatzaila den **cowboy** hitza (@KM>) funtzio sintaktikoduna da; hau da, berak ez darama kasu-marka baizik eta bere eskuinera urrats batera (1) dagoen adjektiboak (ADJ) edo determinatzaileak (DET). Kasu honetan determinatzailea da ergatibo (ERG) kasuan doana eta sintagma ixten duena (%SIB). Sintagma honen eskuinera edozein urratsetara (*1) puntura edo galdera ikurra bitarte (BARRIER PUNT_PUNT OR PUNT_GALD) NOR_NORI edo NOR paradigmakoa ez den aditz trinko edo jokatuaren mende egongo da.

```

MAP (&NCSUBJ>) TARGET (@KM>
IF (O (IZE)
)
(1 (ADJ) + (ERG) + (@SUBJ) + (%SIB) OR
(DET) + (ERG) + (@SUBJ) + (%SIB)
)
(*1 (ADT) + (@+JADNAG) OR (ADT) +
(@+JADNAG_MP) OR (ADT) +
(@+JADNAG_IZLG>) OR (ADI) +
(@-JADNAG) BARRIER (PUNT_PUNT)
OR (PUNT_GALD)
)
(NOT *1(ADT) + (NOR) OR (ADT) +
(NOR_NORI) OR (ADL) + (NOR) OR
(ADL) + (NOR_NORI) BARRIER
(PUNT_PUNT) OR (PUNT_GALD)
);

```

VI.5 Irudia: Aditzaren mendeko izena zehazteko islapen-erregela.

3. Izenaren determinatzailea zehazteko islapen-erregela

Sintagma ixten duen **hark** determinatzaileari dagokio islapen-erregela hau.

```

MAP (&<DETMOD>) TARGET (@SUBJ)
IF (O (DET) + (%SIB)
)
(-1 (@KM>) OR (@<IA>
)
(NOT -1 (''makina'') OR (DET) +
(ORD) + (@ID>) + (%SIH)
);

```

VI.6 Irudia: Izenaren determinatzailea zehazteko islapen-erregela.

Islapen-erregela honen bitartez sintagma ixten (%SIB) duen determinatzaileari (DET) &<*detmod*> dependentzia-etiketa esleituko zaio. Determinatzaile horrek subjektu funtzio sintaktikoa (@SUBJ) betetzen duena beharko du izan, eta bere ezkerrera urrats batera (-1), kasu-markarik ez daraman izena (@KM>) edo adjektiboa (@<IA>) joango da. Halaber, bere ezkerrera urrats batera ez du **makina** hitzak agertu behar edota ordinala (ORD) den eta izena modifikatzen duen determinatzailerik (@ID>).

4. Izenaren modifikatzailea zehazteko islapen-erregela

Esaldi hau osatzen duen **bere etxe handian** sintagmako lehen hitzari dagokio erregela hau. Islapen-erregela honen bitartez esleituko zaion dependentzia-etiketarekin sintagmako gobernatzailea den **etxe** hitzaren mendekoa dela adierazi nahi da.

```
MAP (&NCMOD>) TARGET (@IZLG>
  IF (0 (DET) + (GEN) + (%SIH)
    )
    (1 (IZE) + (@ADLG) + (%SIB) OR
      (IZE) + (@SUBJ) + (%SIB) OR
      (IZE) + (@OBJ) + (%SIB) OR
      (IZE) + (@ZOBJ) + (%SIB) OR
      (IZE) + (@PRED) + (%SIB)
      OR (IZE) + (@KM>)
    );
);
```

VI.7 Irudia: Izenaren modifikatzailea zehazteko islapan-erregela.

Horrela, bada, sintagma baten hasieran (%SIH) dagoen determinatzai-le kategoriako hitzari (DET) &ncmod> dependentzia-etiketa esleituko zaio baldin eta hitz hori genitiboan (GEN) dagoen eta izenlagun funtzio sintaktikoa (@IZLG>) betetzen duen. Horretaz gain, urrats batera (1), katea ixten duen (%SIB) izen kategoriako hitzak (IZE) lagunduko du, berdin dio subjektu funtzio sintaktikoa (@SUBJ) betetzen duen edota objektu (@OBJ) edo zehar-objektu (@ZOBJ) edo predikatibo (@PRED) funtzioa. Beste aukeretako bat katea ixten ez duen eta kasu-markarik ez daraman izena urrats batera izatea da.

5. Aditzaren mendeko izena zehazteko islapan-erregela

Sintagmako gobernatzailea den **etxe** hitzari esleituko zaio etiketa hau; beraz, bere gobernatzailea sintagmatik kango da.

```
MAP (&NCMOD>) TARGET (@KM>
  IF (0 (IZE)
    )
    (-1 (@IZLG>) OR (@ID>)
    )
    (1(INE) + (@ADLG) + (%SIB)
  );
);
```

VI.8 Irudia: Aditzaren mendeko izena zehazteko islapan-erregela.

Honela parafraseatzen da erregela hau: esleitu &*ncmod*> etiketa kasu-markarik (@KM>) ez daraman hitzari, baldin eta izen kategoriakoa (IZE) den, bere ezkerrera urrats batera (-1), izenlagun (@IZLG>) edo determinatzale funtziointerpretazioa (ID) dagoen eta eskui-nera urrats batera (1), berriz, sintagma ixten inesibo kasuan (INE) doan eta adizlagun funtziointerpretazioa (@ADLG) betetzen duen hitza agertzen den.

6. Izenaren modifikatzalea den adjektiboa zehazteko islapen-erregela
Oraingo honetan sintagma ixten duen **handian** hitzari esleituko zaio &<*ncmod* dependentzia-etiketa.

```
MAP (&<NCMOD) TARGET (@ADLG)
  IF (0 (ADJ) + (INE) + (%SIB)
    )
    (-1 (IZE) + (@KM>)
    );
;
```

VI.9 Irudia: Izenaren modifikatzalea den adjektiboa zehazteko islapen-erregela.

Mendeko hau adjektibo kategoriakoa (ADJ) da eta inesibo kasuan (INE) doa; beraz, adizlagun funtziointerpretazioa (@ADLG) du eta era berean, sintagmako azken hitza (%SIB) da. Gainera, bere ezkerrera, urrats batera (-1) dagoen izen kategoriako hitzak (IZE) gobernatuko du; eta gobernatzaile hau @KM> (kasu-markadunaren modifikatzalea) funtziointerpretazioa izatea zehaztu da.

7. Aditz nagusia zehazteko islapen-erregela
Perpauseko aditz nagusiari dagokion islapen-erregeletako bat dugu hau.

```
MAP (&ADITZ_NAGUSI) TARGET (@-JADNAG)
  IF (0 (ADI) + (ASP) + (%ADIKATHAS)
    )
    (1 (ADL) + (@+JADLAG) + (%ADIKATBU)
    );
;
```

VI.10 Irudia: Aditz nagusia zehazteko islapen-erregela.

Erregela honen bitartez, baldintza horiek betetzen dituzten perpaus bakunetako aditz nagusiak identifikatuko dira. Aditz horiek bi

hitzez osatutako aditz-katean agertu behar dute: %ADIKATHAS eta %ADIKATBU. Horrela, aspektu marka (ASP) duen aditzari (ADI) esleituko zaio dependentzia-etiketa hau, baldin eta bere eskuinera urrats batera (1), aditz-katea ixten duen aditz laguntzailea (ADL), @+JADLAG funtzió sintaktikoduna, agertzen den.

8. Aditz laguntzailea zehazteko islapen-erregela

Erregela honek aditz-kateko bigarren hitzari esleituko dio &<auxmod dependentzia-etiketa, aditz laguntzaileari, alegia. Horretarako definitu den erregela VI.11 irudikoa da.

```
MAP (&<AUXMOD) TARGET (@+JADLAG)
    IF (0 (ADL) + (%ADIKATBU)
        )
        (-1 (ADI) + (@-JADNAG) +
            (%ADIKATHAS)
        );
    );
```

